

2018-2019 ikasturtea

# Linschmann-Aresti Legearen bilakaera gaur egungo Iparraldeko hizkeretan:

3. pertsona izenordainek aditz jokatudun  
perpausetan erakusten duten joera

Maite Ricarte Ormazabal  
EHU/UPV

Tutorea: Myriam Uribe-Etxebarria Goti  
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Saila

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## Laburpena

Gradu amaierako lan honek Linschmann-Aresti legeak (LA-legeak) azken urteetan Iparraldeko euskal eremuan 3. pertsona (3p) izenordain genitiboekin (*haren vs. bere, eta haien vs. bere/beren*) izandako bilakaera aztertzea du helburu, begirada aditz jokatuko perpausetan jarritz.

Rebuschik (1995) Iparraldean 1. eta 2. pertsona (1/2p) izenordainen aurkaritza (forma ez indartuak vs. forma indartuak) desagertutzat jo zuen dagoeneko XVII. menderako. Izenordain hauen kasuan, forma arruntaren (edo ez indartuaren) aldeko joera bati bidea utzi ziotela eta oposaketa 3p izenordainek bakarrik mantentzen zutela argudiatu zuen hizkuntzalari honek. Lan sakon honen atzetik, azken hamarkadetan ez da lan sistematikorik burutu sistemaren bilakaera aztertzeko eta gaur egungo hiztunen joerak nolakoak diren aztertzeko. Lan honekin, euskal gramatikaren eremuan dagoen hutsune hori bete nahi izan dugu *Norantz datu basea*-n oinarrituz — datu basea honek 2009-2011 bitartean Iparraldeko 59 hiztuni egindako galdeketaren emaitzak biltzen ditu. Galdetegi honetan LA-legearen eboluzioa aztertzeko espresuki prestatutako 11 esaldiak (C44tik C54ra doazenak) hartu dira kontuan eta esaldi horiek hiztun bakoitzak nola gauzatu dituen aztertu da. Orotara, beraz, 649 esaldi aztertu dira eta esaldi hauen azterketen emaitzak hainbat taulatan bildu dira.

*Norantz*-ek elkarrizketatutako hiztunen lagina oso handia ez bada ere, gaur egungo egoeraren nondik norakoen isla fidagarria eskaintzen digu, datu multzo adierazgarria emateaz gain hiztunen hainbat ezaugarri soziolinguistiko nagusi zehazki sailkatu dituelako, haietarik hiztunen adina eta, zenbait kasutan ere, hiztunen euskalkia. Datu hauek kontuan hartuz, hiztunek belaunaldiz belaunaldi erakusten dituzten (des)berdintasunak aztertu ditut eta honekin batera, hiztunen kopuruaren aldetik lagina txikia bada ere, Ipar Euskal Herriko hiru euskalkietako hiztunak barne hartzen dituenaz, euskalki bakoitzak legea mantentzeko izan duen joera edota bilakaera nagusira hurbiltzeko bidea ematen digu.

Ikerketaren emaitza nagusiak honela laburbil daitezke: **i)** LA-legea (ezagutzen den bezala) dagoeneko desagertu egin da 3p izenordainetan. **ii)** 3p izenordain genitiboen bilakaera corpuseko lehen (B1, +70 urte) eta bigarren belaunaldiaren artean (B2, 40-60 urte) progresiboa bada ere, laginak argi islatzen du hirugarren belaunaldiak (B3, -30 urte) besteekiko salto handia eman duela, forma indartuak orokortuz. **iii)** Honetaz

gain, emaitzek lapurtera LA-legea luzaroen mantendu duen hizkera izan dela erakutsi dute nahiz eta zuberera izan hertsikiago mantendu duena. **iv)** Aitzindaria plurala denean forma indartuen erabilera apaldu egiten da. **v)** Aitzindaria plurala denean, bere zein beren formak aurkitzen dira hiztunen erantzunetan. *Beren-ek bere-ri* aurea hartu dio, batez ere hiztun gazteen euskaran. **vi)** Hiztun askok forma indartu eta ez indartuen arteko banaketa berrinterpretatu dute eta *bere* 3p. genitibo singularrarako eta *haien* 3p. genitibo pluralerako erabiltzen dute.

Lanean zehar, hiztunen ezaugarri soziolinguistikoetan oinarrituz, zenbait aldaketaren zergatia edo arrazoi posibleak aurkeztu dira —laginaren tamaina eta ezaugarriak kontuan izanda, beti ere behi-behineko hipotesi modura.

Lanaren egiturari dagokionez, lana bi zati nagusitan banatuta dago. Lehen zatian (1. eta 2. Atalak), LA-legeak zertan datzan aurkeztu ondoren, lege honek iraganean izandako bilakaeren berri eman dut laburki Sarasola (1979), Martínez Areta (2015), Rebuschi (1995, 1997) eta Duguine (2003) lanei jarraiki. Honetan oinarrituz, bigarren zatian (3. eta 4 Atalak), *Norantz datu base*-ko emaitzen azterketa sakona eskaini dut eta ateratako ondorio nagusiak bildu ditut. Lanaren amaieran hiztunen datuak (ezaugarri soziolinguistikoak) eta hiztunen emaitzak tauletan bildu ditut, lan honetan interesaturik dauden ikerlariak datu nagusiak modu eroso batean eskuragarri izan ditzaten.

# Aurkibidea

<b><u>1.</u> SARRERA</b>	<b>4</b>
<b><u>2.</u> LINSCHMANN-ARESTI LEGEA (LA-LEGEA): SISTEMA KLASIKOA ETA BILAKAERAREN HASIKINAK</b>	<b>8</b>
2.1. Linschmann-Aresti legea. Sistema klasikoaren deskribapena	8
2.2. LA-legearen bilakaeraren hasiera	10
2.3. XVI-XX mende bitarteko bilakaera: Rebuschi (1995, 1997)	13
2.4. Fenomenoaren egoera XX-XXI mendeen mugan Hazparneko euskarari: Duguine (2003)	17
<b><u>3.</u> KASU AZTERKETA</b>	<b>22</b>
3.1. Norantz datu basea	22
3.1.1. Galdetegia eta erabilitako metodologia	23
3.1.2. Hiztunak	24
3.1.3. Corpusa	26
3.1.3.1. <i>Norantz-ek aztertutako testuinguru morfosintaktikoak</i>	26
3.2. Kasu azterketaren emaitzak	33
3.2.1. <i>Bere eta haren</i> izenordainen banaketaren egoera esaldiz esaldi	34
3.2.2. LA-legea belaunaldiz belaunaldi	60
3.2.2.1. <i>Lehenengo belaunaldia</i>	61
3.2.2.2. <i>Bigarren belaunaldia</i>	65
3.2.2.3. <i>Hirugarren belaunaldia</i>	67
3.2.3. LA-legea euskalkiz euskalki	73
<b><u>4.</u> ONDORIOAK ETA GOGOETAK</b>	<b>78</b>
<b><u>5.</u> BIBLIOGRAFIA</b>	<b>80</b>
6. ERANSKINAK	82
6.1. Lehenengo eranskina	82
6.2. Bigarren eranskina	85

# 1. SARRERA<sup>1</sup>

Gratu amaierako lan (GRAL) honen helburu nagusia Iparraldeko hizkeretan gaur egun 3. pertsona (3p) izenordain genitiboekin *Linschmann-Arestiren legea*<sup>2</sup> (hemendik aurrera LA-legea) aditz jokatudun perpausetan mantentzeko edo ez mantentzeko dagoen joera aztertzea da eta, legea ez mantentzekotan, zein joera agertzen den deskribatzea eta, ahal den neurrian, aldaketaren nondik norakoen arrazoiak azaltzea. Ikerketa honetan *Norantz datu basea* hartu dugu corpus gisa.

LA-legeak euskara klasikoan izenordain genitiboek erakusten duten jarrera morfosintaktikoa deskribatzen du. Auzoko hizkuntzekin erkatzen badugu, euskarak badu inguruko hizkuntzek (gaztelania, frantsesak edo ingelesak, besteak beste) erakusten ez duten fenomeno bat pertsona izenordain genitiboek dagokienez:

- (1) Miguel<sub>i</sub> dijo [ que Juan<sub>j</sub> ama a su<sub>i/j</sub> perro ].
- (2) Michael<sub>i</sub> said [ that John<sub>j</sub> loves his<sub>i/j</sub> dog ].
- (3) Michael<sub>i</sub> a dit [que Joan<sub>j</sub> aime son<sub>i/j</sub> chien].
- (4) Mikelek<sub>i</sub> [ Jonek<sub>j</sub> *bere*<sub>\*i/j</sub>/*haren*<sub>\*i/j</sub> txakurra maite duela] esan du.

(1-3) adibideetan ikus dezakegunez, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez 3. pertsonako izenordain posesiboek (*su*, *son* eta *his*, hurrenez hurren) bere perpausoko osagai bati (kasu honetan bere perpausaren subjektua den *Juan/John/Joan* Determinatzaile Sintagmari (DS)) zein bere esaldiz kanpoko beste elementu bati (*Miguel/Michael* perpaus nagusiko subjektuari) egin diezaioke erreferentzia, eta hiztunak testuinguru pragmatikoaren arabera aukera dezake zein den izenordainaren aitzindaria. Euskarazko (4) adibideak

---

<sup>1</sup>Eskerrak eman nahi dizkiot lan honen lehen zuzendaria izan zen Maia Duguine irakasleari, *Norantz datu basean* oinarrituta kasu ikerketa hau egiteko proposatu zidalako. Mila esker lan honen ibilbide osoan eskainitako laguntzagatik. Horrekin batera, nire bigarren zuzendaria izan den Myriam Uribe-Etxebarria irakasleari ere eskerrak eman nahi nizkioke Maia Duguine joan zenean nire GRALa bere esku hartu eta aurrera eramaten lagundu didalako. Manu Padillari ere eskerrak eman nahi dizkiot ezezagunak nituen aditz laguntzaile forma batzuk ulertzen lagundu didalako.

<sup>2</sup>Hemendik aurrera lege hau *LA-legea* laburduraren bidez emango dugu. Lanean erabilitako beste laburdurak: *Norantz datu basea*=*Norantz*; Axular=*Ax*, Etxeberri Sarakoa=*Etxb*. Leizarraga=*Leiz* edo *Lç* (azken hau Sarasolak darabil), Lazarraga=*AL* (Martínez Aretak emandako laburdura mantendu da), Singularra=*sg.*, Plurala=*pl.*; *Sareko Euskal Gramatika* = *SEG*; *Orotariko Euskal Hiztegia*= *OEH*, Eranskin=*eransk*; Baxe-Nafarrera=*BN*; Zuberera=*Z*; Lapurtera=*L*; Lapurtera Klasikoa= *LK*; *Euskara batu zaharra*=*EBZ*; Determinatzaile Sintagma = *DS*; Izen Sintagma= *IS*; Datiboa=*Dat*; Absolutiboa=*Abs*; Ergatiboa = *Erg*; Izenordaina=*Izord*; Pertsona=*p*; Mende =*Mn*; ENF=*Enfatikoa*; BN=*Beren*; H=*Haren*; B=*Bere*.

erakusten duenez, aldiz, aukera hau ez da posible gure hizkuntzaren Sistema Klasikoan: hiztuna *haren* izenordain genitiboa (3p izenordainaren genitibo forma arrunta) edo *bere* izenordain genitiboa (3p izenordainaren forma indartua) aukeratzera behartuta dago izenordainak hartzen duen esanahiaren (hau da, aitzindariaren) arabera.<sup>3</sup>

Izenordain genitiboen arteko forma arrunta eta forma indartuaren arteko oposaketa hau Sarasolak (1979) *Linschmann-Aresti Legea* (LA-legea) formalizatu zuen. Sarasolak honela jaso zuen forma arrunta eta indartuen arteko oposaketa:

“Lehen eta bigarren pertsonetako posesiboek<sup>4</sup> bi era dituzte, *lehen era* (*ene...*) eta *bigarren era* (*neure...*) deituko ditugunak. Sintagmaren batean posesibo bat gertatzen bada, delako posesibo hori lehen eran agertuko da baldin gertatzen den sintagmari dagokion aditzan pertsona eta numero bereko formanterean bat NOR, NORK nahiz NORI motakoa, agertzen ez bada. Bestela posesiboak bigarren era hartuko du.” (op. cit.: 433)

Sarasolaren ondoren beste egile askok ere aztertu dute oposaketa hau. Fenomenoaren deskribapenak beti berdinak ez badira ere, egile gehienek azpimarratzen dute forma indartuen erabilerak izenordain genitiboak bere perpausean indizekidea den NOR, NORI edo NORK argumentu bat —edota argumentu honi perpaus bereko aditz jokatuan dagokion formante bat (komunztadura marka bat)— agertzea eskatzen duela. Bestela

---

<sup>3</sup> Ikusiko dugunez, fenomeno hau aztertu duten egileek terminologia ezberdina erabiltzen dute aztertutako oposaketan agertzen diren izenordainak izendatzeko. Guk, inolako inplikazio teorikorik gabe eta modu deskriptibo batean, laburbilduko ditugun zenbait lani jarraituz, (*izenordain genitiboen*) *forma arruntak* vs. *indartuak* edo *forma ez indartuak* vs. *forma indartuak* terminoak erabiliko ditugu. Hala ere, literaturako lanak laburtzerakoan, egile bakoitzak erabilitako terminologia ere erabiliko dugu.

<sup>4</sup> Sarasolak literatur tradizioko autoreek legea noraino betetzen zuten sakonki aztertu eta deskribatu bazuen ere, 3p izenordain posesiboak bere azterketatik kanpo utzi zituen. Hala ere, Sarasolak horri buruzko justifikaziorik egiten ez duen arren eta 3p izenordainak bere lanean aipatzen ez badira ere, bere ondotik fenomenoaz aztertu duten hizkuntzalariek erakutsi dute autore klasikoetan LA-legeak 3p izenordainak ere eragiten zituela argi eta garbi. Artiagoitiak (2003: 625) zuzenean aipatzen du hau:

“The third person possessive pronouns also have reflexive forms that comply with the Aresti-Linschmann Law: *bere* and *beren*, which contrast with regular third person possessives like *haren* and *haien*.”

Eta gauza bera egiten du jarraian aztertuko dugun Martínez Aretak (2015). Egile honek 3p izenordain genitiboetan ere bi forma ezberdintzen ditu: *haren/haien* eta *bere,beraren/beren,beraien*. Lehenak forma arruntak (sg/pl) eta bigarrenak forma indartuak lirarteke. LA-legeak izenordain genitibo guztiak eragiten zituela espreski esaten du Martínez Aretak:

“This law predicts the appearance of *ene* or *neure*, along with other weak and strong genitive pronouns (including 3<sup>rd</sup> p.sg. and pl.), in a given context, and is effective, to different degrees, in the old texts of every dialect. (...)” [Martínez Areta, 2013:312]

Berehala ikusiko dugunez 1p eta 2p izenordainek, alde batetik, eta 3p izenordainek, bestetik, bilakaera ezberdina izan zuten.

esanda, izenordain genitibo indartuak perpauskide eta indizekide den NOR, NORI edo NORK argumentu/komunztadura marka bat eskatzen du.<sup>5</sup>

Euskara Zaharrean (1600-1745) dagoeneko LA-legea ahultzen hasia zen. Bereziki lapurteraz (L) eta gipuzkeraz (G) hasi zen hausten legea 1/2p izenordainekin Argaiñarats, Harizmendi, Otxoa Arin, Urte edota Zegamako Dotrinaren autorearen eskutik, besteak beste. Legea Hegoaldean zein Iparraldean ahultzen hasia zelako lekukotasunak baditugu ere, lurralde guztiek ez zuten joera berdina erakutsi. Hegoaldean izenordain posesibo indartuen erabilera-eremua handitu zen arrunten erabilera murriztuz eta Iparraldean, berriz, izenordain arruntaren aldeko joera nagusitu zen 1/2p izenordainetan (Mounole & Gómez, 2018:522-523).

Rebuschik (1995) XVI. mendetik XX. mendera arteko Iparraldeko hainbat testu landu zituen izenordain genitiboen joera aztertzeko. Hizkuntzalari honek 3p-ko izenordainetan jarri zuen arreta, konturatu zelako —bere aurretik Lafitte 1944 bezala—, 1/2p izenordainetan XVIII. menderako forma indartu eta arrunten arteko oposaketa jadanik forma arruntaren mesedetan aldatzen zegoela. 3p izenordainekin, aldiz, bestelakorik gertatzen zela ohartu ziren bi hizkuntzalariok:

“Emploi de *bere* et *beren*. Le réfléchi dépend d’ordinaire du verbe à mode personnel de la proposition où il se trouve; il se réfère à un possesseur désigné comme sujet, complément direct ou complément indirect dans la forme verbale.

Emploi de *haren* et *heien*. Quand le possessif ne se réfère pas à une personne représentée au moins par la forme verbale dans la proposition où il se trouve, c’est *haren* et *heien* que l’on emploie pour traduire *son* et *leur*” [Lafitte, 1944: 92]<sup>6</sup>

---

<sup>5</sup> Fenomenoa deskribatu duten egile guztiek modu nahiko bertsuan aitzindaria NORK, NOR eta NORI izan behar dela zehazten badute ere, batzuek zuzenean erreferentzia egiten diote argumentu hauek aditz jokatuari eragiten duten komunztadura markari (hala nola, Laffitek (1944), Sarasolak (1979), Martínez de Aretak (2015) etab.). Beste batzuek, ordea, (Mounole eta Gómezek (2018), besteak beste) ez dute komunztadura marka hau aipatzen. Lan honen analisirako eraginik izango ez badu ere (hemen ez baitira aditz jokatugabeko perpausak edo auzi honetarako garrantzitsuak izan daitezkeen beste testuinguru batzuk aztertzen), ezberdintasun hauek predikzio ezberdinak egin ditzakete aurreikusten diren emaitzetaz. Ezberdintasun hauek alde batera utziko ditugu eta lan honetan zehar eta Martínez Aretak, Laffitek, edo Sarasolak aipatutako lanetan emandako deskribapenari jarraituko diogu eta aditzaren argumentuek aditz jokatuari eragindako komunztadura kontuan hartuko dugu.

<sup>6</sup> "*Bere* eta *beren*-en erabilera. Normalean, bihurtaria perpausko aditz jokatuaren mende dago; aditz forman subjektu, osagarri zuzen ala zehar osagarri gisa karakterizatzen den jabe bati egiten dio erreferentzia.

*Haren* eta *heien*-en erabilera. Posesiboak ez diolarik guttienez bere perpausko aditz forman adierazia den pertsona bati erreferentzia egiten, *son* eta *leur* itzultzeko, *haren* eta *heien* erabiltzen dira." [Itzulpena: Maia Duguine].

Iparraldeko sistemaren azterketarik berriena Duguine (2003) dugu, baina lan honek Hazparneko hizkera bakarrik aztertu zuen. Horrez gain, aztertzen duen hizkerak (Hazparnekoa) eta laginaren tamainak berak (3 hiztun) zail egiten du Iparraldeko gaur egungo beste hizkeretan joera orokor nagusirik dagoen egiaztatzea.

Rebuschik eta Duguinek hasitako ikerketa honetan aurrera egiteko, eta euskal gramatikari buruzko literaturan gai honi buruz dagoen hutsunea betetzeko asmoz, lan honetan Iparraldeko hizkeretan 3p genitiboek gaur egun erakusten duten jarrera ikertuko dut.

Xede horrekin, *Norantz* proiektuak sarean eskuragarri jarritako baliabideak erabili ditut. *Norantz*, Baionako IKER laborategian 2009-2011 bitartean burutu zuten datu bilketa handi baten emaitza da, gaur egun sarean <http://www.norantz.org/> helbidean eskuragarri dagoena. Prestatu zuten galdetegia euskararen oinarritzko ezaugarri batzuk biltzen dituzten hainbat ataletan antolatuta dago. Izenordain genitiboen ezaugarriak aztertzeko atalean hamaika galdera prestatu ziren, corpusean C44-tik C54-ra bitartean bilduta daudenak,<sup>7</sup> LA-legearekiko portaera erakusteko zehazki prestatuak. Hitzunek emandako erantzun guztiak aspaldidanik sarean bilduta badaude ere, orain arte aztertu gabe zeuden. Horretan datza, besteak beste, burutu dugun lan honen interesa.

Gure ikerketan, datuen azterketa orokorra emateaz gain, laginak ahalbidetzen duen heinean datuak hainbat aldagaien arabera aztertuko ditugu. Batetik adin-tarte ezberdinen jokaerari arreta jarri diegu, eta belaunaldiz belaunaldi 3p izenordainetan eman den bilakaera aztertu dugu. Honetaz gain, laginak uzten duen heinean (hiztun guztiei ez zaie euskalki<sup>8</sup> bat esleitzen, batetik, eta lagina ez dago euskalki bakoitzeko hiztun-kopuruaren aldetik orekatuta, bestetik) euskalkiz euskalki LA-legeak erakusten dituen joera eta izandako bilakaera nagusiak ere aztertu dira. *Norantz*-ek gai hau aztertzeko prestatu zuen

---

<sup>7</sup> *Norantz*-en horrela sailkatuta daude izenordain genitiboen portaera aztertzeko prestatutako galderak. Orotara 11 esaldi dira. *Norantz*-eko metodologia orokorrari jarraituz, hiztun bakoitzari esaldi horiek frantsesetik euskarara itzultzeko eskatu zitzaizen argi eta garbi adieraziz noren erreferentziakide zen erabili beharreko izenordaina. *Norantz* proiektu honetan erabilitako metodologiaren inguruko argibide zein iruzkinetarako, ik. <http://norantz.org/web/proiektua>

<sup>8</sup> *Norantz*-ek horrela (dialekto gisa) definitzen dituzte haien datu bilketan aztertutako hizkerak eta GRAL honetan ere horrela izendatuko dira, datu base horrekin koherentzia mantentzeko asmoz.



galdetegian perpaus guztiak jokatuak direnez, gure ondorioak perpaus mota honetan oinarrituta egongo dira.

Lana horrela egituratuta dago:

Lehenik, 2. atalean LA-legearen sistema klasikoaren (SK) deskribapena emateaz gain XVI. mendetik gaur egun arte izandako bilakaera laburbildu dugu Sarasola (1979), Martínez Areta (2015), Rebuschi (1995, 1997) eta Duguine (2003) oinarri gisa hartuz hurrenkera honetan. Ikuspegi deskriptibo eta teoriko hau eman ondoren, lanaren analisi zatian, 3. atalean, *Norantz* corpusaren azterketa eskaini dugu. Hasteko, ikerketarako *Norantz datu basea* corpus gisa aukeratu izanaren zergatia azaldu dugu; honetaz gain, corpusaren nondik norakoak eta *Norantz*-eko ikerlariak lagina biltzeko erabilitako irizpideak ere azaldu ditugu. Jarraian, 4. Atalean, kasu azterketa eta azterketaren emaitzak bildu ditugu aurreko lanen, eta bereziki Rebuschiren (1995, 1997) eta Duguinen (2003) ondorio nagusiak kontuan hartuz. Honetaz gain, eranskin gisa, hiztunen emaitzak tauletan bildu ditugu, lan honetan interesaturik dauden ikerlariak datu nagusiak modu eroso batean eskuragarri izan ditzan.

## **2. LINSCHMANN-ARESTI LEGEA (LA-LEGEA): SISTEMA KLASIKOA ETA BILAKAERAREN HASIKINAK**

### **2.1. *Linschmann-Aresti legea. Sistema klasikoaren deskribapena***

Aztergai dugun fenomenoak, Linschmann-Aresti legearen bidez jaso izan dena (LA-legea), Sarasolak (1979) horrela deskribatu zuen lehen aldiz XVI. mendeko autoreen testuak aztertzean<sup>9</sup>.

#### **(5) *Linschmann-Aresti legea. Sarasolaren (1979) bertsioa***

“Lehen eta bigarren pertsonetako posesiboek bi era dituzte, *lehen era (ene...)* eta *bigarren era (neure...)* deituko ditugunak. Sintagmaren batean posesibo bat gertatzen bada, delako posesibo hori lehen eran agertuko da baldin gertatzen den sintagmari dagokion aditzan pertsona eta numero bereko formanterean bat NOR, NORK nahiz NORI motakoa, agertzen ez bada. Bestela posesiboak bigarren era hartuko du.

*Ene ardiék ene boza enzuten duté Lç Io, 10, 27.*

---

<sup>9</sup> Sarasolak fenomenoaz lehenengoz jabetu ziren bi ikerlarien izena eman zion legeari.

Perpausan, aditza (*dute*) NOR-NORK sailekoa da eta 3s3p formanteak ditu. NOR sintagman (*ene boza*) posesiboa IS da. Beraz lehen era hartzen du. Berdin gertatzen da ene ardiek NORK sintagman.” [Sarasola, 1979:433]

Sarasolak LA-legea hemen definitzen duen moduan, forma indartuen erabilerak baldintza guzti hauek izenordain genitiboa biltzen duen perpausan betetzea eskatzen du; hau da, izenordain genitiboa eta izenordain honen erreferentziakidea den NOR, NORI, edo NORK formantea perpauskide izan behar dira, perpaus berean agertu behar dira. LA-legearen bertsio honi jarraituz, izenordain genitiboa eta aditz jokatuan erreferentziakide duen formantea perpaus ezberdinetan agertzen badira, forma genitibo indartua (Sarasolaren hitzetan, *bigarren erako* izenordaina) ez zegoen baimenduta. Perpausen arteko mugak, beraz, forma indartuen erabilera eragozten zuen.

Sarasolaren atzetik fenomenoaz aztertu duten beste lan askok ere forma indartu eta ez indartuen arteko oposaketa antzeko terminoetan deskribatu dute.

Martínez Aretak (2015), adibidez, honela definitzen du LA-legea:

(6) ***Linschmann-Aresti legea. Martínez Aretaren (2015) bertsioa***

“Baldin eta genitibozko pertsona-izenordain jakin bat dagoen perpausan (nagusian edo mendekoan) pertsona horri (3. pertsonen kasuan, sintaktikoki zein semantikoki) dagokion marka (agerikoa edo ez-agerikoa, eta ez-alokutiboa) baldin badago, orduan genitibozko pertsona-izenordain horren forma indartua azaleratuko da; bestela, forma neutroa da azaleratuko dena.” [Martínez Aretak 2015: 460]

Mounole eta Gómezek (2018), adibidez, horrela definitzen dute euskararen testurik zaharretan (XVI-XVII. mendea) agertzen den izenordainen oposaketa klasiko hau:

(7) ***Linschmann-Aresti legea. Mounole eta Gómezek (2018) bertsioa***

“...genitibo bihurtaria erabiltzen da izenordain horrek aipatzen duen pertsona perpaus berean baldin badago, perpausko aditzaren argumentu gisa- NOR, NORI edo NORK argumentua bada, alegia-. Aldiz, izenordain arruntera jotzen da aipatzen den pertsonak perpausan ez badu argumentu erreferentziakiderik.” [op.cit :522]

Orain arte ikusi ditugun LA-legearen bertsioek jasotzen duten bezala, autore klasikoetan perpausen arteko mugak oraindik askotan zeharka ezineko mugak ziren. Sarasolak (1979) hau ondorioztatu zuen, eta ondorio berberera heldu zen Rebuschi (1995, 1997) Axularri buruz egindako ikerketan. Martínez Aretak (2015) ere Lazarragaren testuetan murriztapen berbera betetzen dela berretsi zuen:

- (8) cegati leucala esperança andia Jaun Cerucoagan, [[ece, [Aen; Mesedea servidu içaten liçalai,] Sirenac bisitadu balegui,] bertati osatua çala.] [ibid.: 469]
- (9) ençun euen [aen; alderuç cantaetaz etocela; guiçon baçu] [ibid.: 469]
- (10) ez eben gura [nic aren; causaz eguin neguian; negarric] [ibid.: 469]
- (11) çan lastima andia [[norc *bere* biocean eucan] tristezea ecusten] [ibid.:460]

Adibide hauetan (8-11) ikus daitekeen bezala, XVI. mendean oraindik perpaus jokatu bateko izenordain genitiboa indartua izan zitekeen soilik perpaus horretako aditz jokatuan izenordainarekin bat zetorren komunztadura marka ageri baldin bazen; bestela, forma arrunta erabili behar zen.

Martínez Aretaren esanetan, Lazarragak Iparraldeko autoreen joera bertsua erakusten zuen oposaketa honi zegokionez nahiz eta, berehala ikusiko dugun moduan, gerora Mendebaldean zabalduko zen joerarako zantzuak zeharka ageri ziren harengan ere: indartuaren aldeko joera.

## 2.2. LA-legearen bilakaeraren hasiera

Sarasolak (1979) legea deskribatzearekin batera Hegoaldeko eta Iparraldeko egoerak aztertu zituen. Egile honek, literatur tradizioko autoreengan izenordainen bi sistema hauen erabileran Iparraldeko eta Hegoaldeko autoreen artean alde handia zegoela ikusi zuen. Iparraldeko egileen azterketan sailkapen bat egin zuen erabili zuten euskalkiaren arabera. Lehenengo taldean Leizarraga (1575)<sup>10</sup>, Etxepare (1545) eta Tartasen (1666,1672) testuak aztertu zituen. Egile hauek Baxe-nafarreraz (BN) idatzi zuten. Bigarreanean, Axular (1643), Etxeberri Sarakoa (1712, 1718), Harizmendi (1660), Argaiñarats (1665), eta Povreau (1656, 1664, 1665), besteak beste. Autore hauek Lapurtera Klasikoa erabili zuten beraien lanean.

Sarasolak erakutsi zuen lehengo taldeko egileek, BNa erabili zutenak, LA-legea hertsiki mantentzen zutela.<sup>11</sup> Ordea, Lapurtera Klasikoa (LK) zerabilten egileen lanetan,

<sup>10</sup> Autore bakoitzaren atzetik ematen den urtea bere obra argitaratu zen urtekoa da.

<sup>11</sup> Hona hemen Leizarragaren adibide batzuk, Artiagoitia (2003:624-630) lanetik hartuak.

- (i) a. O emaztea<sub>i</sub>, handi dun<sub>i</sub> hire<sub>j</sub> fedea. (Leiz., Mt 15, 28)  
 b. Eure<sub>j</sub> Iainko Jauna; adoratuko duk<sub>j</sub>. (Leiz., Mt 4, 10)
- (ii) a. Ene<sub>i</sub> ardiek ene<sub>i</sub> boza entzuten dute<sub>j</sub>. (Leiz., Io 10, 27)  
 b. Ezagutzen ditut<sub>i</sub> neure<sub>j</sub> ardiak. (Leiz., Io 10, 14)

ezberdintasun interesgarriak aurkitu zituen. Alde batetik, Axularrek legea hertsiki mantentzen zuela erakutsi zuen. Honekin batera, Etxeberri Sarakoak ere, oro har, LA-legea betetzen zuela adierazi zuen nahiz eta azken honen lanean dagoeneko *gure* forma arrunta orokortzen hasia zen 1p pluralerako. Beste aldetik, Harizmendiren eta Argaiñaratsen testuetan salbuespen ugari topatu zituen, bereziki *geure* eta *zeure* forma indartuei zegokienean. Bi forma indartu hauek espero ziren testuinguruetan, maiz, *gure* eta *zure* forma arruntak erabiltzen zituzten autore klasiko hauek. Honela, 1p eta 2p izenordain pluralen kasuan, nahiz eta hauen perpauseko aditz jokatuan izenordain hauei erreferentzia egiten zieten formanteak agertu (eta, beraz, forma indartuak zilegiztatzen zituzten testuinguruak izan) idazle hauek forma arrunta erabiltzen zutela ikusi zuen. Harizmendi eta Argaiñaratsen atzetik zetorren Pouvreaux ere, bi hauen jokaera berdina (baina aurrekoek baino maizago) erakusten zuela ohartu zen Sarasola. Iparraldeko autoreetan aztertu zuen azkena Urte izan zen; honek, bi salbuespen alde batera utzita, forma arruntak testuinguru guztietara orokortuta zituen (Sarasola, 1979: 436-438).

Hortik aurrerako Iparraldeko idazleen testuetan (hau da, XVIII. mendetik aurrerakoetan), 1p eta 2p izenordainetan forma arrunt/indartuen bikoiztasun edo oposaketa hori forma arrunten mesedetan galdu zela ondorioztatu zuen Sarasolak:

“Badirudi Iparraldeko tradizioan forma bikoiztasuna galdu egiten dela, lehen erako formak bakarrik erabiltzen direlarik”. [Sarasola, 1979: 438].

Hegoaldekoek, aldiz, LA betetzen bazuten ere, Iparraldeko euskalkietan ez bezala LA-legea bi norabideetan hausten zuten. Forma indartua espero zen hainbatetan forma arrunta zerabilten eta alderantziz. Hala ere, Hegoaldean, Iparraldean ez bezala, forma indartuaren aldeko joera erakusten zen orokorrean.

Salbuespen hauek aipatzen baditu ere, Sarasolak ez zuen aldaketa honen zergatirik edo arrazoirik eman (Sarasola, 1979: 436-440). Halere, ikuspuntu diakronikotik Sarasolaren lana bereziki interesgarria da, argi uzten duelako XVII-XVIII mendeetan jadanik euskararen izenordain genitiboen sistema aldatzen hasia zela.

Martínez Aretak (2015), bere aldetik, Lazarragaren testua (1567) Iparraldeko autore klasikoekin erkatzen du, bereziki Axularren (1643) lanarekin, ondorio honetara helduz: Lazarragak orokorrean LA-legea betetzen duen arren, Iparraldeko XVI-XVII. mendeetako autoreetatik aldentzen duen bilakaera bat erakusten du bere testuan: beranduago Mendebaldean nagusituko den *bere* forma indartuaren aldeko joeraren

zantzuak erakusten ditu pertsona izenordain genitiboetan. Dagoeneko XVI. mende amaieran Mendebaldeko hizkeretan LA-legea aldatzen ari zelako seinale gisa hainbat aldaketa nabarmentzen ditu Martínez Aretak<sup>12</sup> (2015). Besteak beste, LA-legeak onartzen dituen baino erreferentziakidetasun erlazio gehiagok eragin dezaketela forma indartuen agerpena. Aipatzen dituen kasuak hauexek dira:

i. [A<sub>i</sub> eta *haren/bere*-<sub>i</sub> B] egituretan, A-osagaia eta izenordaina erreferentziakide direnean, izenordainaren forma indartua baimentzen da:

(12) Acabaturic leen esan dogun cantaetau, [Silvero<sub>i</sub> eta *bere*<sub>i</sub> lagunac] joan citecen; ciudadera. (AL: 1144v)<sup>13</sup>.

Horrela azaltzen du adibide hau Martínez Aretak: “*aren<sub>j</sub> lagunac* espero genuke perpaus nagusian, *citecen*-en argumentu bakarra ‘haiek<sub>j</sub>’ baita. *Silvero*, *bere*-ren erreferentziakidea, ‘haiek’ horretan sartuta dago, eta baliteke hori *bere* agertzeko faktore semantiko bat izatea”. (Martínez Aretak 2015: 462)

ii. Perpaus nagusiaren eta mendeko perpausaren arteko hesien mugen desagertzea. Perpausen arteko mugak ez du forma indartuen erabilera eragozten, (13) vs. (14):

(13) Iancoac *pro<sub>i</sub>-ABS* beguira çaitçala<sub>i</sub>, [vsantça gaixtoac, çure<sub>i</sub> baithan, ostatu hartcetic]. (Ax, Gero 65)

(14) Suplicaetan nachaçu, Sirena *ene* laztana, [*pro<sub>i</sub>-DAT* nai daquiçula<sub>i</sub> [gaur gabeen *ceure<sub>i</sub>* aposentuco bentanara joaten]]. (AL: 1140r).

(13) adibidearen kasuan, Sistema Klasikoan bezala, perpausen arteko hesiak gaindiezina den eremu bat sortzen du LA-legea aplikatzerako orduan eta, aurrekaria eta izenordaina bi perpaus ezberdinetan daudenez, izenordainaren forma arrunta erabili behar da. Hau da, izenordainak perpaus bereko aditz jokatuari erreparatu ziezaiokeen soilik forma indartua edo arrunta aukeratzeko orduan. Berriz, (14) adibidean ikusten dugunez, XVI. mendearen amaierarako Mendebaldeko Sistema Modernoan dagoeneko galtzen hasia zegoen perpausen arteko muga hori.

---

<sup>12</sup> Martínez Aretak perpaus jokatu zein ez jokatuak aztertu zituen bere lanean. Hemen lan honetarako interesgarriak diren ezaugarriak baino ez dira aipatuko bere lanetik.

<sup>13</sup> (12), (13) eta (14) adibideak Martínez Areta (2015:462-469) lanetik ateratakoak dira eta berak erabilitako laburdurekin emanda daude.

Mendebaldean XVI. menderako galtzen hasi bazen ere, perpausaren arteko mugak forma indartuen erabilera eragozten du Iparraldean; horrela, eremu honetan, 3p izenordainetan hertsiki mantendu zuten oposaketa XVII. mendera arte (Rebuschi, 1997).

Laburbilduz, Sarasolak (1979) bere azterketan XVI-XVII mendeetako testuetan orokorrean LA-legea Iparraldean Mendebaldean baino sendoago mantentzen zela erakutsi zuen nahiz eta dagoeneko bilakaera bat ematen ari zelako zantzuak topatu zituen. Bestaldetik, Martínez Aretak (2015) Lazarragaren testuaren azterketa egiterakoan, Mendebaldean aldaketak lehenago hasiak zirela erakutsi zuen eta dagoeneko XVI. menderako LA-legeari dagokionez Iparraldeak eta Mendebaldeak bide ezberdinak hartuak zituztela, jarraian aztertuko dugun Rebuschik (1997) bere aurretik esan bezala. Iparraldeko hizkerak luzaroago mantendu izan dute LA-legea (nahiz eta ez hertsiki) Mendebaldekoek baino.

### 2.3. XVI-XX mende bitarteko bilakaera: Rebuschi (1995, 1997)

Rebuschik (1995, 1997) LA-legea eta lege honek XVI-XX mende bitartean Iparraldeko hizkeretan izandako bilakaera aztertu zuen.<sup>14</sup> Aipatu ditugun beste egileen

---

<sup>14</sup> Rebuschik (1995) *Iparraldeko Euskara Modernoan* (IEM), 3p-ko izenordain genitiboak hiru multzotan sailkatzen ditu: a) forma *ahulak* ('weak') deitzen dituenak (*haren*<sub>3P.SG</sub> eta *heien*<sub>3P.PL</sub>); b) forma *enfatikoak* ('emphatic') (*beraren*<sub>3P.SG</sub> / *beraien*<sub>3P.PL</sub>), eta c) forma sendoak ('strong') *bere*<sub>3P.SG</sub> / *beren*<sub>3P.PL</sub>. (Rebuschi 1995: 316). Lan honetan XX mendearen bukaerako Iparraldean bi sistema ezberdin daitezkeela esaten du. Horiatariko bat, zati handi batean Baxenafarrekin bat datorrena, deskribatzen du esanez 3p izenordain genitiboaren sistema garaikide hau bat datorrela Lapurtera Klasikoan XVII mendearen erdian erabiltzen zen 1/2/3p izenordain genitiboaren sistemarekin (alde batera utzita lehen *bere* singularra zein plurala izan zitekeela).

Sistema garaikide honetan hiru izenordain genitibo mota hauek bi multzo nagusitan banatzen ditu, dituzten baldintza sintaktikoen arabera. Alde batetik, forma *ahulak* eta *enfatikoak* ditugu. Lan honetan aztertuko ez ditugun kasu konplexu batzuk alde batera utzita, lehen multzoaren (forma *ahulen* eta *enfatikoen*) baldintza sintaktikoa honela laburbil daitezke, sinplifikatuz: forma genitibo hauek eta beraiekin indizekidetuta dagoen sintagma ezin daitezke perpauskide izan. Bestaldetik forma sendoak ditugu. Forma sendoen baldintza sintaktikoak hauek dira: forma sendoa eta indizekidetuta dagoen sintagma perpauskide izan behar dira.

Lehen begiratuan forma *ahul/enfatikoen* vs. forma sendoen arteko banaketa Uztardura Teorian oinarrituz azaldu daitezkeela ematen du. Honen arabera, lehen multzoko forma genitiboek Uztaduraren B Printzipioa bete beharko lukete (eta, honen ondorioz, ezin izango lirakeke beraien perpausuan uztartuta egon); forma sendoek (edo bihurkariak), aldiz, A printzipioa bete beharko lukete (eta, beraz, beraien perpausuan uztartuta egon beharko lukete, (v-vii) adibideetan bezala.

- (i) *A Printzipioa* (Uztardura Teoria). Anaforek uztartuta egon behar dute bere uztadura eremuan [sinplifikatuz, lan honetarako, bere perpausuan].
- (ii) *B Printzipioa* (Uztardura Teoria). Izenordainek aske (hau da, uztartuta egon gabe) egon behar dute bere uztadura eremuan [sinplifikatuz, lan honetarako, bere perpausuan].
- (iii) *Uztartzea*: A-k B uztartzen du bakarrik A-k B o-komandatzen badu eta indizekideak badira.
- (iv) *O-komandoa* (definizioa): A-k B o-komandatzen du baldin:
  - i) bata bestea menderatzen ez badu, eta
  - ii) A menderatzen duen lehen adabegi adarreztatua B ere menderatzen badu

ildo beretik, Rebuschik (1995) ere azpimarratzen du *bere* forma baimentzeko izenordain genitibo honekin indizekideturik dagoen aitzindariak baldintza batzuk bete behar dituela:

“...However, it is not sufficient for an NP to be a semantic argument of the verb to license *bere* under coindexation: it has to be a syntactic argument of the head of the Complete Function Complex (CFC), as shown by the following contrast:

(8) a. Ni Joni<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> semeaz mintzatu natzaio

b. Ni Jonekin<sub>i</sub> haren<sub>i/j</sub> / \*bere<sub>i</sub> semeaz mintzatu naiz

In (a) the non-subject NP is a syntactic argument of *mintzatu* “speak”, as shown by its dative suffix and the cross-reference in the auxiliary; it can therefore serve as the antecedent for the strong genitive; on the other hand, in (b), it is case-marked by the comitative suffix *-ekin*, and it is not represented in the Finite Verb Form; as a consequence, it cannot function as an antecedent for *bere*”. [Rebuschi 1995: 319].

Bere proposamena honela laburbil daiteke: *berek* eta honen aitzindariak, (i) indizekideturik egon behar dute, (ii) perpauskide izan behar dute eta (iii) perpaus jokatu kasuan, sinplifikatuz, aitzindariak aditz jokatu isla izan behar du komunztaduraren bidez. *Haren/beraren* genitiboen kasuan, aldiz, betebeharreko baldintzak bestelakoak

(v) Haurrak<sub>i</sub> haren\*<sub>i/j</sub> / beraren\*<sub>i/j</sub> / bere<sub>i</sub>/\*<sub>j</sub> anaia jo du.

(vi) Jonek erran daut [ (zuk) haren<sub>i/j</sub> / beraren<sub>i/j</sub> / bere\*<sub>i/j</sub> anaia jo zinuela ]

Hala ere, Rebuschik argi erakusten du hipotesi hau ez dela nahikoa forma hauen oposaketa azaltzeko. Arazoa forma sendoen banaketa sintaktikoan dago. Uztartuta egoteak eskatuko luke forma sendoaren aitzindariak (berarekin indizekideturik dagoen sintagmak) forma genitibo sendoa o-komandatzea, baina hau ez da gertatzen: badira testuinguru sintaktikoak zeinetan aitzindariak ez duen forma sendoa o-komandatzen eta hala ere forma sendoa erabili behar den, hala nola (viib) adibidean.

(vii) a. Jonek erran daut [ bere\*<sub>i</sub> anaia eri dela ]

b. Jonek erran daut [ bere<sub>i</sub> anaia pro<sub>i</sub>-dat eritu zaiola ]

(viii) adibideak argi erakusten du perpaus nagusiko elementu batek (kasu honetan *Jonek* subjektuak) ezin duela menpeko perpausean izenordainaren forma sendoa zilegiztatu. (viib) adibidean, beraz, menpeko perpausean dagoen aitzindariak (pro<sub>i</sub>-dat sintagmak) baimendu behar du *bere* forma sendoa. Baina pro<sub>i</sub>-dat sintagmak ez du *bere* uztartzen (indizekideturik badaude ere, sintagma datibo honek ez duelako *bere* o-komandatzen).

Honetan oinarriturik, Rebuschik espresuki adierazten dut forma sendoen distribuzioa ezin daitekeela uztardura teoriar oinarrituz azaldu, eta errelebantea den erlazioa aitzindaria eta forma sendoaren artekoa indizekidetza dela: hau da, forma sendoa eta perpaus berean dagoen aitzindaria indizekide izan behar dute. (Gogoan izan, halere, aitzindariak *bere* bere uztardura eremuan (bere perpausean) uztartzen duenean automatikoki betetzen dela *bere* baimentzeko Rebuschik definitutako baldintzak, uztartuta egoteak indizekidetza erlazio bat eskatzen duelako).

Duguinek (2003) ere argi aipatzen du gaur egungo Hazparneko euskaran Uztardura Teoriaren B Printzipioa ez dela nahikoa forma indartuen banaketa azaltzeko, aitzindaria eta izenordain genitibo indartua ez direlako perpauskide izan behar (beraz izenordaina ez litzateke bere perpausean uztarturik egongo), eta honetaz gain badaudelako testuinguru sintaktikoak non aitzindariak izenordaina o-komandatzen ez badu ere, hiztunek izenordainaren forma indartua erabiltzen baitute.

Hau guztia dela eta, 3 atalean garatuko dugun azterketan ez dugu Uztardura Teoria jarraituko eta LA-legeak definitzen dituen baldintzak bakarrik hartuko ditugu kontuan.

dira: izenordain hauek eta beraiekin indizekideturik dagoen aitzindaria ezin daitezke perpauskide izan.

Rebuschik XX. mendeko Iparraldeko euskal izenordain genitiboak aztertu zituenean, 1p eta 2p izenordain genitiboen bi multzoen (forma ahulak/enfatikoak vs. forma sendoak) <sup>15</sup> arteko oposaketa desagertutzat jo eta oposaketa 3p izenordainek bakarrik mantentzen zutela erakutsi zuen. Rebuschiren esanetan, ordurako 3p izenordain forma bakoitzak, lehen multzokoak (forma ahulak/enfatikoak) eta bigarren multzokoak (forma sendoak), eboluzio oso baten ondorioz funtzio sintaktiko propioa hartua zuen; hori dela eta, forma bakoitzak esanahi (interpretatibo) propioa zuen ordurako; 1p eta 2p izenordainen lehen multzoko zein bigarren multzoko formek, ordea, esanahi berdina zeukaten (hau da, 1p eta 2p izenordainen kasuan, izenordain hauen forma bat zein bestea erabilita ere, aitzindaria ez zen aldatzen, 3p izenordainen kasuan ez bezala). Rebuschiren ustez, beraz, *nire* eta *neure* ez leudeke ordurako banaketa osagarrian, eta esanahi berdina erakusten zuten aztertutako lanetan XVIII. mendetik aurrera; aldiz, *haren/beraren* eta *bere* oraindik ere kontrajartzen ziren haien artean eta bakoitzak esanahi interpretatibo propioa zuen (aukeratutako formak baldintzatzen baitzuen zein zen izenordainaren aitzindaria, ondorio interpretatibo ezberdinak eraginez (Rebuschi, 1995: 347).

Horrez gain, Rebuschi bestelako ondorioetara ere heldu zen.

Batetik, *ene/neure* (eta dagokion 2p-ko bikotekideen arteko) oposaketaren desagertpena progresiboki eman zela erakutsi zuen Argaiñarats (1665) eta Gasteluzar (1686) garaikideen testuak aztertuz eta joera forma arruntaren alde egitea zela ondorioztatu zuen (op.cit. 1995: 332-4).

Gainera, XVII. mendean, Lapurtera Klasikoko autoreekin ikusi ahal izan zuen bezala, *bere* sg. eta pl.erako erabiltzetik *bere* sg.erako eta *beren* pl.erako erabiltzera pasa zirela ohartu zen.

Aipatutakoaz gain, Rebuschi (1995, 1997) Lapurdiko idazleengan fenomeno hainbat aldaketa pairatzen ari zela jabetu zen, Haranederretik (XVII. mendean) hasita eta jarraian etorri ziren idazleekin joera indartu zelarik. Aldaketa guztien artean, LA-legea bortxatzen duten hurrengo bi testuingurutan jarri zuen arreta Rebuschik:

---

<sup>15</sup> Ik. 13. orrialdean 14. oinoharra.



i. Lehen testuinguruan, forma indartua (*bere*) perpaus jokatu batean delarik, XVII. mendetik aurrera aitzindaria gorago dagoen perpaus batean egotea onartzen dute egile batzuek.

(15) *pro*<sub>i</sub> ez zuen utzi [PRO<sub>j</sub> BERE<sub>i</sub>kien sartzetat] nihor<sub>j</sub>. [Haraneder 1742, Lc 8:51, apud Rebuschi (1995:349)]

ii. Bigarren testuingurua ‘X eta *haren* Y’ egiturei dagokie: ‘X eta *haren* Y’ egiturak bakarrik onartzetik ‘X eta *bere* Y’ egiturak onartzera igaro ziren. XVII. mendean hasi zen aldaketa hau indartuz joan zen ondoren etorri ziren idazle lapurtarren lanetan. Horrela, XX. mendeko diren Narbaitz eta Ezkila egileen lanetan *bere* mendeko perpaus jokatu batean doanean ere, perpaus nagusiko aitzindari batek baimend~~u~~ dezake. Adibidez:

(16) Urte hortan ... *pro*<sub>i</sub> egin zuen bere testamenta Iruñen, [PRO<sub>i</sub> garbiki finkatuz [nori joanen ziren BERE<sub>i</sub> eta senar zenaren ontasunak]]. [Narbaitz 1966:39, apud Rebuschi (1995:350)].

Bigarren multzoko formek (*bere*) lehen multzoko formen (*haren/beraren*) lekua hartzea onartzen badute ere, lehen multzokoak (*haren*) baliagarria izaten jarraitzen du ‘X eta *haren/bere* Y’ egituretan.

Gauzak horrela, LA-legea bezala ezagutzen dugun oposaketa erregularra duen araua aldatzen hasia dela ondorioztatzen du Rebuschik. Hizkuntzalari honen aburuz, fenomeno sintaktikoa izatetik diskurtso mailako fenomeno izatera pasa da. Bere hipotesi hau indartzeko, Haranederren testua darabil, besteak beste. Rebuschik dio Haranederrek *bere* diskurtsoko gai nagusia den zerbait edo norbait adierazteko (erreferentzia egiteko) darabilela, eta *haren* berriz, bigarren mailako gaiei erreferentzia egiteko. Hau da, izenordainaren aitzindaria diskurtsoaren mintzagai nagusia (“main discourse topic”) denean *bere* baliatzen du; *haren*, ordea, izenaren erreferentziakidea bigarren mailako mintzagaia denean (‘local topic’).

(17) *pro*<sub>i</sub> *pro*<sub>j</sub> otoiztu zuen [ PRO<sub>j</sub> etortzeaz HAREN<sub>i</sub> etxerat ]. [Haraneder 1742, Lc 8:41 apud Rebuschi (1995:349)]

Hortik aurrera (eta hau batez ere XX. mendeko idazleengan), baldintza sintaktikoak desagertzen hasirik, *bere*-ren erabilera-esparrua zabaltzea posible egiten da Rebuschiren ustez, eta *bere* bigarren mailako gaiei erreferentzia egiteko ere erabili daiteke, besteak beste, Narbaitz Baxe Nafarraren testuetan ikusi zuen bezala. Horrela definitzen du Rebuschik gertatutako aldaketa:

“Moreover, once the purely syntactic constraints are overridden, i.e. once extra-sentential factors begin to play a role, the door is open to more and more such subjective uses of the strong form – hence the fact that in the embedded clause contexts, some later authors use *bere* in sentences where Haraneder had *haren*: LOCAL TOPICS or (minor) centres of interest thus seem to have become able to license *bere* extra-locally, as Narbaitz’s text above, clearly illustrates. [...]” [Rebuschi 1995: 352]

Beraz, laburbiltzeko, Rebuschiren (1995) arabera 1p eta 2p izendordainen kasuan forma indartu eta arrunten arteko oposaketa XVII. mendean desagertu zen, nahiz eta 3p izenordainetan mantendu. Azken hauen kasuan, halere, XVIII. menderako dagoeneko Iparraldeko hizkeretan LA-legeak deskribatzen duen oposaketan 3p-an aldaketa sakonak ematen hasiak ziren perpaus konplexuetan izenordainaren aitzindaria testu mailan mintzagaia denean, ‘X eta *bere/haren* Y’ egituretan edota aditz jokatu gabeko perpausetan besteak beste.

Gauzak horrela, ez da arraroa gaur egun aldaketa sakonago edo hedatuagoak egon daitezkeela pentsatzea. Horretara dator Duguinek (2003) egindako kasu azterketa.

#### ***2.4. Fenomenoaren egoera XX-XXI mendeen mugan Hazparneko euskaran: Duguine (2003)***

Duguinek (2003) Hazparneko hizkeran *haren/bere* oposaketa aztertu zuen aditz jokatudun perpausetan. Familia bereko hiru belaunaldiko (H1, H2 eta H3<sup>16</sup>) hiztunen ekoizpenak lagin gisa hartuta beraien arteko (ez)berdintasunak aztertu eta deskribatu zituen. Aztertzen ari garen izenordain genitiboen arteko oposaketa [+/-bihurkari] oposaketaren bidez definitzen du Duguinek eta haien banaketa Uztardura Teoriaren A Printzipioa vs. B Printzipioaren oposaketaren bidez ematen saiatzen da baina, Rebuschiren (1995) ildo beretik, aztertutako kasuetan oposaketa hau uztardura teoriaren bidez ezin dela azaldu ondorioztatzen du.<sup>17</sup>

---

<sup>16</sup> H1:79 urte; H2: 52 urte; H3: 19 urte.

<sup>17</sup> Duguinek ea forma bihurkariak Uztardura Teoriaren B Printzipioaren arabera azaltzea posiblea den aztertzen du. Rebuschik (1995) bere aurretik bezala, hipotesi hau baztertu behar dela ondorioztatzen du, elkarrizketatu zituen hiztunek ez zituztelako B Printzipioak ezartzen dituen baldintza sintaktikoak betetzen hainbat kasutan — hala nola aitzindariak izenordaina o-komandatzen ez duenean (adibidez, aitzindaria Posposizio Sintagma batean txertaturik dagoelako), edo aitzindaria eta dagokion komunztadura marka perpaus batean daudenean eta izenordain beste perpaus batean —hau da, uztardura eremuaren baldintza (aitzindaria eta izenordaina perpauskide izatea) betezen ez denean.

Hala ere, ondoko ondorio hauek eskaini zituen Rebuschi (1986) laburbilduz:

- Izenordain posesiboa bere Gobernu Kategorian (GK) uztartua delarik *bere* forma hartuko du.
- Izenordain posesiboa GKn uztartua ez delarik, baina testuinguruan adierazia denaren mintzagaia. delarik, *haren* edo *bere* forma hartzen ahalko du.

Burututako analisi honetan, H3-k izenordainen bereizketan oinarrizko irizpide den [+/-bihurkari] (hau da, indartu vs. arrunt) oposaketa<sup>18</sup> galdua bide zuela ikusi zuen (ik. zehaztasunak beherago), eta honengatik azterketa orokorretik atera eta hiztun honen hizkeraren ezaugarriak bere aldetik aztertu zituen.

Beste bi hiztunen kasuan aurkitu zituen ezaugarriak honela deskribatu zituen Duguinek, uztarduraren teorian oinarrituz:

**i.** Lehen eta bigarren belaunaldien artean ezberdintasunak aurkitu zituen aitzindaria eta izenordainaren arteko zilegi ziren erlazioetan. Hortaz, aitzindaria eta izenordainaren arteko o-komando erlazioaren ikuspuntutik, Duguinek hainbat kasu aztertu zituen non aitzindariak ez zuen izenordain genitiboa o-komandatu, eta honen ondorioz izenordaina uztartu gabe gelditzen zen —hala nola aitzindaria DS baten barruan dagoen POSTS bat denean eta posizio horretatik ezin duenean izenordain genitiboa o-komandatu; (18-20) esaldietan Duguinek jasotako honelako adibide batzuk bildu ditugu. Egoera honetan jarrera ezberdina hauteman zuen H1 eta H2ren artean: H1-ek LA-legeari jarraitzen dio eta forma ez bihurkaria erabili behar du (*haren*) (irakurlea ohar bedi LA-legearen deskribapen tradizionalari jarraituz, kasu guzti hauetan aitzindariak ez duela dagokion komuntadura markarik aditz jokatuan, beraz ez dira LA-legearen baldintzak betetzen eta forma ez indartua erabili behar da). H2-k, ordea, forma indartua/bihurkaria darabil esaldi hauetan (*bere*).

(18) [Peioren<sub>i</sub> arrebak] POS<sub>i</sub> laguna ikusi du<sup>19</sup>.

(19) [Peioren<sub>i</sub> arrebari] POS<sub>i</sub> lagunak etorri zaizkio.

(20) [Peioren<sub>i</sub> arreba] POS<sub>i</sub> lagunengana joan da.

**ii.** Aitzindaria eta izenordainaren arteko hurbiltasuna. Goian aipatu bezala, LA-legeak deskribatzen duen sisteman aitzindariak eta izenordainak perpauskide izan behar dute

---

- Izenordain posesiboa GK<sub>n</sub> uztartua ez delarik eta testu-mintzagaiari ez diolarik erreferentziarik egiten, *haren* forma hartuko du.

Rebuschik (1995) eta Duguinek (2003) fenomenoaren analisi bat uztardura teorian oinarritua eskaintzea ezinezkoa denez ondorioztatzen dutenez, nik ere ez dut uztardura teoria kontuan hartuko *Norantz* –eko datuak azaltzeko orduan, eta LA-lege klasikoari jarraituko diot datuen analisisan.

<sup>18</sup> Lanaren hasieran aipatu dugun bezala, aztertzen ari garen izenordain genitiboen oposaketako formei lan honetako pasarte askotan *forma indartu* eta *arrunt* terminologiaren bidez erreferentzia egiten badiegu ere Duguinek *bihurkari* (indartu) eta *ez-bihurkari* (arrunt) terminoak darabiltza.

<sup>19</sup> Adibide hauek eta atal honetan emango diren adibide guztiak Duguinen (2003: 39-50) lanetik ateratakoak dira.

—Uztardura Teoriaren ikuspuntutik, izenordain bihurkaria bere uztardura eremuan/gobernu kategorian uztartua egon beharko litzatekeela esango genuke, indarrean dagoen uztardura eremua perpaus jokatua delarik—. Aztertzen zebilen Hazparneko sisteman ere aldaketa bat gertatzen ari zela ohartu zen Duguine: H1-ek eta H2-k bereizketa bat egiten zuten perpaus bakunak eta perpaus konplexuen artean orain azalduko dugun moduan.

Perpaus bakunetan bi hiztunek forma bihurkaria/indartua erabiltzen dute LA-legearen arabera: hau da, a) izenordaina eta aitzindaria perpauskide direnean eta b) aditz laguntzailean izenordainarekin indizekideturik dagoen komunztadura marka bat dagoenean. Baldintza hauek betetzen ez direnean, forma arrunta erabiltzen dute. (Uztarduraren Teoriaren ikuspuntutik deskribatuko bagenu, izenordaina bere perpausaren uztartuta dagoenean, forma bihurkaria/indartua erabiltzen da, eta forma arrunta, berriz, izenordaina aske dagoenean).

(21) Kaietek<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> / haren<sub>j</sub> etxeko gakoak galdu ditu.

Aldiz, perpaus konplexuetan, H1-ek perpausen arteko mugak hautsi egiten ditu, (22) adibidean erakusten den bezala. Hemen izenordainaren aitzindaria perpaus nagusian dago eta izenordain genitiboa, aldiz, mendeko perpausaren; hala ere, forma indartua erabiltzen du hiztun honek. Kasu hau uztarduraren ikuspuntutik aztertuko bagenu, perpaus nagusiko aitzindariak izenordain genitiboa bere uztardura eremuan balitz bezala uztar dezakeela ondorioztatu beharko genuke. Baina hau horrela balitz, orduan onartu beharko genuke uztardura eremuan (hau da, izenordainaren gobernu kategorian) aldaketa bat egon dela, uztardura eremu hau izenordainaren perpausetik (hau da, mendeko perpausetik) perpaus nagusira hedatu delako, eta hau ez dator bat Uztardura Teoriaren A eta B Printzipioek uztardura eremuaz esaten dutenarekin.

(22) a. [PERPAUSA1 AITZINDARIA<sub>i</sub> [PERPAUSA2 BERE<sub>i</sub> ] ].

b. Kaietek Mireni<sub>i</sub> [bere<sub>i</sub> anaia etorri dela] erran dio.

Hala ere, badirudi hiztun honek ez duela joera hori guztiz orokortuta, antzeko beste zenbait egituratan bi formak erabiltzen dituelako, (23-24) adibideetan ikus daitekeen bezala. Duguinen aburuz, kasu hauetan testuinguru sintaktikoaren nolakotasunak aztertzea garrantzitsua da. Hortaz, badirudi menpeko perpausaren dagoen izenordain genitiboaren aitzindaria perpaus nagusian dagoen Datibo kasudun DS bat denean

errazago baimentzen dela izenordain bihurkaria/indartua, aitzindaria perpaus nagusiko DS ergatibo bat denean baino. Aitzindaria perpaus nagusiko DS ergatiboa denean (*Kaietek*), H1-ek forma ez-bihurkaria erabiltzen du (23), eta perpaus nagusiko aitzindaria datiboa denean, aldiz, forma bihurkarira jotzen du (24):

(23) Kaietek<sub>i</sub> Mireni<sub>j</sub> [haren<sub>i</sub> anaia etorri dela] erran dio.

(24) Kaietek<sub>j</sub> Mireni<sub>i</sub> [bere<sub>i</sub> anaia etorri dela] erran dio.

H1-en eta H2-ren ekoizpenak erkatzen dituenean, Duguinek kontraste bat aurkitzen du bi hiztun hauen artean. H2-ren kasuan badirudi mendeko perpausaren mugak dagoeneko ez duela izenordain genitibo mota bat ala bestea aukeratzea eragiten. Izan ere, aitzindaria DS datibo zein ergatiboa denean aitzindari hau bere perpausetik kanpo (Uztarduraren Teoriaren ikuspuntutik, bere uztardura eremutik) egotea onartzen baitu hiztun honek, (25) eta (26) adibideetan ikus daitekeen bezala. Aitzindaria perpaus nagusian dagoenean H2-k *bere* forma bihurkaria/indartua darabil bi kasu hauetan, eta *ez haren* forma ez-indartua:

(25) Pantxikak<sub>i</sub> Ximuni<sub>j</sub> [bere<sub>i/j</sub> gurasoak kexu direla] aitortu dio.

(26) Pantxikak<sub>i</sub> Ximuni<sub>j</sub> [haren<sub>\*i/\*j</sub> gurasoak kexu direla] aitortu dio.

Hortaz, bi hiztunek (H1-k partzialki, baina H2-k era sakonagoan) forma indartuaren erabilera zabaltzea ahalbidetzen duen sistema bat dutela dirudi (op. cit. 2003:40).

**iii.** Duguinek izenordainaren aitzindaria aditzaren argumentu izan behar ote zen aztertu zuen. Perpaus bakunetan H1-ek zein H2-k erabilera erregularra dutela ikusi zuen: aitzindaria edozein delarik ere, forma indartua erabiliko dute beti. Beraz, izenordainaren aitzindaria aditzaren argumentua izan zein ez, bi hiztunek izenordain bihurkaria/indartua (*bere/beren*) erabiltzen dute.

(27) Bere<sub>i</sub> aita [Peiorekini<sub>i</sub>] mintzatu da.

(28) Beren<sub>i</sub> ama [Ana eta Margaritaz]<sub>i</sub> mintzatu da.

**iv.** Goiko bi adibide hauek erakusten dute dagoeneko aditzean komunztadura markarik eragiten ez duten osagaiak ere izenordain indartuaren aitzindari posible bihurtu direla. Bestela esanda, bi hiztun hauen gramatiketan komunztadura markarik eragiten ez duten

perpau mailako osagaiak diren aitzindariak ere izenordainaren forma indartua baimendu dezakete.<sup>20</sup>

(29) *Bere* pettentak erori dira / zaizkio.

(30) *Beren* alaba etxetik joan da /du.

v. [X<sub>i</sub> eta POS<sub>i</sub> Y] egituretan H1-ek eta H2-k *bere* orokortuta dutela aipatzen digu Duguinek.

Belaunaldi gazteenari dagokionez (H3), hiztun honek LA-legea galduta izan dezakeela diosku Duguinek, *bere* singularrerako eta *haien* pluralerako bereizketa bakarrik egiten baitu. Hipotesi gisa, frantsesaren eragina bilakabide honen eragile izan daitekeela planteatzen du —izan ere, frantseseko 3p izenordainek oposaketa hori mantentzen dute (*son/leur*). Hala ere, zalantzak ageri ditu horren inguruan.

Laburbilduz, Duguinek gure lan honetarako oso interesgarriak diren emaitzak eskaintzen dizkigu, ikuspuntu deskriptibo zein teorikotik. Hazparneko hizkeran oinarrituz, Duguinek argi erakusten digu azken hamarkadetan LA-legeak aldaketa handiak jaso dituela 3p izenordain genitiboekin ere eta forma indartu eta ez indartuen arteko oposaketa belaunaldiz belaunaldi lausotuz joan dela, ikertutako azken belaunaldiaren hiztunaren gramatikan itxuraz guztiz desagertu arte. Are gehiago, Rebuschirekin bat eginez, forma indartu eta ez indartuen arteko oposaketa ezin daiteke (Hazparneko euskara garaikidean behintzat) Uztardura Teoriaren bidez azaldu, eta aztergai dugun oposaketa gaur egun oinarri sintaktikorik ez duen fenomeno izan litekeela dio (zehazkiago, prozesua sintaktikoa ez izateko aukera dagoela planteatzen du). Haren aburuz, H1-ek eta H2-k beraien gramatikan izenordain genitibo formen arteko oposaketa elkarrekiko aurkaritza batekin loturik daukate. Hau da, H1 eta H2-ren euskaran izenordainen arteko oposaketa bat mantentzen bada ere, argi dago ez dela aitzina zegoen aurkaritza bera: *bere* eta *haren* ezberdintzen dira baina aurkaritza hori semantikoa da:

“Bereizketa ez da sintaktikoa, eremu nozioak ezin baitu azalpenik eman. *Bere*-ren erabilera hedatua da, uztardura teoriaren ezaugarriek ematen dituzten posibilitateak baino haratago. *Haren* erabiltzen da, *bere*-rekiko aurkaritzan: Izenordainak **semantikoki** ukan ditzakeen aitzindari posibleetan ‘urrunena’ edo ‘urrunetarik bat’ adierazten duela erakusten du. H1 eta H2-k ‘urruntasun’ hau ezberdinki definituta dute. Bigarrenak esaldiaz kanpoko eremuan kokatzen du. [...] Lehenak esaldian erreferentzikide posibleen arteko hierarkia bat osatzen du[.]” [Duguine, 2003:48]

---

<sup>20</sup> Duguinek ohartarazi egiten digu bere ikerketaren barruan egin zuen galdeketa iv. irizpidea ez duela oso irizpide adierazgarritzat jo, bere iritziz, erabilitako esperimentu baldintzak ez zirelako oso “naturalak” izan.

Gainera, H3-k duen joera frantsesez agertzen den joeraren antzekoa dela dio eta balitekeela diglosi egoerak bultzatuta sg eta pl bereizketa egiteko joera izatea.

Gauzak horrela, hedaduran eta metodologian Sarasola (1989), Martínez Areta (2015), Rebuschi (1995) eta Duguinen (2003) lanak ezberdinak badira ere, guztiak oso garrantzitsuak dira fenomenoaren eboluzioaren berri ematen digutelako. Rebuschik eta Duguinek Iparraldeko hizkeretan 3p izenordainei buruz egindako lanak ez du jarraipenik izan eta, horren ondorioz, hutsune bat dago gaur egungo euskal hizkuntzalaritzan honen inguruko ikerkuntzan.

Argi dago, beraz, beharrezkoa dela Iparraldeko gaur egungo euskararen ikuspegi zabala eskain diezagukeen azterketa bat egitea. Horrek lan handia eta denbora luzea eskatuko lituzke, egin beharreko elkarrizketak egiteko eta emaitzak biltzeko. Zorionez, neurri handi batean alde hori eginda dago, *Norantz* proiektuari esker. Izan ere, proiektu honek bilakaera hori azken hiru belaunaldietan aztertze aukera ematen baitigu. Proiektu honen bidez bilduriko emaitzen azterketa da ondorengo atalaren helburua.

### **3. KASU AZTERKETA**

Behin LA-legearen ezaugarriak eta eboluzioa azalduta, kasu azterketari ekingo diot. Horretarako, gorago esan bezala, *Norantz*-ek ematen dituen datuak lagintzat hartu eta ikertu nahi den ikergairako interesgarriak diren esaldi guztiak (C44-C54) aztertu ditut, aurreko egileek deskribatutako aldaketak eta joerak kontuan hartuz.

#### **3.1. *Norantz datu basea***

Sarreran esan bezala, lan honetarako *Norantz datu basea*<sup>21</sup> erabili da corpus gisa. Datu base hau CNRS-eko Baionako IKER laborategian 2009-2011 bitartean gauzatu zuten datu bilketa handi baten emaitza da. Datu basearen helburua, Iparraldeko egungo euskal hiztun arrunten gramatika jokabide nagusiak euskaltzale eta ikerlariei eskaintzea zen, bertako euskararen irudi orokor bat izateko aukera izan zezaten.

---

<sup>21</sup>*Norantz datu basea*-aren nondik norakoen azalpena oso zabala da. Lan honetan ditugun espazio mugak kontuan harturik, corpora ulertzeko beharrezko diren irizpideak bakarrik azaldu ditugu. Irakurleak gehiago sakondu nahi izatekotan, jo beza Oyharçabal et al. (2012) lanera.

Datu base hau, ahozko eta idatzizko corpora dena, galdetegi baten bitartez lortu zuten. Horretarako, 59 hiztun galdekatu zituzten. Hiztunak alde zuzenetik finkatutako parametro batzuen arabera aukeratu ziren; hala nola, bizilekua, adina eta euskarazko eskolaratzea (Iparraldeko eskola ingurumenean, gazteen taldean bakarrik balia zitekeena). Bildutako emaitzak irizpide hauen arabera sailkatzeko eta aztertzeko aukera dago, beraz. (Oyharçabal et al., 2012).

Inkesta honen bidez lortutako datu guztiak eta lagina aukeratzeko orduan kontuan hartutako irizpideak sarean eskuragarri daude ([www.norantz.org](http://www.norantz.org)). Helbide honetan, erabilitako galderen zerrendaz gain eta lortutako emaitza guztien grabazioez gain, dagozkien idatzizko transkribapenak ere aurki daitezke. Honekin batera, artikulatu batean egindako lanaren nondik norako zehatzak ematen dizkigute egileek. Iparraldeko hizkerei buruzko ikerketa honetan erabiliko diren datu guztiak bertatik ateratakoak dira.

### **3.1.1. Galdetegia eta erabilitako metodologia**

Ikertzaileek, elizitazio molde berberak erabili zituzten hiztun guztiekin. Honek, hiztunen gramatika ezagutza eta hiztunen emaitzen arteko (des)berdintasunak modu sistematiko eta homogeneo batean neurtzea eta konparatzea ahalbidetzen du. Xede honekin, kasu guztietan galdera berberak egin zitzaizkien hiztun guztiei.<sup>22</sup> Galderak ahoz egin ziren, esaldiak frantsesetik banaka itzultzeko eskatu zitzaizen hiztunei eta erantzunak audioan grabatu ziren:

“Galdetegiak gramatikako atal handienak estaltzen dituzten perpausak biltzen ditu, eta galdera bakoitzak datu zehatz bat bilatzen du. Datuak lortzeko bide nagusi gisa itzulpena baliatu da, hots, perpausak euskarara itzul zitzaizen eskatu zaie hiztunei.” [Oyharçabal et al., 2012:7]

Galdekatutako euskaldun guztiak ez zeuden euskaraz osoki alfabetatuta eta gehienak sekula ez ziren itzulpenen zereginetan ibiliak izan. Hori dela eta, inkestabide mota honek izan ditzakeen mugak kontuan hartu behar dira datuak aztertzeko orduan.

Galdetegi honek orotara, 746 galdera ditu: 568 galdera morfosintaxiari dagozkio eta 178 fonologiari. Hala ere, galdera horietatik guztietatik lan honetan 11 baino ez dira guk hemen aztertuko ditugunak, datu basean C44tik C54ra doazen esaldiak, hain zuzen ere,

---

<sup>22</sup>Ikerketaren grabazioak egiteko erabilitako lekuak IKERen egoitza, lekukoaren etxea edo lantegiak izan ziren. Gainera, Microtrak II grabagailu digitala eta AKG B29L mikrofonoa erabili ziren.



joskeraren atalean genitibozko izenordainei dagozkienak, horiek baitira lan honetarako interesatzen zaigun fenomenoak biltzen dutenak.


### 3.1.2. Hitzunak

Aurrez esan bezala, corpus hau sortzeko 59 hitzun aukeratu ziren. Aukeraketarako erabili ziren irizpideen arabera (euskarak eskolatzean izandako tokia, adina eta bizilekua), hitzun hauek 10 azpimultzotan banatu zituzten ikertzaileek. Hautaketa hau egiteko arrazoiaren artean bada bat lan honetan aurkituko ditugun aldaera eta kontraesanak aztertzerakoan kontuan hartzeko beharrezkoa dena:

“*Norantz*-en, garrantzizkoa da gogoan izatea ez direla hitzun ‘idealak’ bereziki bilatu, baizik eta, irizpide soziologikoei jarraikiz, hitzun arruntak, hots, euskaraz komunikatzeko oinarritzko gaitasuna dutenak.” [Oyharçabal et al. 2012: 5].

Gauzak horrela, ezaugarri ezberdineko hitzunak izateak, hauek hizkuntza gaitasunaren aldetik ere profil soziolinguistiko ezberdina izatea ekarri zuen, proiektuaren xede nagusietako bat bermatuz. Ondorengo taulan<sup>23</sup> ikertzaileek elkarriketatu zituzten hitzunen profil soziolinguistiko guztiak bildu zituzten.<sup>24</sup>

Hitzun tipoak				
adina	hirialdea		hirixkak eta baserrialdea	
	+ murgiltze	- murgiltze	+ murgiltze	- murgiltze
+ 70	—	8	—	7
40-60	—	5	—	7
-35	8	2 <sup>5</sup>	11	11



1.Taula: Hitzun tipologia.

Mapa 1. Inkesta guneak [Oyharçabal et al. 2012: 6]

Irizpideak ezartzerako orduan ez zuten euskalkien bereizketa kontuan hartu. Izan ere, aukeratutako hitzun guztiek ez baitzuten euskalki konkretu bat. Hitzunetarikoz batzuek ikastolan ikasi zuten euskara; beste batzuek, aldiz, helduaroan barnetegi edo

<sup>23</sup>Taula hau hemendik atera da: “Beñat Oyharçabal, Irantzu Epelde, Jasone Salaberria-Fuldain. “*Norantz*” datu-basea: *Aurkezpena eta aditz komunztadurako datuak*. 2012”. <artxibo-00685841>

<sup>24</sup>Hitzunen gramatika ager daitezkeen bilakaera edo fenomenoak azaltzeko orduan hainbat ezaugarri soziolinguistiko har daitezke kontuan. Kasu honetan, kontuan hartu diren aldagarrik garrantzitsuenak honako hauek ziren: bizitokiaren ingurunea (hiri ingurua edo baserrialdea) eta euskarak eskolatzean izandako eragina (hau da, Hegoaldean D eredu gisa ezagutzen dugun murgiltze sistema batean ikasiak ala ez) (Oyharçabal et al, 2012:5).

euskaltegietan (i. 1.eransk.). Hala ere, haiek egindako mapan<sup>25</sup> ikus daitekeen bezala, inkesta guneak anitzak izan ziren eta hori dela eta, Iparraldeko euskalki nagusi guztietako hiztunak hartu ziren kontuan: Z, BN eta L euskalkiak<sup>26</sup>.

Euskalkiak irizpide bezala ez izate horrek zail egiten du euskalkiz euskalki ondorio zehatz batzuk ateratzea. Guztira, laginetik 22 hiztunek BN-az hitz egiten dute, 12k L-az eta 9k Z-az; guztira, beraz, 43 hiztun. Beste guztiek (16 hiztunek) ez dute euskalkirik edo euskalki nahasia daukate (ik. 1.eransk.). Hiztun bakoitzaren euskalkia datu basearen egileek zehaztu zuten eta haiek emandako datuen arabera bereizi dira lan honetan.

Hiztunen metadatuak fitxa batean bildu zituzten *Norantz*-en, besteak beste, ama hizkuntzari, eskolatzeari eta hizkuntza gaitasunari buruzko datuekin. Datu basetik ateratako hiztun guztien datuak taula batean bildu ditut 2. Eranskinean.

*Norantz* datu basearen ezaugarri hauek guztiak kontuan izanda, Iparraldeko gaur egungo euskararen izenordain indartuen vs. ez indartuen arteko oposaketa izandako bilakabidea aztertuko dut ondoko galdera nagusiei erantzun bat emateko asmoz:

a. *Laginean aztertzen diren egitura sintaktikoak kontuan hartuz, zeintzuk dira dauden aldaketa nagusiak LA-legean?*

b. *Lagineko hiztunen artean (des)berdintasunak al daude LA-legeak jasan duen bilakaeran aldagai soziolinguistikoaren arabera? Hiru belaunaldiak berdin portatzen dira? Euskalkiak eragina al du? Zeintzuk dira eragina izan dezaketen faktoreak?*

Horretarako *Norantz*-en parte hartu zuten 59 hiztunak hartuko dira kontuan eta bakoitzak galdetegiko C44-C54 bitarteko ataletako 11 esaldiak banan-banan aztertuko dira emaitza nagusiak taula batzuen bitartez adieraziz eta testuan bertan txertaturik edota eranskin gisa atxikirik. Amaieran, ondorioak emango ditut.

Emaitzak aztertzeko orduan, garrantzitsua da kontuan hartzea elizitazioaren ezaugarriak (frantsesezko esaldiak euskaratzea eskatu zitzaizela, hain zuzen ere), laginaren tamaina txikia dela eta oso hiztun mota heterogeneoa dela eta, beraz, hiztun bakoitzaren

---

<sup>25</sup>Mapa hau “Beñat Oyharçabal, Irantzu Epelde, Jasone Salaberria-Fuldain (2012) *Norantz datu-basea: Aurkezpena eta aditz komunztadurako datuak izeneko lanaren* . 2012 (6.orr)”-tik atera da.

<sup>26</sup> Euskalkiak izendatzeko orduan, *Norantz*-eko egileek erabilitako terminologia bera erabili dut.

egoera soziologiko eta soziolinguistikoaren artean aldakortasun handia dagoela agerikoa dela (ik. 1 Eranskina). Arrazoi hauengatik ondorio guztiak tentuz hartu beharko badira ere, ikusiko dugunez aztertutako datuek LA-legeak jasandako bilakaera nagusiak argi islatzen dute.

### 3.1.3. Corpusa

*Norantz*-eko galdetegiak LA-legea aditz jokatudun perpausetan bakarrik aztertzeraz mugatzen gaitu eta, beraz, ezin izango da aditz jokatu gabeko perpausetan hiztunen jokaera aztertu. Ondoko azpiataletan aztertuko ditugun perpausen deskribapen sintaktikoa aurkeztuko dugu.

#### 3.1.3.1. *Norantz*-ek aztertutako testuinguru morfosintaktikoak

Hauek dira aztertuko ditugun esaldien bidez lan honetan landuko ditugun testuinguru sintaktikoak, *Norantz*-en ematen diren moduan antolatuak eta laburtuak. *Norantz*-eko C44-C54 perpausak ondoko 3 azpisailetan sailkatuta daude (I-III). Hurrengo orrialdeetan multzo bakoitzaren ezaugarri orokorrak aipatzeaz gain, esaldi bakoitzaren aztertuko ditugu, LA-legearen arabera euskaratu den esaldian forma indartua ala ez indartua espero den erabakitzeke.

- I) **Joskera > izord > gen. > 3p >- Aitzink<sup>27</sup>**: Azpiatal honetan C44tik- C47ra doazen esaldiak sailkatzen dira. *Norantz*-ek aitzindaririk gabeko perpausak bezala sailkatzen ditu esaldiok. Hau da, izenordainaren aitzindaria eta azken honi dagokion komunztadura marka ez daude izenordaina dagoen perpaus berean; bestela esanda, aitzindaria/komunztadura marka eta izenordaina ez dira perpauskide. Multzo honetako perpaus egitura hauek, beraz, ez dute *bere* forma indartua agertzeko eskatzen den konfigurazio morfosintaktikoa.

Hau esanda, azter ditzagun azpisail honetako esaldiak eta bere eskema sintaktikoa banan-banan. Hemen zein beste azpiataletako esaldien kasuan, esaldi bakoitzaren hasieran *Norantz*-en dagokion identifikazio zenbakia eman dugu. Honez gain, esaldiaren jatorrizko frantseseko bertsioa ere gehitu dugu, dagokion eskema sintaktikoarekin, honen bidez bere ezaugarri morfosintaktiko nagusiak errazki ikus daitezten.<sup>28</sup> Bukatzeko,

---

<sup>27</sup>*Norantz* datu basean horrela definitzen dituzte esaldi multzoak elkarrengandik bereizteko.

<sup>28</sup> Esan bezala, frantseseko bertsioaz gain, esaldi hauei legokiekeen itzulpena eman dugu, euskara batuaz, irakurleak errazago ikus dezan zein perpaus motaz ari garen. Garrantzitsua den aditz laguntzailean marka

irakurleak argi ikus dezan zer motatako perpausetaz ari garen, euskara batuan legokiokeen itzulpen (posible) bat ere eman dugu.

- (C44) *Pierre est en colère. J'ai tué son chien. (le chien de Pierre).*

[Pierre<sub>i</sub> haserre dago] [Nik POS<sub>i</sub> txakurra hil dut]

[P<sub>1</sub> ... AITZINDARIA<sub>i</sub>(ABS)...] [P<sub>2</sub> [ POS<sub>sg,i</sub> ]<sub>DS.ABS</sub> Adlg[-i] ]

P1 eta P2 perpaus beregainak dira, aitzindaria eta dagokion komunztadura marka P1-ean daude eta izenordaina P2-n, beraz, elementu hauek ez dira perpauskide. Horrez gain, P2-ko aditz laguntzaileak ez du esanguratsua den komunztadura markarik, izenordainaren indizekide denik. Hau dena kontuan hartuta, LA-legearen arabera izenordain genitibo singularraren forma arrunta aurkitzea espero genuke.

- (C45) *Xabi et Beñat ont dit a Peio qu'ils ont vu sa soeur. (la soeur de Peio)*

[Xabi eta Beñatek Peio<sub>i</sub> esan diote [POS<sub>i</sub> arreba ikusi dutela]]

[P<sub>1</sub>.....AITZINDARIA<sub>i</sub>(DAT).....] [P<sub>2</sub> [ POS<sub>sg,i</sub> ]<sub>DS.ABS</sub> Adlg[-i] ] ]

Perpaus honetan, aitzindaria perpaus nagusiko zehar osagarria (DS datiboa) da eta izenordaina mendeko perpausentz agertzen da. Honetaz gain, mendeko perpausentz ez dago izenordainaren indizekide den aitzindari edo komunztadura markarik. Honengatik guztiagatik, *haren* forma ez indartua espero dugu.

- (C46) *Beñat croit que son chien m'a mordu. (le chien de Beñat)*

[Beñatek<sub>i</sub> uste du [POS<sub>i</sub> txakurra kozk egin didala]].

[P<sub>1</sub>.....AITZINDARIA<sub>i</sub>(ERG.).....] [P<sub>2</sub> [ POS<sub>sg,i</sub> ]<sub>DS.ERG</sub> Adlg[-i] ] ]

C46 egitura honetan aurreko esaldiak zuen patroia sintaktiko berbera dugu, salbuespen batekin: hemen perpaus nagusian dagoen aitzindaria ez da argumentu datiboa, argumentu ergatiboa baizik. Aurrekoan bezala, aitzindaria (*Beñatek*), dagokion komunztadura marka

---

bat gehitu dugu: [-i] markak esan nahi du aditz jokatuak ez duela inolako komunztadura markarik izenordainari erreferentzia egiten dionik; [+i] jarri dugunean, aldiz, adizki honek badu izenordainari erreferentzia egiten dion komunztadura marka bat. Honen ondoan dagokion komunztadura marka zehaztu dugu (adibidez; [+i/ERG] agertzen bada, honek esan nahi duena da izenordainari erreferentzia egiten dion komunztadura marka ergatiboa dela. Horretaz gain, hiztunen ekoizpenetan aitzindariak eta izenordain genitiboak elkarrekiko hartzen duten hitz hurrenkera ere jasotzen saiatu gara. Adibide askotan, aditza eta aditz laguntzailea esaldiaren leku ezberdinetan agertzen dira: batzuetan hasieran, bestetan erdian, bestetan bukaeran (ik., adibidez, C49ren kasua). Bariazioa oso handia da kasu askotan eta, azterketa sakonago batean egin beharko bazen ere, lan honetan ezin izan dugu aldagai hau aztertu.

eta izenordain genitiboa, beraz, ez dira perpauskide.<sup>29</sup> Hau guztia kontuan harturik, beraz, LA-legearen arabera egitura honetan *haren* forma ez indartua espero dugu.

- (C47) *Maddi et Peio croient que leur compain est malade. (le compain de Maddi et Peio).*

[ [Maddi eta Peio]<sub>i</sub> uste dute [POS<sub>i</sub> adiskidea gaixo dagoela]]  
 [P<sub>1</sub>.....AITZINDARIA<sub>i</sub>(ERG).....P<sub>2</sub> [DS POSpl.<sub>i</sub> ]DS.ABS Adlg[-i] ] ]

C47-k C46-ren patroi morfosintaktiko berbera erakusten du, salbuespen batekin: aitzindaria eta izenordainak pluralak direla. Aurreko 3 kasuetan bezala (C44-C46), hemen ere ez dira betetzen forma indartua zilegiztatzeko LA-legeak ezartzen dituen baldintzak: aitzindaria, dagokion komunztadura marka eta izenordaina ez dira perpauskide, eta mendeko aditz laguntzailean ez dago izenordaina baimendu dezakeen komunztadura markarik. Hori dela eta, *haren* forma aurreikusten dugu.

**II) Joskera> izord> gen.> 3p> +Aitzink\_PostS:** Azpiatal honetako esaldietan (C48-C50), aitzindaria eta izenordain genitiboa perpauskide dira. Aitzindaria ez da aditzaren argumentu bat: PostS baten barruan txertatuta dago (Posposizio baten osagarria den DetS dugu) eta ez du komunztadurarik eragiten aditz laguntzailean; hori dela eta, perpaus hauetan ez dago izenordainarekin indizekideturik dagoen NOR, NORI edo NORK komunztadura markarik aditz laguntzailean. LA-legearen arabera, beraz, multzo honetako erantzunetan ere izenordainen forma arrunta espero dugu.

Esaldi hauei dagozkien eskema morfosintaktikoak hauexek dira:

- (C48) *J'habite chez Pierre avec son frère. (le frère de Pierre)*

[Ni Pierren<sub>i</sub> etxean bizi naiz [POS<sub>i</sub> anaiarekin]<sub>PostS</sub> ]  
 [P<sub>1</sub>.....[ AITZINDARIA<sub>i</sub>(GEN)]<sub>PS</sub>...Adlag[-i] [ POSsg.<sub>i</sub> ]<sub>POSTS</sub> ]

<sup>29</sup>Komunztadura marka dela eta, aipatu behar da hiztun batzuk mendeko aditz laguntzailean indikatibozko NOR-NORK aditz laguntzailea aukeratu dutela (adibidez, C46-GRAAR: *Beñatek uste du bere zakurrak ausiki nauela*). Beste batzuk, aldiz, NOR-NORI-NORK aditz laguntzaile bat aukeratu dute (hala nola C46-EHI: *Beñatek uste du bere xakurrak auska egin didala*). Edozein kasutan ere, bertsio batean zein bestean mendeko aditzak ez du agertzen izenordainarekin indizekideturik dagoen komunztadura markarik.

C48ko bertsio frantsesean, aitzindaria izenordainaren aurretik doa, eta hiztunek emandako itzulpenetan hurrenkera hau beti gorde da, nahiz eta aditzaren posizioa aldatzen den, hiztun batetik bestera.<sup>30</sup>

- (C49) *J'ai parlé de son chien avec Peio (le chien de Peio)*

C49k, C48ren ezaugarri berdinak ditu; esaldiaren ezaugarriak kontuan hartuz, hemen ere forma ez indartua, *haren*, espero dugu. Bada, halere, C49 C48tik ezberdintzen duen ezaugarri bat: frantsesezko bertsioan, C49-n izenordaina (biltzen duen osagaia) aitzindariaren aurretik agertzen dela. Euskarazko bertsioan, halere, hiztun askok ez dute hitz hurrenkera hori (izenordaina > aitzindaria) gorde, eta aitzindaria (biltzen duen osagaia) izenordainaren aurretik eman dute (53 hiztunen artean 26-k hurrenkera hau aukeratu dute).<sup>31</sup> Hitz hurrenkerak eraginik ba ote duen aztertzeko, C49 esaldia bi azpiataletan aztertuko dugu, (C49A eta C49B). Lehenak frantsesezko jatorrizko hurrenkera islatzen du, eta bigarrenak euskal hiztun askok egin duten bigarren hautua jasotzen du.

**C49A)** *J'ai parlé de son chien avec Peio (le chien de Peio)*

[Nik [POS<sub>i</sub> txakurraz] hitz egin dut Peiorekin<sub>i</sub>] **Frantsesezko esaldiaren hurrenkera**

[P<sub>1</sub> [POS.sg.i .....]<sub>PS</sub> .....Adlg[-i]..... ..[ AITZINDARIA<sub>i</sub>]<sub>PS</sub> ]

**C49B)** *J'ai parlé de son chien avec Peio (le chien de Peio)*

[Nik Peiorekin<sub>i</sub> [POS<sub>i</sub> txakurraz] hitz egin dut] **Bigarren hiztun multzoak jarraitu duten hurrenkera**

[P<sub>1</sub> [ AITZINDARIA<sub>i</sub>]<sub>PS</sub>.....Adlg[-i].....[POS.sg.i .....]<sub>PS</sub> ]

- (C50) *J' ai parlé de Peio et Maddi avec leurs amis (les amis de Peio et Maddi)*

[Nik [Peioz eta Maddiz]<sub>i</sub> hitz egin dut [POS.pl.<sub>i</sub> lagunekin.] ]

[P<sub>1</sub>.....[ AITZINDARIA<sub>i</sub>]<sub>POSTS</sub> + Adlg[-i] [ POS pl.<sub>i</sub> .....]<sub>POSTS</sub> ]

<sup>30</sup> Hiztunek emandako itzulpen batzuetan aditza hasieran agertzen da (adibidez, JOBAN-C48, ADBAR-C48, etab.), beste batzuetan bi postposizio sintagmen artean dagerkigu (hala nola MIMU-C48, PIMUS-C48, GRAAR-C48, etab), eta kasu bakar batean bukaeran ere aurkitu dugu (PIEGE-C48).

<sup>31</sup> Hemen ere aditzaren posizioa ere aldatu egiten da eta perpausaren hasieran (ESEN-C49, MADON-C49, etab.), erdian (adibidez, LOUSEN-C50 edo PIEGE-C50, besteak beste), edo bukaeran PIEPA-C49, RAZI-C49, etab.) agertzen da.

C50-ek C49-k dituen ezaugarri berberak ditu (alde batera utzita aurrekoan predikatua iragangaitza zela eta hemen iragankorra), baina hemen izenordain genitibo plurala dugu. Gorago emandako arrazoiengatik, hemen ere forma ez indartua espero dugu (*haien*).

Aitzindaria eta izenordainaren hurrenkerari dagokionean, hiru lagun alde batera utzita (PABA-C50, REES-C50 eta PIEPA-C50), beste hiztun guztiek aitzindaria biltzen duen osagaia izenordain genitiboa biltzen duen osagaiaren aurretik eman dute.<sup>32</sup>

**III) Joskera> izord> gen.> 3p> +Aitzink\_IS:** Multzo hau lau esaldiz osatua dago: C51-54. Kasu guzti hauetan aitzindaria DS bat da. Esaldi hauetan 3 egitura ezberdin aurkitzen ditugu. Goazen banan banan.

- (C51) *Peio a tué son chien pas le mien (le chien de Peio).*

[Peio<sub>i</sub> POS<sub>i</sub> txakurra hil du, ez nirea].

[P<sub>1</sub> [AITZINDARIA<sub>i</sub>]DS.ERG [ POS.sg.i ]DS .... Adlg[+I/ERG] ]

[P<sub>1</sub> [AITZINDARIA<sub>i</sub>]DS.ERG Adlg[+I/ERG] [POS.sg.i ]DS ]

Esaldi honetan aitzindaria eta izenordaina perpauskide dira, eta aditz laguntzaileak badu izenordainari erreferentzia egiten dion komunztadura marka bat. Hau dena kontuan hartuta, izenordainaren forma indartua espero dugu (*bere*).

Hitz hurrenkerari dagokionez, erantzun guztietan aitzindaria (subjektu ergatiboa) izenordaina biltzen duen osagaiaren aurretik agertzen da.<sup>33</sup>

- (C52) *Maddi ont amené leurs amis au cinéma et pas les miens (les amis de P. et Maddi)*

[Peio eta Maddik]<sub>i</sub> POS<sub>i</sub> lagunak gonbidatu dituzte zinemara eta ez nireak].

<sup>32</sup> MADON-C50-ek izenordaina biltzen duen osagaia aitzindaria biltzen duen osagaiaren aurretik erabiltzen du, baina ez dugu gure analisisian kontuan hartuko egitura aldatu duelako eta 1p.sg.-eko izenordaina erabili baitu: *Mintzo nitzen ne launekin Peioz eta Maddiz.*

Aditzari dagokionean, aurre aurrean (ADBAR- C50, KADO- C50, etab.), erdian (JOAI- C50, edo PIEGE-C50, besteak beste), edo bukaeran (hiztun bakarrak; MAILA-C50) agertzen zaigu.

<sup>33</sup> Aditzari dagokionean, hiztunek bi hitz hurrenkera ezberdinekin ekoitzi dute esaldi hau: molde batean, aditza subjektu eta osagarri zuzenaren artean eman dute, eta beste moldean aditza perpausaren bukaeran agertzen da. Hala ere, aditzaren hurrenkerakazterketari dagokionez ez duenez eraginik, denak batera aztertu ditugu

Hala ere, aditzaren kokagunea dela eta, gogoratu LA-legea klasikoaren arabera honek ez lukeela inolako eraginik izan behar izenordaina hautatzeko orduan, beraz ez hemen ez beste esaldietan ere aldagai honek ez luke inolako eragina izan beharko hautatutako izenordainaren forman.

[P1 [AITZINDARIA<sub>i</sub>]<sub>DS.ERG</sub> [POS pl.<sub>i</sub> ]<sub>DS.ABS</sub>.... Adlg[+i/ERG].....]

C52-ren kasuan, C51-ren ezaugarri berberak aurkitzen ditugu. Ezberdintasun bakarra aitzindaria eta izenordainaren zenbaki gramatikala da: pluralak dira hemen, eta singularrak aurreko adibidean. Azpimultzo honetako bi esaldiotan, beraz, LA-legeari jarraituz, forma indartua esperoko genuke.

- (C53) *C'est sont leurs partents et pas les miens qui ont amené Peio et Maddi au cinéma (les parents de Peio et Maddi)*

Esaldi hau bi egitura ezberdinen bidez itzuli dute hiztunek. Esaldi mota bakoitzak oso propietate ezberdinak ditu, beraz, kasu honetan bi azpiegitura morfosintaktiko ezberdinduko ditugu: C53A eta C53B.

**C53A)** Kasu honetan, hiztunek jatorrizko frantsesaren egitura mantendu dute bere itzulpenetan. Egitura hori honako hau da.

[[POS<sub>i</sub> gurasoak] dira, eta ez nireak, [[Peio eta Maddi]<sub>i</sub> zinemara eraman dituztenak]].

[P1 [POS pl.<sub>i</sub> ]<sub>DS.ABS</sub> Adlg[-i] [ [ [AITZINDARIA<sub>i</sub>]<sub>DS.ABS</sub> ]P2 ∅ ]<sub>DS.ABS</sub> ]

Egitura honetan izenordain genitiboa fokalizaturik dagoen DETS baten barruan dago, eta aitzindaria erlatibozko egitura baten barruan txertaturik dago. Aitzindaria eta izenordain genitiboa, beraz, ez dira perpauskide. Honetaz gain, izenordainaren perpausko aditz laguntzailean ez dago NOR, NORI edo NORK komunztadura markarik izenordainarekin indizekideturik dagoenik. Honengatik guztiagatik, forma ez indartua espero dugu (*haien*).

Guztira 8 hiztunek jarraitu dute frantsesaren molde sintaktikoa bere itzulpenetan. Hauen artean, batzuk jatorrizko frantsesezko esaldiaren hitz hurrenkera mantendu dute, eta beste batzuetan aldaketa bat sartu dute aditzaren hurrenkeran, jatorrizkoa aldatuz. Horren ondorioz, perpaus batzuetan izenordaina erlatibozko egituran txertatua dagoen aitzindariaren aurretik agertzen da, eta beste batzuetan alderantzizko hurrenkera aurkitu dugu, eta aitzindaria izenordainaren aurretik agertzen zaigu.<sup>34</sup>

<sup>34</sup> Hona hemen aurkitu ditugun bi hitz-hurrenkerak, eta dagozkien adibide batzuk.

- (i) [P1 [POS pl.<sub>i</sub> ]<sub>DS.ABS</sub> Adlg[-i] [ [ [AITZINDARIA<sub>i</sub> ]P2 ]<sub>DS.ABS</sub> ]  
*Beren burasoak dire Peio ta Maddi zinemarat ereman dituztenak baiñan ez nereak (ESHEN-C53).  
Hen aitamak dira eta ez eniak Maddi ta Peio zinemarat ereman tuztenak (ANHAZ-C53)*



### C53B)

Aurreko paragrafoetan aipatu bezala, hiztun gutxik jarraitu dute frantsesezko adibidearen egituraren eredua, eta itzulpena fokalizazio baten bidez eman badute ere, fokalizazio honen egitura oso ezberdina da. Hau da fokalizazio horren egitura eta dagokion adibide bat.

[P1 [POS pl.i ]<sub>DS.ERG</sub> Adlg[+i/ABS] [AITZINDARIA<sub>i</sub>]<sub>DS.ABS</sub> ]

- C53B-MAIHE: *Beren burasoek dituzte Peio eta Maddi ereman zinemarat, eta ez eneek.*
- C53B-KADO : *Bere burrasoak, ez eniak, eraman dute Peio eta Maddi zinemarat.*

Egitura honetan, izenordain genitiboa eta aitzindaria perpauskide dira. Izenordain genitiboa subjektu ergatibo batean txertaturik dago, eta aitzindariak, osagarri zuzena denak, komunztadura absolutiboa eragiten du aditz laguntzailean. Aditz laguntzaileak badu, beraz, komunztadura marka bat izenordainarekin indizekideturik dagoena. Egitura hauetan, beraz, forma indartua espero dugu (*bere*).<sup>35</sup>

- (C54) *Pierre est en colère. Son chien l'a mordu. (le chien de Pierre)*

[Pierre<sub>i</sub> haserre dago]. [POS<sub>i</sub> txakurrak kozk egin dio]

[P1...AITZINDARIA<sub>i</sub>.DS.ABS ...] [P2 [ POS<sub>i</sub> ]<sub>DS.ERG..</sub> [AITZINDARIA<sub>i</sub>]<sub>DS.ABS</sub> Adlgj [+i/ABS] ]

Bi perpaus beregaindu adibide honetan, aitzindaria lehen perpausean zehazten da (subjektu absolutiboa da), eta izenordaina bigarren perpauseko subjektu ergatiboaren barruan txertaturik dago. Baina aitzindaria berriro jasotzen da bigarren perpausean. Zehazkiago, izenordaina biltzen duen perpausean aitzindaria bigarren aldiz errepikatzen da isildurik dagoen DS absolutibo/datibo baten bidez; honen ondorioz, bigarren aitzindari honi dagokion komunztadura marka bat agertzen da bigarren perpauseko aditz laguntzailean (NOR edo NORI komunztadura marka, hiztunak *mordu* aditza

---

(ii) [P1 [POS pl.i ]<sub>DS.ERG</sub> Adlg[-i] [ [ AITZINDARIA<sub>i</sub> ]P2 ]<sub>DS.ABS</sub> ]  
Peio eta Maddi eraman dütüenak zinemailat dira haien aitetamak eta ez eniak (ADBAR-C53).  
Peio ta Maddi eleman tuzte zinemat ben burasoek baña ez neriak (MADON-C53).  
Adibide hauetan, goian azaldutako arrazoiengatik, forma ez indartua espero dugu.

<sup>35</sup> Gogoratu honelako egiturengatik ondorioztatu zuela Rebuschik LA-legea ezin zitekeela Uztardura Teoriaren A eta B Printzipioetan oinarrituz azaldu, kasu honetan aitzindariak ez duelako izenordaina o-komandatzeko eta, beraz, ez duelako uztartzen. Izenordaina aske gelditzen da bere uztardura eremuan. Ik. 12. oharra.

euskaratzeko hautatu duen formaren arabera).<sup>36</sup> LA-legearen arabera, beraz, forma indartua espero dugu.

Laburbilduz, hau da LA-legearen arabera espero daitekeena:

(31)2. Taula: LA-legearen arabera C44-C54 esaldietan espero daitekeen forma

Esaldia	C44	C45	C46	C47	C48	C49A	C49B	C50	C51	C52	C53A	C53B	C54
LA-legearen arabera	haren	haren	haren	haien	haren	haren	haren	haien	bere	bere	Haien	bere	bere
espero daitekeena													

Behin *Norantz*-ek deskribatutako multzoen azalpena eginda, esaldion banan-banako azterketari ekingo diogu. Baina hiztunen ekoizpenak aztertu baino lehen kontuan hartu behar da hiztun guztiek ez dutela beti eman zaien frantsesezko esaldiaren itzulpen zehatz bat egin eta, beraz, hiztunek emandako itzulpenen artean ezberdintasunak aurkitu ditugula, batzuetan aztertu nahi den egituratik kanpo gelditzen direnak. Adibidez, batzuek emandako itzulpenean esanahi orokorra mantendu badute ere, itzulpen zehatza egin beharrean esaldiak moldatu egin dituzte. Badira ere zenbait kasu non esaldia ondo ulertu ez eta lanerako erabilgaitzak egin diren itzulpenak eman dituzten. Kasu horiek zeintzuk diren beherago, bakoitzaren atalean, zehaztuko da, eta azterketatik kanpo utzi ditugu.

### 3.2. Kasu azterketaren emaitzak

Aurreko azpiatalean ikertzaileek itzularazitako esaldiak aztertu ondoren, hiztunek ekoizitako esaldiak aztertzea falta da hauek gaur egun duten joera ikusteko. Horretarako eta irakurtzaileei gauzak errazteko asmoz, *Norantz*-etik hartutako datuak taula batean bildu ditut<sup>37</sup>. Lehenik, esaldiak banan-banan aztertuko dira aurrez Rebuschik (1986) eta Duguinek (2003) ateratako ondorioak kontuan hartuz. Ondoren, belaunaldiz belaunaldi

<sup>36</sup> Hau da, nahiz eta egitura mantendu, hiztunek aukera ezberdina egin dute bigarren perpausaren aditzari dagokion ezaugarri morfosintaktikoetan: batzuk NOR-NORK gisakoa balitz tratatu dute eta beste batzuk NOR-NORI-NORI sailekoa balitz bezala:

- (i) Pierre koleran da. *Bere* xakurrak asikitu du (ESHEN- C54) vs.
- (ii) Pierre koskatia da, *bere* xakurrak ausiki dio (MAIHE-C54).

Honek aztertzen ari garenerako ez duenez ezer aldatzen, bi kasuak batera aztertu dira.

<sup>37</sup>1. eranskinean, Bertan esaldi bakoitzaren eta hiztun guztien itzulpenen datuak daude.

joerak aztertuko dira eta azkenik, ahal den heinean, euskalkiz euskalki aztertuko dira emaitzak.

### 3.2.1. *Bere eta haren izenordainen banaketaren egoera esaldiz esaldi*

Goian esan bezala, esaldiak aztertzerako orduan zailtasun batzuekin topatu gara. Batetik, nahiz eta *Norantz*-eko ikertzaileek argi eta garbi zehazten zuten frantsesezko esaldian euskaraz lortu nahi zuten egitura eta izenordainaren interpretazioa, hiztun guztiek ez dute esaldia behar bezala itzuli eta, honen ondorioz, ezin izan dugu beti haien ekoizpena kontuan hartu: adibidez, askotan hiztunek eskainitako euskarazko itzulpenean izenordainik ez dagoela ikusi dugu. Bestetik, hiztun bakoitzak esaldiak nahi izan duen moduan itzuli dituzenez, kasu batzuetan aditz laguntzailean erreferentziakiderik espero ez dugunean izenordainari erreferentzia egiten ziezaiokeen komunztadura marka dagoela ikusi dugu. Erabili ezin ziren datuak alde batera utzi ditugu.

#### ■ LEHEN PERPAUS MULTZOA

- C44

Goian emandako arrazoiengatik, LA-legearen arabera izenordain genitibo singularraren forma arrunta aurkitzea espero genuke. Hala ere, hiztunek emaitza ezberdinak eman dituzte.

Alde batetik, 11 hiztun perpaus honen azterketatik kanpo utzi ditut esaldia izenordainik gabe itzuli izateagatik edota esanahia/egitura aldatzeagatik<sup>38</sup>: LOUSEN-C44, XALEZ-C44 eta PEOLO-C44 hiztunek esanahia aldatu egin diote, besteek izenordainik gabe itzuli dute. Horrez gain, RAZI-C44, BEDO-C44, NAZI-C44 eta MIMI-C44 hiztunek esaldiaren forma aldatu eta itzulpenean bi perpaus beregain eman beharrean bigarrena mendeko bihurtu dute. Horregatik, hauek ere azterketatik kanpo utzi ditut. Hauez gain, badira ere perpaus bakar gisa itzuli duten hiztunak; guztira 7k jarraitu dute estrategia hau: ADBAR-C44, PIMUS-C44, GRAAR-C44, MIMU-C44, XABAI-C44, NAMAU-C44 eta XILA-C44. Hauek ere azterketatik kanpo utzi ditut. Azkenik, gelditzen ziren 37 hiztunetik 7k datibo komunztadura marka erabili dute bigarren perpausaren aditz jokatuan, nahiz eta jatorrizko frantsesezko bertsioan datiborik ez egon perpaus horretan. Hori dela eta, datibo marka

---

<sup>38</sup> Hiztun hauek ESHEN, JABI, MADON, LOUSEN, GERBAR, XALEZ, ANIZ, YOSAN, PEOLO, JOAINH eta KAU dira.

sartzean, izenordain genitiboaren forma indartua zilegiztatzeko testuinguru bat sortu dute. Hitzun hauek ez dutenez 3.1.3.1 atalean deskribatu ditugun testuinguruekin bat egiten atal honetatik kanpo utzi dira<sup>39</sup>.

Beraz, guztira 30 hitzunen emaitzak aztertu dira lehenengo esaldian. Bakarrak, *beraren* forma enfatikoaren aldaera bat erabili du.<sup>40</sup> Hala ere, forma enfatikoak alde batera utziko dira lan honetan ez baitira nahikoa inolako ondorio fidagarririk proposatzeko.

Gauzak horrela perpaus honetan 29 hitzuneko lagina gelditzen zaigu aztertzeko. Hauetatik 24 hitzunek (%82,76) *bere* forma indartua erabili dute, eta 5-ek *haren* forma arrunta. Hona hemen hitzunek ekoiztutako adibide batzuk, *bere* eta *haren* formekin.

(32) Piello khexü düzü. *Haen<sub>j</sub>* tzakürra eho dit<sub>i</sub> (REES, C44).

(33) Peio koleran dago. *Haren<sub>j</sub>* txakurra il dut<sub>i</sub> (EHEN, C44).

(34) Pierre<sub>i</sub> kexu da. *Bere<sub>i</sub>* xakurra il dut<sub>j</sub>. (JOAI, C44).

(35) Peio<sub>i</sub> aserre da. Il dut<sub>j</sub> *bere<sub>i</sub>* zakurra (KOPA, C44).

Hortaz, testuinguru honetan ikusten duguna da forma indartua erabiltzeko ageriko joera sendo bat dagoela, nahiz eta forma hau baimentzeko bete behar diren baldintza sintaktikoak (perpauskidea den aitzindaria edo komunztadura marka aditz laguntzailean) ez bete.

---


<sup>39</sup> Datibo komunztadura marka txertatu dioten 7 hitzun horiek *Norantz*-ekoek bilatzen zuten testuingurua aldatu eta aitzindaria perpaus berean duen konfigurazio bat sortu dute. Hori dela eta, ez ditugu kontuan hartuko.

<sup>40</sup> Ikerketa honetan oso hitzun gutxik eta oso perpaus gutxitan egin dute forma enfatikoa erabiltzeko hautua. Hori dela eta, ikerketatik kanpo utziko dira, lagina ez delako nahikoa ondorioz ateratzeko. Hauek dira ikerketan agertu diren forma enfatikoaren adibide guztiak:

- C44: MAILA ("Behain")
- C46: MAAL ("Beaen")
- C47: - IOSEN ("beraien")  
- KABA ("berauen")
- C48: MAAL ("Beaen")
- C49: - YOSAN ("Beaen")  
- MAAL ("Beaen")  
- XABAI ("Beraen")
- C50: XABAI ("Beraien")
- C51: - YOSAN ("Bean")  
- MAAL ("Bean")
- C53: GERAR ("Beaien")
- C54: , YOSAN (" Bean")

Aurreko ataletan sistemaren eboluzioa azaltzeko proposatu diren hipotesiak kontuan hartuta, aztertzen ari garen egitura honetan lehenengo perpausean ageriko aitzindari bat agertzen denez (eta gainera aitzindari hau subjektua izanda perpausaren mintzagaia izan daitekeenez), baliteke honek ere eragina izatea izenordainaren forma indartua zilegiztatzeko gaitasunean. Horrela balitz, fenomeno sintaktiko bat izatetik diskurtso mailako fenomeno bat izatera martxan dagoen eboluzioaren isla izango lirateke emaitza hauek.

Grafiko honetan errazago ikus daiteke hiztunen joera:



Grafikoa 1: C44ean aztertutako 29 hiztunek izandako joeren emaitzen portzentaia

#### ● C45

Hemen ere, LA-legearen arabera izenordain genitibo singularraren forma arrunta aurkitzea espero genuke baina, berehala ikusiko dugunez, hiztun askok ez dute hautu hau egin.

Hasteko esan behar da perpaus honetan, 5 hiztun azterketatik kanpo utzi behar izan ditudala: ESHEN-C45, JABI-C45, REES-C45, EHEN-C45 eta PEOLO-C45. Horren arrazoiak bigarren esaldia izenordainik gabe itzuli izana edo esaldiaren esanahia guztiz aldatu izana izan dira. Hortaz, guztira 54 hiztunen datuak aztertu dira atal honetan.

Hona hemen hiztunek eskainitako itzulpen batzuk:


- (36) Xabik eta Beñatek Peiori erran diote ikusi dutela haen arreba (GERBAR, C45).
- (37) Xabi eta Beñatek erran diote Peiori ikusi dutela haren arreba (XALEZ, C45).
- (38) Xabi eta Beñatek erran diote Peiori ikusi zutela bere arreba (ADBAR, C45).

Guztira 54 hiztun hauetatik 39-k forma indartuaren aldaera bat erabili dute eta beste 15-ek, berriz *haren* forma ez indartuaren aldaeraren bat. Berriz ere, beraz, hiztunen %72,22-k espero genukeenaren aurkako joera erakutsi dute.

Hortaz, guztira aztertutako 54 hiztunetatik 15 hiztun bakarrik izan dira LA-legeari jarraituz esperoko genukeen *haren* forma arrunta erabili dutenak (hau da, %27'78): hona hemen horien adibide bat.

(39) Xabi eta Beñatek Peiori erran diote *aren* arreba ikusi dutela (JOAINH, C45).

Beraz, grafikoan ikus daitekeen bezala, orokorrean hiztunek forma indartua erabiltzeko joera sendoa erakutsi dute testuinguru morfosintaktiko honetan, nahiz eta aitzindaria eta izenordaina perpauskide ez izan eta izenordain genitiboaren perpausean aditz jokatuak esanguratsua den komuntadura markarik ez izan.



Grafikoa 2: C45ean aztertutako 54 hiztunek izandako joeren emaitzen portzentaia.

Laburbilduz, C45-ean LA-legeak eskatzen dituen baldintza morfosintaktikoak betetzen ez badira ere, badirudi 3p izenordainen forma indartuen erabilera nahiko orokortua dagoela, 2. Atalean laburtu ditugun lanetan aipatzen den bezala. C44 esaldiaren kasuan, literaturan egindako hipotesi batzuei jarraituz, aipatu dugu agian forma indartua baimentzen zela izenordainaren aitzindaria topiko nagusia zelako. Kasu honetan ezin daiteke proposamen berbera egin, izenordainaren aitzindaria den perpaus nagusiko DS datiboa ez delako perpausaren topiko nagusia. Dena den, 2. Atalean C45-ek duen egitura bereko beste kasu batzuk ikusi ditugu non perpaus nagusiko DS datibo batek izenordainaren forma indartu bat baimentzen zuen mendeko perpausean, hemen bezala. Honek, C44-ko ondorioen ildo beretik, pentsatzera narama izenordain genitiboen forma indartuen vs. ez indartuen banaketa fenomeno sintaktikoa izateari utzi egin diola, nahiz eta (C44-ean ez bezala) kasu honetan inolako ebidentziarik ez izan LA-legea diskurtso mailako fenomeno ia izatera igaro den ala ez erabakitzeke.

- **C46**

2. Atalean esaldi hau aztertu dugunean esan bezala, hiztun batzuk mendeko aditz laguntzailean indikatibozko NOR-NORK aditz laguntzailea aukeratu dute (ik. adibidez (40-42) adibideak), beste batzuk NOR-NORI-NORK aditz laguntzaile bat aukeratu duten

bitartean (hala nola (43-44) adibideak); guztira 11 hiztun izan dira azken estrategia hau jarraitu dutenak.

(40) Beñatek uste dik *haen* txakürak usuki naiala (GERBAR, C46).

(41) Beñatek uste dizü *hain* tzakürak usuki naiala (REES, C46).

(42) Beñatek uste du *aren* zakurrak asiki nauela (LOUSEN, C46).

(43) Beñatek uste du *bere* zakurrak ausiki egin didala (EHI, C46).

(44) Beñatek uste du *aren* txakurrak koska egin ditala (AIBA, C46).

Gorago esan bezala (ik. 36 oinoharra), aditz laguntzaile mota ezberdinak erabili arren, aldaketa honek ez du garrantzizko aldaketarik suposatzen gorago deskribatu ditugun ezaugarrietan, beraz, NOR-NORK saileko erantzunak eta NOR-NORI-NORK sailekoak batera aztertu dira, eta bi kasuetan forma ez indartuak erabiltzea esperoko genuke LA-legea indarrean balego.

Aurreko bi perpausen kasuan bezala (C44 eta C45), kontuan hartu diren 54<sup>41</sup> hiztunen datuen arabera, gehienek forma indartua erabili dute (41 hiztunek, hau da, %75,93 ) eta arrunta, aldiz, 13 hiztunek bakarrik (%24, 07) (ik. grafikoa). (53-54) adibideetan ikus daitekeenez, aurreko bi egiturekin (C44-45) ateratako ondorio berberera heltzen gara C46-n ere. Forma indartuaren erabilera-eremuak zabaldu egin dira hiztun gehien gramatikan, LA-legearen arabera espero ez ditugun testuinguru morfosintaktikoetan aurkitzen baititugu forma indartuak.<sup>42</sup> Ikuspuntu diskurtsibotik, perpaus nagusian dagoen aitzindaria, subjektu ergatiboa, topiko nagusi gisa har liteke. Ikuspuntu honetatik, C46 esaldia C44rekin elkar genezake. Laburbildu ditugun lanen arabera, ezaugarri diskurtsibo honek agian eragina izan lezake forma indartuaren erabileran.

Horretaz gain, gogoratu behar da Duguinek (2003) antzeko testuinguru sintaktikoa aztertu zuela (aitzindaria perpaus nagusiko DS ergatiboa zen, eta mendeko perpaus formak indartua baimentzen zen LA-legearen baldintza morfosintaktikoak betetzen ez baziren ere). Irakurleak gogoan izango duenez, Duguinek H1-en eta H2-ren arteko

---

<sup>41</sup> JABI-C46, KADO-C46, PELO-C46 eta JOAINH-C46 alde batera utzi dira. Lehenengo hirurek esanahia aldatu diote esaldiari eta azken honek bi modu ezberdinetan itzuli du esaldia. Horregatik, datu hauek ez zaizkigu fidagarriak iruditu eta ez dira kontuan hartu. Horrez gain, 40. oinoharrean aipatu bezala, MAAL-C46 hiztunak forma enfatikoak erabili du eta, beraz, ez dugu besteekin batera aztertu eta baztertu egin dugu.

<sup>42</sup> Hemen aurkitzen dugun egoera ez da berria, eta lan honen lehen ataletan laburbildu ditugun lanetan deskribatzen zen bilakaerarekin bat datoz datu hauek. Duguinek (2003) egindako lanean ere topatzen ditugu.


ezberdintasun interesgarriak aurkitu zituen, testuinguru honetan H2-k forma indartua baimentzen zuen bitartean, H1-ek forma ez indartua hautatzen zuelako. Duguinek aztertutako adibideak errepikatzen ditugu.

(45) Pantxikak; Ximuni<sub>j</sub> [bere<sub>i/j</sub> gurasoak kexu direla] aitortu dio.

(46) Pantxikak; Ximuni<sub>j</sub> [haren<sub>\*i/\*j</sub> gurasoak kexu direla] aitortu dio.

Aztertzen ari garen esaldi hau ez da Duguinen egituraren guztiz berdina, Duguinen adibidean perpaus nagusian izenordainaren aitzindaria izan zitekeen DS datibo bat ere bazegoelako, baina edozein kasutan ere, Duguinen adibideak zein adibide honek argi uzten dute gaur egungo hiztun askok ez dutela jada LA-legea jarraitzen eta forma indartuaren erabilera zabaldu egin dela era orokor batean. Berriz ere, honek argi erakusten du XXI mendean hiztunek LA-legeak deskribatzen duen sistema guztiz aldatuta dagoela 3p izenordain genitiboen kasuan ere, eta jadanik ez dela LA-legeak deskribatutako sistema. Honekin loturik, itekeena da C44-n bezala hemen ere aitzindaria topiko nagusi gisa interpretatu ahal izatea forma indartuaren baimentzean eragina izatea.

C46 esaldiaren azterketaren emaitzak ondoko grafikoan bildu ditugu.



Grafikoa 3: C46ean aztertutako 54 hiztunek izandako joeren emaitzen portzentaia.

- **C47**

2. Atalean azaldu bezala, eta aurreko 3 kasuen ildo beretik, hemen ere ez dira betetzen forma indartua zilegiztatzeko LA-legeak ezartzen dituen baldintzak morfosintaktikoak: aitzindaria eta izenordaina ez dira perpauskide eta mendeko aditz laguntzailean ez dago izenordaina baimendu dezakeen komuntadura markarik.



Lehen multzoko azken esaldi honetan ere, forma indartua (*bere/beren*) orokortuta dagoela dirudi nahiz eta aurreko esaldietan (C44-46) baino hiztun gehiagok hartu duten forma arruntaren (*haien*) aldaera bat erabiltzeko hautua<sup>43</sup>.

Hona hemen bi estrategien adibide batzuk:

- (47) Maddi eta Peiok uste dute *heien* laguna eri dela (SEAI, C47).
- (48) Maddi ta Peiok uste dute *aien* laguna eri dela (XABAI, C47).
- (49) Maddi ta Peiok uste dute *aien* laguna eri dela (KOBIA, C47).
- (50) Maddi eta Peiok uste dute *beren* laguna eri dela (JABI, C47).
- (51) Maddi eta Peiok uste dute *bere* laguna eri dela (MAIHE, C47).

Emaitzak aztertzean ikusten duguna da guztira 54 hiztunetatik 18 hiztunek erabili dutela *haien* forma arruntaren aldaeraren bat, *aien/heien*; hau da, laginaren herenak. Beste guztiek (36 hiztunek) forma indartua aukeratu dute. Beraz forma indartuak (*bere + beren*) guztira % 66'67 dira, eta forma ez indartuak %33,33; ik. 4. grafikoa). Txikia bada ere, badago alde txiki bat C47 eta C44-C46 esaldien artean: C47-k joera handiagoa erakusten du forma ez indartua erabiltzeko. Lagina txikia bada ere, hau bereziki deigarria da C46 eta C47 esaldien emaitzekin erkatzen baditugu: biak egitura morfosintaktiko berbera badute ere eta C46-n (eta C44-n) bezala perpaus nagusiko aitzindaria topiko nagusi gisa interpretatu ahal izatea, C47-n hiztun gehiagok erabili dute forma ez indartua C46-n baino (%33'33 vs. %24'07). Bi esaldien arteko alde hau garrantzizkoa balitz, nondik etor liteke aztertutako esaldien arteko ezberdintasun hau? Bi esaldien arteko ezberdintasun nabariena aitzindaria eta izenordainaren zenbaki gramatikala da: kasu honetan pluralak dira. Laginaren tamaina eta nolakotasunak tentuz ibiltzera behartzen bagaituzte ere, posiblea da C47-ren emaitzetan aurkitzen dugun aldea ezaugarri gramatikal honekin loturik egotea<sup>44</sup>.


Honetaz gain badago zenbaki gramatikalarekin loturik dagoen interesgarria den beste kontu bat. C47-n erabilitako forma indartuak guztira %66'67 izan dira. Baina goian, 2.4. Atalean, deskribatu den bezala, LA-legearen jatorrizko sistemaren bilakaeran Rebuschik

---


<sup>43</sup> LOUSEN-C47, JOBAN-C47 eta ABE-C47 hiztunak azterketatik kanpo utzi ditut ez baitute izenordainik ematen edota perpausaren esanahia aldatu egin dutelako. Horrez gain, IOSEN eta KABA hiztunek forma enfatikoaren alde egin dute, horregatik azterketatik kanpo geldituz.

<sup>44</sup> 1. Eranskina erreparatzen badugu orotara 13 hiztunek C44-C47 bitarteko perpausetan soilik C47an forma arrunta erabili dutela ikusiko dugu.

forma indartua plurala zenean *bere* forma bakarrik erabiltzetik (ik. (51) adibidea) hainbat hiztun *beren* forma erabiltzera ere pasa zirela ikusi zuen (ik. (50) adibidea). Gure laginean ere, hiztunek 3p izenordain genitiboen aitzindaria plurala denean *bere* forma erabiltzeaz gain *beren* ere erabiltzen dutela ikusi ahal izan dugu. Forma indartua erabili duten 36 hiztunetatik 24-k (hau da, hiztun guztien %44,45-k) *beren* forma erabili dute pluralerako baina 12-k (hiztun guztien % 22,22) oraindik *bere* forma darabilte pluralerako ere. Forma indartuak bere aldetik aztertzen baditugu, orduan kasu honetan forma indartuetatik *bere* %33'33 kasuetan hautatua izan da, eta *beren*, aldiz, %66'66 kasuetan. Argi dago, beraz, badagoela joera bat forma pluraletan *beren* izenordainaren erabileraren alde.



Grafikoa 4: Laginaren forma indartu eta ez indartuen arteko banaketa. (Izenordaina 3p. pl. da)



Grafikoa 5: forma indartuen erabilera

### Lehenengo multzoaren (C44-C47) emaitzak:

Esaldia	C44	C45	C46	C47
LA-legearen arabera	<i>Haren</i>	<i>Haren</i>	<i>haren</i>	<i>haien</i>
<b>Esaldiaren ezaugarriak eta aurkitu duguna</b>	<p>Aitzindaria P1-ean eta izenordaina P2-n.</p> <p>Aitzindaria Topiko nagusi gisa interpreta daiteke.</p> <p>29 Hiztun, <i>bere</i> %82'76; <i>haren</i> % 17'24</p>	<p>Aitzindadaria P1eko DS datiboa, eta izenordaina P2-n.</p> <p>54 hiztun, <i>bere</i> % 77'22, <i>haren</i> % 27,78</p> <p>Aitzindaria Top nagusia ez</p>	<p>Aitzindaria P1eko DS ergatiboa eta izenordaina P2-n</p> <p>54 hiztun, <i>bere</i> %75'93 <i>haren</i> %24'07</p> <p>Aitzindaria Top nagusi gisa interpreta daiteke</p>	<p>C46-ren egitura bera, baina aitzindaria eta izenordainak 3p.pl.</p> <p><b>A)</b> Forma indartuak vs. ez indartuak</p> <p>54 hiztun</p> <p>Forma indartuak (<i>bere</i> + <i>beren</i>) % 66'67</p> <p>Forma ez indartuak, . <i>Haien/hei</i>en, %33,33</p> <p><b>B)</b> Forma indartuen banaketa</p> <p>36 hiztun</p> <p><i>bere</i>, % 33,33</p> <p><i>beren</i> %66'66</p>

3.Taula: Lehenengo multzoaren ezaugarri eta emaitzak.

(C44-C47) esaldiak aztertu ondoren, laginaren ezaugarriengatik tentuz bada ere, ondoko orokorpenak egin daitezke:

i) Lehena, nabarmenki hiztun askok (gehienek) izenordain posesiboen banaketa ez dute dagoeneko LA-lege klasikoaren arabera. Oro har, forma indartuaren (*bere/beren*) erabilera esparrua zabaldu da, eta *haren* izenordainarena murriztu egin da. Multzo honetako esaldietan, LA-legea bortxaturik aurkitu dugu: aitzindaria eta dagokion komunztadura eta izenordaina perpauskide ez direnean ere (hau da, aitzindaria eta honen komunztadura marka izenordaina biltzen duen perpausetik kanpo daudenean), forma indartuak dira gaur egun gehien erabiltzen direnak. Aitzindari eta izenordain singularren kasuan, forma indartuak %75-etik gora erabili dira aztertutako 3 kasuetan: Interesgarria da ikustea kopuru hauek pluralaren kasuan forma indartuen erabilera nabarmenki jaisten dela

%67ra heldu gabe). Badirudi, beraz, aitzindari eta izenordainaren zenbaki gramatikalak eragina duela forma indartuen erabileran.

ii) *Bere* vs. *beren*. Izenordain pluralen kasuan, *bere* formaz gain *beren* ere erabiltzen dela ikusi dugu. Rebuschik XX. mendean dagoeneko hasia zen bilakaera orokortu gabe dagoela ikusi dugu: izenordain genitibo plurala denean *bere* eta *beren* formen arteko bereizketa oraindik ere mantentzen da, nahiz eta joerak argi eta garbi *beren*-en alde egiten duen (C47-n forma indartua aukeratu dutenen artean, hiztunen heren batek *bere* erabili du eta bi herenek *beren*).

iii) 13 hiztunek (ik. 44. oinoharra) *bere* singularraren baliokide gisa eta pluralerako *haien* forma arrunta erabiltzen dutela diru, Duguinek (2003) dagoeneko iradoki modura. Hau da, forma ez-indartua erabili dutenen % 72,22-ak. Gainera, 13 horietatik 12 gazteen belaunaldikoak dira.

iv) Duguinek *bere* azterketan C45 eta C46 esaldien egitura bera zuten esaldietan jarrera ezberdinak aurkitu zituen H1 eta H2ren artean: forma indartua errezago baimentzen zen aitzindaria datiboa zenean ergatiboa zenean baino. perpaus nagusian dagoen aitzindaria. Lagin honetan ez da horrelako alde esanguratsurik aurkitu C45 eta C46-ren artean.

v) Aitzindariaren funtzio diskurtsiboa topiko nagusi gisa. Aztertutako 3 esalditan (C44, C46 eta C47) aitzindaria topiko gisa interpreta daiteke. 2 Atalean laburtutako zenbait lanen arabera, funtzio diskurtsibo honek eragina izan lezake forma indartuen erabileran. Zaila da honen inguruan ondorio sendorik ateratzea gure laginetik, baina C45 eta C46 erkatzen baditugu (bi hauek antzeko egitura sintaktikoa dute eta biek aitzindari eta izenordain singularrak dituzte), ez dirudi kasu honetan hau horrela izan denik: C46 esaldian aitzindaria, perpaus nagusiko subjektu ergatiboa izanik, topiko nagusi gisa interpreta daiteke; C45-ren kasuan, aitzindaria perpaus nagusiko DS datiboa da, eta ez du interpretazio honetarako biderik ematen. Halere, forma indartuen erabilera oso antzekoa da bi esaldiotan: % 77'22 C45-en eta %75'93 C46-n.

## ■ BIGARREN PERPAUS MULTZOA

### ● C48<sup>45</sup>

---


<sup>45</sup> Esaldi honi dagozkion itzulpenetan, hiztunek aditza eta aditz laguntzailea perpausaren aurre aurrean edo *Pierren etxean* eta *Pos anaiarekin*-en artean jarri dute, baina inoiz ez bukaeran.

Hauek dira C48-n izan ditugun emaitzak: 56<sup>46</sup> hiztunetarik forma arrunta aukeratu duten 14 hiztunak alde batera utzita (laginaren %25a), beste guztiek (42-k, % 75-k) forma indartua hautatu dute, LA-legearen arabera espero genezakeenaren kontra.

Hona hemen hiztunek emandako itzulpen batzuk:

- (52) Bizi niz Pierren etxen [*harren* anaiarekin] (ANIZ, C48).  
 (53) Bizi nüzü Pierran etxen [*haen* anaiaki] (YOSAN, C48).  
 (54) Peioin etxean bizi niz [*bere* anaiarekin.] (JOAI, C48).  
 (55) Pierren etxean bizi naiz [*bere* anaiarekin] (KOBA, C48).

Esaldiaren ezaugarriak kontuan hartuta, aitzindaria (Postposizio lokatiboan txertaturik dagoen *Piarren* genitiboan) ezin daiteke interpretatu topiko nagusi gisa.



Grafikoa 6: C48an aztertutako 56 hiztunek izandako joeren emaitzen portzentaiak.

Lehen multzoan aztertutako 4 esaldiek LA-legea bortxatzen zuten aitzindaria eta honi dagokion komunztadura marka, batetik, eta izenordaina, bestetik, perpauskide ez zirelako. Hemen aztertu dugun esaldiak (hala nola C49 eta C50 esaldiek ere) LA-legea bortxatzen dute baina beste modu batera: aitzindaria eta izenordaina perpauskide badira ere, aitzindaria ez da ergatiboa, datiboa edo absolutiboa den osagai bat, eta beraz ezin izango du komunztadura markarik eragin aditz jokatuan. Duguinek (2003) ere antzeko kasuak aztertu zituen burutu zuen galdetegian, eta ondorioztatu zuen berak elkarrizketatutako hiztunek forma indartuak onartzen zituztela horrelako kasuetan ere (op cit.:41). Gure emaitzek ondorio berberera eramaten gaituzte: izan ere, %25-ek bakarrik

<sup>46</sup>PIEGE-C48 eta NAZI-C48 hiztunek esaldiari esanahia aldatu diote eta horregatik, azterketatik kanpo utzi ditugu. MAAL-C48 hiztunak forma enfatikoa darabil honetan, beraz, azterketatik at gelditu da.

aukeratu dute forma ez indartua egitura honetan nahiz eta aitzindaria ez izan subjektu, OZ edo ZO, eta aditzean beharrezkoa den komunztadura marka ez eragin.

- **C49:**

C48-n bezala, hemen ere aitzindaria Postposizio Sintagma batean txertaturik dago (beraz, ez du komunztadurarik eragingo aditz jokatuan eta ez da perpausaren topiko nagusia izango). Frantsesezko jatorrizko bertsoan C48 eta C49 esaldien arteko ezberdintasuna hitz hurrenkeran datza: C48-n aitzindaria izenordainaren aurretik agertzen da eta C49-n, aldiz, kontrako hitz hurrenkera dugu. Hala ere, C49ren euskarazko itzulpenetan hiztunek ez dute beti frantsesezko jatorrizko esaldiak zuen hitz hurrenkera mantendu. Hori dela eta, eta honek eraginik duen aztertzeke, gure analisisian hiztunen datuak aldagai honen arabera bi multzotan banatu ditugu.<sup>47</sup>

- **C49A)**

[Nik Peiorekin<sub>i</sub> [POS<sub>i</sub> txakurraz] hitz egin dut]

*J'ai parlé de son chien avec Peio (le chien de Peio)*

[P<sub>1</sub> [POS.sg.i ....]PS ...[ AITZINDARIA<sub>i</sub>]PS ....Adlg[-i]..... ]<sup>48</sup>

Aztertutako 53 hiztunetatik 27 izan dira jatorrizko esaldi frantsesaren hurrenkera mantendu dutenak, izenordaina biltzen duen osagaia aitzindaria biltzen duen osagaiaren aurretik emanez; hona hemen adibide batzuk:

(56) *Aren xakurraz mintzo naiz Peioikin (LOUSEN, C49).*

(57) *Haen txakürraz mintzatü nük Peioekilan (GERBAR, C49).*

(58) *Bere zakurraz mintzatu naiz Pellorekin (PIEGE, C49).*

(59) *Mintzatu niz bere txakurraz Peiorekilan (ANIZ, C49).*


27 hauetatik 6-k aditza eta izenordaina biltzen duen osagaiaren arteko hurrenkera aldatu badute ere, multzo berean sartu ditut (ik. (59). adibidea), izenordaina aitzindariaren

---

<sup>47</sup> C49an orotara XALEZ-C49, LAUSA-C49 eta PELO-C49 azterketatik kanpo gelditu dira perpausaren egitura aldatu dutelako. Horrez gain, perpaus honetan hiru hiztunek forma enfatikoa erabili dute eta beraz, kanpo gelditu dira: YOSAN-C49, MAAL-C49 eta XABAI-C49.

<sup>48</sup> Atal honetan aztertu diren egitura garrantzizkoenak ematen dira. C49 honetan, hiztunen erdiak joera bat jarraitu du eta beste erdiak beste bat, eta beraz, bi egiturak aztertu dira. C53an ere, alde batetik espero dugun egitura daukagu eta bestetik, hiztun gehienek erakutsi duten joera.

aurretik doalako beti. 27 hauetatik 22-k forma indartua erabili dute (hau da, %81,48ak) eta 5-ek (%18,52ak), berriz, forma arrunta.



Grafikoa 7: C49A-n aztertutako 27 hitzunek izandako joeren emaitzen portzentaiak. Jatorrizko esaldi frantsesaren hitz hurrenkera mantendu dutenak ( POS > AITZINDARI).


- **C49B)**

[P<sub>1</sub> [ AITZINDARIA<sub>i</sub>]PS.....Adlg[-i],.....[POS.sg.i ....]PS ]

Aztertutako 53 hitzunetatik beste 26k hitz hurrenkera modu batean edo bestean aldatu egin dute, izenordainaren kokalekua aitzindariaren atzera mugituz eta, beraz, itzularazteko eman zitzaizen esaldiaren hitz hurrenkera aldatuz:


- (60) Polloeki elhestatzen gütützü *haen* tzakürraz (REES, C49).
- (61) Peiorekin mintzatu niz *bere* zakurraz (GRAAR, C49).
- (62) Mintzatü niz Peiorekin *bere* tzakuraz (ADBAR, C49).
- (63) Peiorekin *bere* zakurraz mintzatu naiz (MIMU, C49).
- (64) Peioekila *hain* txakürraz elhestatü gütützü (MAILA, C49).

26 hitzunetatik 24-k (%92, 31-k) forma indartua erabili dute eta beste 2-ek (%7, 69, ik. (60) eta (64) adibideak) ordea, *haren* forma arruntaren aldaera bat.



Grafikoa 8: C49B ATZINDARIA > POS hurrenkera duten hiztunek izandako joera.

C49A eta C49B egiturak erkatzen baditugu, emaitzen artean alde nabaria dagoela ikusten dugu: forma indartuen erabilera handiagoa da aitzindaria izenordainaren aurretik doanean (% 92,31) alderantzizko hitz hurrenkera dagoenean baino (%81,48). Nahiz eta aitzindaria kasu hauetan ez den topiko nagusia, baliteke diskurtsoaren mailako fenomenoekin loturik egotea, Rebuschik proposatutako ildotik.



Grafikoa 9: C49A vs. C49B

Laburbilduz eta orokortuz, C49 perpaus honetan perpaus mota ugari egon arren, C49A eta C49Bren datuak batzen baditugu hiztun gehienek (46-k) forma indartua erabili dute.

- **C50<sup>49</sup>**

C50 aurreko bi perpausen ezaugarriak ditu (aitzindaria ez da subjektu, OZ edo ZO, eta ez du komunztadurarik eragiten aditz jokatuan). C48 esaldiaren kasuan bezala, jatorrizko frantsesezko esaldian aitzindaria izenordainaren aurretik agertzen da. Dagoen ezberdintasuna da kasu hauetan aitzindaria eta izenordaina pluralak direla. Lehen multzoko emaitzetan ikusi dugun bezala, *bere*-ren erabilera eremu guztietara zabaltzen ari dela pentsa bazitekeen ere, alde nabaria dago forma singularra eta pluralen artean (ik. C47): kasu honetan aztertutako 42 hiztunetatik<sup>50</sup> hiztun erdiek (%50-ek) *haien*-en forma


<sup>49</sup> Gorago esan bezala esaldi honen itzulpenetan, hiztun batzuek aditza hasiera-hasieran jarri dute, beste batzuek erdian eta beste batzuek bukaeran, baina aitzindaria izenordain genitiboaren aurrean agertzen da beti (3 hiztun salbu eta hauek beherago aztertuko dira: REES-C50, PIEPA-C50 eta PABA-C50).

<sup>50</sup> MADON-C50, ANIZ-C50, JOBAN-C50, YOSAN-C50, XAAN-C50, LAUSA-C50, ANHAZ-C50, IOSEN-C50, JOSA-C50, IBA-C50, KABA-C50, PEOLO-C50 eta ABE-C50, hiztunak azterketatik kanpo utzi ditugu esanahia aldatu diotelako perpausari edota izenordainik eman ez dutelako. Hemen ere, forma enfatikoa eman duen XABAI kanpo utzi dugu.




arruntaren aldaeraren bat erabili dute eta beste erdiek (%50-ek) (ik. 1. eransk eta 7. grafikoa):

- (65) Peio eta Madditaz mintzatu naiz aien lagunekin. (AKAN, C50).
- (66) Peio eta Madditaz hitz egin dut aien lagunekin. (LUIDO, C50).
- (67) Peio eta Madditaz mintzatu niz beren lagunekin (JOAI, C50).
- (68) Mintzatü niz Peio eta Madditaz *ben* lagüneki (NAMAU, C50).
- (69) Pello ta Maddiz mintzatu naiz bere lagunekin. (JEDON, C50).



Grafikoa 10: C50-ean hiztunek izandako joera. (Izenordaina 3p. PL. da)

Forma indartua erabili dutenen artean (guztira 21 hiztun) 17 hiztunek *beren* edo *haren* aldaeraren bat erabili dute eta soilik 4-k *bere* edo *honen* aldaeraren bat. Hau da, hiztun guztietatik (42tik % 40,48ak *beren* forma berriena eta % 9,52ak *bere*. Forma indartuen arteko oposaketa, beraz, honako hau da:



Grafikoa 10: C50-ean forma indartuen arteko oposaketa (bere vs. beren)

Berriz ere, badirudi nahiz eta bi forma indartu erabili 3p.pl-en kasuan, Rebuschik *bere* lanetan aipatu bezala, hiztunek *beren* formaren aldeko joera argi bat erakutsi dutela.

Baliteke pluralari dagokion guda horretan azken forma hau aitzinako *bere*-ri eremua irabazten dabilela.

Gorago aipatu bezala, 3 hiztunek REES, PIEPA eta PABA, jatorrizko hitz hurrenkera aldatu dute eta IZORD > AITZIN hurrenkera erabili dute. Ondorio sendorik ateratzeko lagin txikiegia bada ere, aipagarria iruditu zaigu 3 hiztun hauek *haien* forma arruntaren aldaera bat erabili dutela forma indartua alde batera utziz.

(70) *Aien* lagunekin Peio eta Madditaz mintzatu naiz (PABA, C50).

(71) *Hen* adixkideki Maddi eta Peioz mintzatü niz (PIEPA, C50).

(72) Elhestatü niz hen adixkideki Pollo eta Madditzaz (REES, C50).

C47ko egituran bezala, C50-ean hiztun batzuek *bere* sg-erako eta *haien* pl-erako orokortuta dutela dirudi<sup>51</sup> eta iragan batean zegoen oposaketa (forma indartu vs. forma arruntaren artean) haiengan galdu egin dela ondorioztatzera eraman gaitzake. Hala ere, behin betiko ondoriorik atera baino lehen, lagin osoa era sakonean aztertu beharko litzateke.

<b>Bigarren multzoaren (C48-C50) emaitzak:</b>				
<b>Esaldia</b>	<b>C48</b>	<b>C49A</b>	<b>C49B</b>	<b>C50</b>
<b>LA-legearen arabera</b>	<i>Haren</i>	<i>Haren</i>	<i>haren</i>	<i>haien</i>
<b>Esaldiaren ezaugarriak eta aurkitu duguna</b>	Aitzindaria PostposizioS batean txertaturik. Komunztadurarik ez.  Hurrenkera: aitzindaria > izenordaina	Aitzindaria PostposizioS batean txertaturik. Komunztadurarik ez.  Hurrenkera: izenordaina > aitzindaria	Aitzindaria PostposizioS batean txertaturik. Komunztadurarik ez.  Hurrenkera: aitzindaria > izenordaina	Aitzindaria PostposizioS batean txertaturik. Komunztadurarik ez.  Aitzindaria eta izenordainak 3p.pl.

<sup>51</sup> C47 eta C50 biak forma arruntaz eta C44-C50 bitarteko beste perpausak forma indartuaz itzuli dituzten 11 hiztunak hauek dira: Koba, SEAI, XAAN, AKAN, PABA, PANZI, JOSA, LUIDO, GORBEA, MIMI eta IBAI.

	Aitzindaria ez da Subj, OZ edo ZO	Aitzindaria ez da Subj, OZ edo ZO	Aitzindaria ez da Subj, OZ edo ZO	Hurrenkera: aitzindaria > izenordaina
	Aitzindaria Topiko nagusia ez.	Aitzindaria Top nagusia ez	Aitzindaria Top nagusia ez	A) Forma indartuak vs. indartuak
	56 Hiztun, bere %75 haren % 25	27 hiztun (53 hiztunen artean). bere % 81,48, haren % 18'52	26 hiztun (53 hiztunen artean). bere % 92,31, haren % 7,69	42 hiztun Forma indartuak ( <i>bere + beren</i> ) % 50 Forma ez indartuak, . Haien/heien, %50
				B) Forma indartuen banaketa 21 hiztun <i>bere</i> , % 19'04 <i>beren</i> %80'95

4. Taula: Bigarren multzoaren ezaugarri eta emaitzak.

(C48-C50) esaldiak aztertu ondoren, laginaren ezaugarriengatik tentuz bada ere, ondoko orokorpenak egin daitezke:

i) Lehen multzoko esaldietan bezala, multzo honetako esaldietan LA-legea bortxaturik aurkitu dugu: aitzindaria Posposizio Sintagma baten barruan txertaturik dago eta, beraz, ez da subjektu, objektu edo zehar objektua; hori dela eta, ezin du komuntadurarik eragin aditz jokatuan. Forma arruntak esperoko bagenitu ere, argi dago forma indartuaren (*bere/beren*) erabilera esparrua zabaldu dela, eta *haren* izenordainarena murriztu egin dela. Aitzindaria singularra denean forma indartuak kasu guztien %75-tik gorakoa da. Azpimarragarria da C49A eta C49B esaldien emaitzen erkaketa: forma indartuak gehiago erabiltzen dira aitzindaria izenordainaren aurretik doanean (%92,31) alderantzizko hurrenkera topatzen dugunean baino. Beraz, nahiz eta aitzindaria topiko nagusia ez izan, badirudi hurrenkerak (eta agian honekin loturik funtzio diskurtsiboek) eragina dutela forma arrunta edo indartuak aukeratzeko orduan.

ii) Berriro ere, forma indartuen erabilera apalagoa (%50) da forma pluralen kasua, hemen hiztunen erdiak bakarrik erabili duelako forma indartua.

ii) *Bere* vs. *beren*. Berriro ere, pluraleko forma indartuen artean, *beren*-ek *bere*-ri gaina hartu dio: %80,95 vs. 19,04. (Gogoan izan C47-n ere heren batek bakarrik erabiltzen zuela *bere* forma indartu pluraletarako).

## ■ HIRUGARREN PERPAUS MULTZOA

### • C51

Esaldi honetan aitzindaria subjektu ergatiboa izanik komunztadura eragiten du aditz jokatuan, eta komunztadura marka eta izenordaina perpauskide dira. Hau guztia kontuan harturik, LA-legearen arabera hemen forma indartua aurkitzea espero dugu eta hau da, hain zuzen ere, aurkitzen duguna: gure 56<sup>52</sup> hiztuneko laginetik, forma arrunta (*haren*) erabili duten bi hiztun alde batera utzita (JOBAN eta MAILA), beste guztiek (54-k, %96-k) *bere*-ren aldaeraren bat erabili dute. Hona hemen hiztunek emandako esaldi batzuk:

(73) Peiok *bere* xakurra il du, ez enea (JOAI, C51).

(74) Peiok *bere* xakurra il du, ez neria (LOUSEN, C51).

(75) Peiok hil du *bere* zakurra, ez enea (BELU, C51).

Salbuespenak direnez, bi hiztun hauen emaitzak arretaz aztertu ditugu. MAILA-k ekoiztutako esaldi guztiak aztertu ondoren ondorioztatu dugu hiztun honek *haren* forma arruntaren erabilera eremu guztietara orokortuta daukala (ik. 1. Eranskina). JOBAN-en kasuan, LA-legearen arabera forma indartua erabili behar den lau testuinguru morfosintaktikotik, JOBAN-ek huts egin du C51-ean eta forma ez indartua erabili du. Hala ere, hirugarren multzo honetan hiztun hau kontuan hartu den beste bi perpausetan (C52 eta C54ean) forma indartua erabili du.


(76) Peiok il du *aren* xakurra, ez enea. (JOBAN, C51).

(77) Peiok *haen* txakürra eho dizü, ez enia. (MAILA, C51).

Beste hiztun guztiek forma indartua erabili dute izenordainak erreferentziakide den aditzaren ERG marka dagoenean (ik. 11.grafikoa).

---

<sup>52</sup> Perpaus honetan MADON-C51 hiztuna azterketatik kanpo gelditu da esanahia aldatzeagatik. Beste alde batetik, YOSAN-C51 eta MAAL-C51 hiztuneko forma enfatikoa baliatu dute. Hortaz, ez dira aztertuko. Horrez gain, badira hainbat hiztun “baina” juntagailuarekin itzuli dutenak. Interesatzen zaigun egituraren eraginik ez duenez, besteekin batera aztertu dira hiztun hauek (XALEZ-C51, PIEGE-C51 eta ANHAZ-C51).



Hortaz, LA-legearen deskribapen klasikoaren baldintza betetzen denean eta aitzindaria subjektu ergatibo singularra denean forma indartua erabilera guztiz orokortua dagoela dirudi (%96).

Grafikoa 11: C51an hitzunek izandako joera erakusten duen grafikoa.

## • C52

C52-k C51-ko egitura bera errepikatzen du salbuespen batekin: hemen aitzindaria eta izenordaina 3.p. pl. dira, ez 3.p.sg. Aurreko egituraren forma indartuaren erabilera aurreikusten genuen, eta 3.p.sg-aren kasuan bi salbuespen alde batera utzita hitzun guztiek forma indartua erabiltzen zutela ikusi dugu. C52-n ere forma indartua aurkitzea espero dugu baina egoera oso bestelakoa da: hitzunen herenak baino gehiagok forma arrunta erabiltzera jo dute izenordain pluralaren kasuan. Egituraren ikuspuntutik (sintaxiaren ikuspuntutik) guztiz berdinak diren C51 eta C52en artean ikusten dugun aldea, beraz, berriro ere izenordainaren zenbakiarekin loturik dagoela dirudi: izenordain genitibo singular eta plurala ez dira berdin portatzen; hau da, hain zuzen ere, Duguinek bere lanean ohartarazi ziguna.


51<sup>53</sup> hitzuneko lagina hartu da kontuan azterketan eta orotara, 51 hitzun hauetatik 37-k LA-legea betetzeko espero dugun forma indartua erabili dute, hau da, % 72,54ak. 14 hitzunek, ordea, forma arrunta erabili dute espero dugunaren kontra (%27,46). Aitzindaria eta izenordainaren zenbaki gramatikala izan ezik, C51 eta C52 esaldiak guztiz berdinak direnez, C47 eta C50ren kasuan bezala bi egitura hauetan ikusten dugun desoreka elementu hauen zenbaki gramatikalarik loturik dagoela pentsatzera garamatza Duguinek (2003) bere lanean aipatu gisara.

(78) Peio eta Maddik *aien* lagunak zinemara ekarri dituzte, ez nereak. (AKAN, C52).

(79) Peio eta Maddik *eien* lagunak zinemara eramán dituzte eta ez nereak. (LUIDO, C52).

<sup>53</sup> JABI-C52, XALEZ-C52, IOSEN-C52, JOSA-C52, MAIAZ-C52, XAAN-C52, ABE-C52 eta ALAZI-C52 azterketatik kanpo gelditu dira esanahia aldatzeagatik edota izenordainik ez emateagatik.


(80) Peio eta Maddik ereman dituzte *bere* lagunak zinemara, bana ez eneak. (KOBA, C52).



Grafikoa 12: C52an aztertutako 51 hiztunek izandako joeraren grafikoa. Izenordaina 3P. PL.

Baina, aurreko zenbait egituratan bezala, forma indartua eta ez indartuaren arteko oposaketaz gain, bigarren oposaketa bat ere aurkitzen dugu hemen forma indartuari dagokionean: *bere* vs. *beren*.

Forma indartua erabili duten 37 horietatik 10-ek (%27,02-k) erabili dute *bere* formaren aldaeraren bat pluralerako, beste 27ek (%72,98), aldiz, *beren*-en aldaeraren bat.



Grafikoa 13: C52an forma indartua erabili duten 37 hiztunetatik bere vs. beren oposaketan izandako joeraren grafikoa.

- **C53**
  - **C53A)**

Adibide hauetan, goian azaldutako arrazoiengatik, lagina osatzen duten 44<sup>54</sup> hiztunetan forma ez indartua espero dugu C53A-n eta forma indartua berriz, C53B-n. Lehen hurrenkera jarraitu dutenen artean (hau da, frantseseko egitura jarraitu dutenen multzoan eta C53A deitu dugun horretan) guztira 8 hiztun ditugu: 4 esaldi ditugu (%50) forma ez indartuarekin eta 4 (%50) forma indartuarekin. C53B-eko hitz hurrenkera


<sup>54</sup> MADON-C53, XALEZ-C53, REES-C53, YOSAN-C53, ADBAR-C53, IOSEN-C53, EHEN-C53, JOAI-C53, JOSA-C53, IBA-C53, ABE-C53, AIBA-C53, ALAZI-C53 eta MAILA-C53 hiztunak azterketatik kanpo utzi dira esanahia aldatzeagatik edota guretzako interesgarria den egitura aldatzeagatik. GERBAR-C53 hiztunak forma enfatikoa darabil.

jarraitu dutenen artean (guztira 36 hiztun), berriz, 18-k (%50-ek) aukeratu dute forma ez indartua, eta 18-k (%50-ek) forma indartua.


Frantseseko egitura jarraitu dutenen artean, beraz, hiztunen %50 forma arruntaren alde jo du eta %50-ak forma indartuaren alde. Forma indartuetan %100-ak *beren* forma berrienaren aldeko joera egin. Hona hemen adibide batzuk:

(81) *Beren* burasoak dire Peio eta Maddi zinemarat ereman dituztenak baiñan ez nereak (ESHEN, C53A)

(82) *Hen* aitamak dira eta ez eniak Maddi ta Peio zinemarat ereman tuztenak (ANHAZ, C53A)



Grafikoa 14: C53A-n 22 hiztunek izandako joeraren grafikoa. Izenordaina 3p. pl.



Grafikoa 15: C53A-n hiztunek forma indartuaren erabilera

#### - C53B)

Bigarren egituran, C53B, goian azaldutako arrazoiengatik LA-legearen arabera espero dugun forma *bere* forma indartua da. Hona hemen hiztunek ekoiztutako esaldi batzuk.

(83) *Bere* aitetamek eta ez eniek titzie iaman Peio eta Maddi zinematat. (PIMUS, C53B)

(84) *Bere* burrasoek eta ez eniek, dituzte Peio eta Maddi zinemarat eraman. (GRAAR, C53B)

(85) *Beren* gurasoek eta ez eniek dituzte Peio ta Maddi lagundu zinemarat. (XALAI, C53B)

(86) *Aien* gurasoak dituzte, eta ez nereak, eraman Peio eta Maddi zinemara. (XABAI, C53B)

Orotara, egitura honekin itzuli dituzten 36 hiztunetatik 18-k (%50-ak) forma ez-indartua erabili dute. Beste 18 hiztunek (%50-k) forma indartuaren alde egin du. Forma pluraletan aurreko adibideetan zer gertatu den kontuan izanda, litekeena da forma ez-indartuaren erabilera hain altua izatearen arrazoia berriz ere izenordain plurala izatea. Bestela balitz, C51an bezala, hiztun gehienek forma indartua erabiliko lukete arrunta beharrean aditz laguntzaileak aitzindariaren erreferentziakide den marka morfologikoa baitu eta biok perpauskide dira.. Eragina izan dezakeen beste faktore bat, C49A eta C49B-


ren arteko aldeak ikusita, izenordaina eta aitzindariaren arteko hurrenkera da. Lehen, C49A eta C49B eztabaidatu ditugunean ikusi dugu aitzindaria izenordainaren aurretik agertzen denean forma indartuaren erabilera altuagoa dela alderantzizko hurrenkera dagoenean baino. Baliteke C53A-ko eta C53B-eko hurrenkera izenordaina aitzindariaren aurretik doanez honek forma indartuaren erabilera eragina izatea eta honengatik forma arrunten erabilera altuagoa izatea espero daitekeena baino.

(87) *Bere* burrasoek eman dute Peio eta Maddi zinemara, bana ez ene burrasoek (KOB, C53B)


(88) *Heien* aitamek dituzte Peio eta Maddi zinemara eraman, ez enek (SEAI, C53B).

(89) *Beren* gurasoek eraman dituzte Peio eta Maddi zinemara, ez nereek (NAZI, C53B).

Beste alde batetik, hemen ere forma indartuari dagokionez *bere* eta *beren* erabiltzen dira, baina forma indartua eman duten 11-k (lagin osoaren %69,75-k) *beren* edo haren aldaeraren bat erabili dute, (ik. (89)adib.) beste 5-ek (%31,25-ak), ordea, *bere* forma zaharra (87). Beraz, argi dago berriz oraindik ere bi forma hauek izenordainaren forma indartuaren aldaera bezala, aurreko kasuen gisara forma berrienak (*beren*-ek) indar gehiago duela *bere* forma zaharra baino.



Grafikoa 16: C53B-n 21 hitzunek izandako joeraren grafikoa. Izenordaina 3p. pl.



Grafikoa 17: C53B-n hitzunek forma indartuaren erabilera

2.2. Atalean azaldu bezala, C53B bezalako egiturengatik ondorioztatu zuen Rebuschik LA-legea ezin zitekeela Uztardura Teoriaren A eta B Printzipioetan oinarrituz azaldu. Izan ere, tankera honetako egituretan aitzindariak ez du izenordaina o-komandatzen eta, beraz, izenordain bihurkaria (izenordain indartua deitu dugun hori) uztartu gabe gelditzen da: hau da, aske gelditzen da bere uztardura eremuan (ik. 14. oinoharra). Hala ere, LA-legeak islatzen duen sisteman, egitura hauetan izenordainaren forma indartua aurkitzen dugu: hau da espero daitekeena kontuan hartuta izenordainak bere perpauseko aditz jokatuan berarekin indizekideturik dagoen komuntadura marka bat eskuragarri duela. C53Ben kasuan, halere, esaldien %42,



86-k, beste molde bat jarraitzen du. Honek argi islatzen du LA-legeak islatzen duen sistema ez dagoela gaur egun indarrean Iparraldeko hiztunen artean.

#### • C54

C54 esaldiaren kasuan, C53B-en bezala, izenordaina subjektu ergatiboan txertatuta dago eta DS-objektua den aitzindariaren aurretik doa. Bi ezberdintasun daude, halere C54 eta C53B erkatzen ditugunean. Batetik, C54-n, aitzindaria eta izenordaina singularrak dira. Bigarrenik, C54-n, aipatu dugun perpaus honen aurretik beste perpaus bat dugu, zeinetan aitzindaria ere agertzen den eta, subjektu ergatiboa izanik, topiko nagusi gisa interpreta daitekeen. Aitzindariaren bi agerpen ditugu, beraz: lehena, P1-ean, aitzindaria P2-n dagoen izenordainaren aurretik aurkitzen dugu; bigarren perpausuan, aldiz, izenordaina bigarren aitzindariaren aurretik agertzen da:  $\text{aitzindaria}_{P1} > \text{izenordaina} > \text{aitzindaria}_{P2}$ . LA-legeari jarraituz, forma indartua esperoko genuke hemen.

Esaldi honen emaitzak aztertzeko orduan, hiztunek emandako erantzunetatik 20 kendu dira<sup>55</sup> eskainitako erantzunek ez zituztelako betetzen bilatzen ziren esaldiaren ezaugarri sintaktikoak. Aztertu ditugun 39 esaldi hauetatik, 5 hiztunek *haren* forma erabili dute eta 34 hiztunek *bere* forma. Hau da, %12, 82ak forma arrunta eta %87, 18ak forma indartua.

(90) Pierre khexü düzü *be* tzakürrak usuki dizü. (REES, C54).

(91) Peio khexü da *bere* zakürrak usuki dü. (PIMUS, C54).<sup>56</sup>


(92) Pierre kolelan da. *Haen* tzakürrak isuki dü. (PIEPA, C54)

(93) Pierre koleran da. *Aren* zakurrak asiki du. (PIEGE, C54).

---


<sup>55</sup> JABI, MADON, XALEZ, MAIHE, REES, PIMUS, GRAAR, XALAI, KOBÁ, MOBA, MIMU, XABAI, JOAI, PANZI, LUIDO, MAIE, JOAINH, ABE eta KAU hiztunen esaldiak azterketatik kanpo utzi dira ez baitute aztertuko dugun egitura betetzen.

<sup>56</sup> Kasu honetan hiztunak ez ditu bi perpaus beregain bezala itzuli baina egitura bere horretan mantendu duenez, besteekin batera aztertu da.




Grafikoa 18: C54an hitzunek izandako joera.

Goian aipatu bezala lagina txikiegia bada ere inolako ondorio sakonik ateratzeko, C54 lehen multzoko perpausekin erkatzen badugu (non LA-legeak eskatutako baldintzak ez ziren betetzen aitzindaria/komunztadura marka eta izenordaina perpauskide ez zirelako) alde interesgarria dagoela ikusten dugu. C-47 alde batera utzita zenbaki pluralak dituen berezitasunengatik, C44-C46 esaldietan forma indartuen erabilera apalagoa da C54-n (*bere* %87,18) baino: C44: *bere* %82,76; C45: *bere* % 77,22; C46: *bere* %75,93. Beraz, alde txikia bada ere, badirudi LA-legearen baldintzak betetzea oraindik ere baduela eragina forma indartuen erabileran.




Grafikoa 19: C54 vs I. multzoko perpausak (forma indartuaren erabilera).

C54 bigarren multzoko esaldiekin erkatuz gero (eta berriro ere forma pluralak alde batera utzita), ikusten dugu aitzindariak komunztadura marka eragin ezin dezakeenean (postposizio batean txertaturik dagoelako), orokorrean forma indartuen erabilera apalagoa dela C54-n baino: C48: *bere* %75; C49A: *bere* % 81,48. Salbuespena den C49B-ren kasuan (*bere* % 92,31), lehen aipatu bezala, baliteke hitz hurrenkerak (aitzindaria > izenordaina) ere eragina izatea forma indartuen erabilera hauspotzeko orduan.



Grafikoa 20: C54 vs II. multzoko perpausak (forma indartuaren erabilera).

C51 eta C54 hirugarren multzoko perpausak beste multzoetako esaldiekin erkatzen baditugu (forma pluralak baztertuz), hemen ere ikusten duguna da forma indartuen erabilera altuagoa dela LA-legearen baldintzak betetzen direnean betetzen ez direnean baino: C51: *bere* %96, C54: *bere* %% 87,18.



Grafikoa 21: C54 vs 51(forma indartuaren erabilera).

Hirugarren multzo honetako analisisian oinarrituz, beraz, ondoko ondorioetara hel gaitzke:

<b>Hirugarren multzoko esaldien emaitzak (C51-C54):</b>					
Esaldia	C51	C52	C53A	C53B	C54
<b>LA-legearen arabera</b>	<i>bere</i>	<i>bere</i>	<i>haien</i>	<i>Bere</i>	<i>bere</i>
<b>Esaldiaren ezaugarriak eta aurkitu duguna</b>	Aitzindaria DS-ergatiboa. Komuntadura aditz jokatuan	Aitzindaria DS-ergatiboa. Komuntadura aditz jokatuan	Aitzindaria eta izenordaina ez dira perpauskide. Komuntadurarik ez.	Aitzindaria eta izenordaina perpauskide dira. Aitzindaria OZ eta izenordaina DS ergatiboan txertatua.	Aitzindaria P1 ean zein P2-n agertzen da.  P1-eko aitzindaria topiko nagusi

	<p>Hurrenkera: aitzindaria &gt; izenordaina</p> <p>Aitzindaria Topiko nagusi gisa interpreta liteke.</p> <p>54 Hitzun, <i>bere</i> %96</p> <p><i>haren</i> % 4</p>	<p>Hurrenkera: aitzindaria &gt; izenordaina</p> <p>Aitzindaria Topiko nagusi gisa interpreta liteke.</p> <p>Aitzindaria eta izenordainak 3p.pl.</p> <p>A) Forma indartuak vs. ez indartuak</p> <p>51 hitzun</p> <p>Forma indartua (<i>bere + beren</i>): % 72,54,</p> <p>Forma ez indartua: % 27,46</p> <p>B) Forma indartuen banaketa</p> <p>37 hitzun</p> <p><i>bere</i>, % 27,02</p> <p><i>beren</i> % %72,98</p>	<p>Hurrenkera: izordaina &gt; aitzindaria</p> <p>Aitzindaria Top nagusia ez</p> <p>Aitzindaria eta izenordainak 3p.pl.</p> <p>A) Forma indartu vs. ez indartuak</p> <p>8 hitzun .</p> <p><i>Haien</i>: %50</p> <p>Forma indartua (<i>bere + beren</i>): % 50</p> <p>B) Forma indartuen arteko oposaketa.</p> <p>Beren: % 100</p> <p>Bere: %0</p>	<p>Komunztadura aditz jokatuan.</p> <p>Hurrenkera: izordaina &gt; aitzindaria</p> <p>Aitzindaria Top nagusia ez</p> <p>Aitzindaria eta izenordainak 3p.pl.</p> <p>A) Forma indartu vs. ez indartuak</p> <p>36 hitzun .</p> <p><i>Haien</i>: %50</p> <p>Forma indartua (<i>bere + beren</i>): % 50</p> <p>B) Forma indartuen arteko oposaketa</p> <p>Beren: %68,75</p> <p>Bere: %31.25</p>	<p>gisa interpreta daiteke. P2-n komunztadura aditz jokatuan.</p> <p>Hitz hurrenkera:</p> <p>Aitzindaria<sub>P1</sub> &gt; izenordaina &gt; aitzindaria<sub>P2</sub>.</p> <p>39 hitzun.</p> <p><i>Haren</i>: % 12,82</p> <p><i>Bere</i>: % 87,18</p>
--	--	--	--	---	--

5. Taula. Hirugarren multzoko ezaugarri eta emaitzak.

(C51-C54) esaldiak aztertu ondoren, laginaren tamaina eta ezaugarriengatik tentuz bada ere, ondoko orokorpenetara heldu gara.

i) LA-legearen baldintzak betetzen direnean, forma indartuen erabilera altuagoa da LA-legearen baldintzak betetzen ez direnean baino.

ii) Forma plural indartuak. Forma indartu pluralaren kasuan, LA-legearen baldintza guztiak betetzen direnean ere, forma plural indartuaren erabilera apalagoa da antzeko testuinguruetan aurkitzen dugun forma singular indartuarena baino.

Hala ere, forma plural indartuaren kasuetan, aztertutako hiru multzoetako forma plural indartuen erabilerarik handiena 3 multzoan aurkitu dugu:

a. Batetik, forma plural indartuen erabilerarik handiena LA-legearen baldintzak betetzen dituen hirugarren multzoko C52-n aurkitu dugu: %72,54. Aipatzekoa da C52-k LA-baldintza guztiak betetzeaz gain, aitzindari > izenordaina hurrenkera daukala, eta aitzindaria topiko gisa interpreta daitekeela.

Ildo beretik, C53A eta C53B erkatzen baditugu, forma arrunten erabilera berdina da LA-legearen baldintzak betetzen dituen C53B-ren kasuan (*Haien*: %50), lege honen baldintzak betetzen ez dituen C53A-ren kasuan baino (*haien* %50).

b. Nahiz eta hirugarren multzoko C52-n eta C53B-en forma plural indartuen erabilerarako eskatzen diren baldintza guztiak bete, C53B-ren kasuan forma plural indartuaren erabilera askoz apalagoa da: C53B: % 50; C52: %72,54. Litekeena da bi esaldi hauen arteko aldea hitz hurrenkerarekin loturik egotea, C52-k aitzindaria > izenordaina hitz hurrenkera duen bitartean, C53B-ek kontrako hurrenkera dauka: izenordaina > aitzindaria.

iii) *Bere* vs. *beren*. Berriro ere, pluraleko forma indartuen artean, *beren*-ek *bere*-ri gaina hartu dio: C52: *bere*, % 27,02 vs. *beren* % 72,98; C53: % 15,625. *Beren*: % 84,375.

### 3.2.2. LA-legea belaunaldiz belaunaldi <sup>57</sup>

Aurreko atalean gaur egungo LA-legearen gaur egungo egoeraren ikuspegi orokor bat eman digu. Hala ere, fenomenoaren bilakabidearen ikuspegi zehatzago bat izateko bestelako azterketa bat behar dugu, lagineko belaunaldi bakoitzaren jarrera islatzen duena. Helburu honekin, atal honetan corpusak jasotzen dituen hiru belaunaldietako

---

<sup>57</sup> Lehen eta bigarren belaunaldiko hiztun guztien ama hizkuntza euskara denez eta denak frantsesez eskolatuak izan direnez, alde batetik, eta hirugarren belaunaldiari bakarrik dagokionez honi buruzko bariazioa, ez ditugu bi aldagai hauek eztabaidatuko belaunaldiei buruzko eztabaidan eta lan honetatik kanpo utziko ditugu.

hiztunak bereizi egin ditut eta belaunaldi bakoitzaren jarrerak aztertu ditut. Belaunaldien bereizketa honelakoa da: 1. Belaunaldia (70 urtetik gorakoak), 2. Belaunaldia (40-60 bitartekoak) eta 3. Belaunaldia (30 urtetik beherakoak).

### 3.2.2.1. Lehenengo belaunaldia

Lagin osotik 15 baino ez dira belaunaldi honen barruan sartzen. Belaunaldi honetako hiztun guztiek tipologia bera daukate; euskara ama hizkuntza dute eta eskola frantsesera joanak dira guztiak. LA-legearen sistema klasikoa betetzeko espero dugun jokaera ondokoa da:

	C44	C45	C46	C47	C48	C49A	C49B	C50	C51	C52	C53A	C53B	C54
LA	H	H	H	H	H	H	H	H	B	B	H	B	B

6. Taula. LA-legearen sistema klasikoaren arabera espero ditugun emaitzak.

7. taulan ikusi dezakegunez, belaunaldi honetan bi joera argi daude. Batzuek nahiko hertsiki jarraitzen dute LA-legearen sistema klasikoa eta beste batzuek, berriz, forma indartuaren erabilera eremua zabaldu izanaren joera erakusten dute:<sup>58</sup>

HIZTUNA	C44	C45	C46	C47	C48	C49A	C49B	C50	C51	C52	C53A	C53B	C54
ESHEN	X	X	B	B	B		B	B	B	B	BN		B
JABI	X	X	X	BN	B	B		BN	B	X		H	B
MADON	X	H	H	BN	H	H		X	B	BN	X	X	X
LOUSEN	X	H	H	X	H	H		X	B	BN		H	B
GERBAR	X	H	H	H	H	H		X	B	BN	X	X	B
XALEZ	X	H	H	H	B	X	X	X	BN	X	X	X	X
ANIZ	X	H	H	BN	H	B		H	B	B		B	B

<sup>58</sup> C44tikC54ra doazen esaldietan horiz agertzen direnek izenordaina plurala dela adierazten dute. Gorriz ageri diren ixek azterketan kanpo utzitakoa adierazten dute. Horrez gain, laukien koloreek hau esan nahi dute: urdinez forma indartua orokortuta dutenak; berdez LA-legea hein batean betetzen dutenak; horiz LA-legea jarraitu arren haustura nabariak egiten dituztenak. 6vs43vs2,8vs23vs2

<b>MAIHE</b>	B	B	B	B	B		B	B	BN	BN		BN	B
<b>BELU</b>	B	B	B	BN	H		B	H	B	B		B	B
<b>REES</b>	H	H	H	X	H		H	H	B	BN	X	X	B
<b>PIEPA</b>	H	H	H	H	H		B	H	B	B		H	H
<b>PIEGE</b>	H	H	H	BN	X	B		H	B	B		H	H
<b>JOBAN</b>	H	H	X	X	H	H		X	H	BN		H	B
<b>ADBAR</b>	B	B	B	B	B		B	BN	B	BN	X	X	B
<b>XLEAHA</b>	B	B	B	BN	B		B	BN	B	BN		BN	B

7. taula: Lehenengo belaunaldiaren emaitzak. <sup>59</sup>

7. taulari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu dagoeneko gure lehenengo belaunaldirako 6<sup>60</sup> hitzunek (ikus. urdinez daudenak 7.taulan) guztiz galdua dutela LA-legea ezagutzen dugun moduan (%40ak). Kontuan izanda talde honetako hitzun guztiak euskaldun zaharrak omen direla eta denak izan direla frantsesez eskolatuak (ik. 2. Eranskina) euskalduntze motak eta eskolak ezin dute ezberdintasun honen azalpenik eman. Beraz, emaitzak baldintzatzen dituzten faktoreak bestelakoak izan behar dira. Berriz ere 2. Eranskinari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu hirian bizi diren 8 hitzuntetatik 6 direla LA-legea guztiz galduta daukatena (hau da, hirian bizi direnen %75a). Hirian bizi baina oraindik galdu gabe duten bakarrak PIEPA eta JOBAN hitzunik ditugu. Besteek forma indartua testuinguru guztietara orokortuta daukate:

Hauen kasuan, zalantzarik gabe Duguinek aurrez proposatutako jokaera erakusten da, zeinetan forma indartuaren erabilera-eremua zabaldu egin den forma arruntarenaren kaltean. Adibidez, ADBAR hitzunik ondoko itzulpenak eman ditu:

- (94) Xabi eta Beñatek erran diote Peiori ikus zutela bere arreba (ADBAR, C45)
- (95) Maddik eta Peiok uste dute berre laguna eri dela (ADBAR, C47)
- (96) Mintzatü niz Peiorekin bere tzakuraz (ADBAR, C49).

<sup>59</sup> Kolore berderz LA-legea mantentzen dutenak, kolore urdinez forma indartua orokortuta dutenak eta kolore horiz nahasketa dutenak eta bilakaera jasaten hasiak direla erakusten dutenak.

<sup>60</sup> ESHEN, JABI, MAIHE, BELU, ADBAR ETA XLEAHA hitzunik.

- (97) Mintzatü niz Peio eta Madditzaz *beren* adixkidierekin (ADBAR, C50).
- (98) Peiok hil du bere txakurra, ez enia (ADBAR, C51)
- (99) Peio eta Maddik eraman dituzte *berren* adixkidiak zinematat, eta ez eniak (ADBAR, C52)

ADBAR hiztunaren adibide hauekin ikus daiteke nola berak guztiz orokortuta daukan *bere* forma indartua ikerketa honetan aztertu diren egitura guztietara. Berdina gertatzen da aurrez aipatu diren beste 5 hiztun horiekin.

Kontuan izanda LA legea galduta duten hiztunen kopururik handiena hirietan bizi direla, eta hirietan euskararen erabilera oso baxua dela, izan liteke galera hau euskarak hirietan bizi duen egoerak baldintzatuta egotea. Hala ere, ikerketa sakonago bat beharko genuke jakiteko zenbateraino eta zein eremutan hitz egiten duten euskaraz hiztun hauek beraine eguneroko bizitzan.

Bestalde, 1. belaunaldi honetako beste hiztun batzuek aldaketa pairatzen hasiak direla erakusten dute nahiz eta aldaketa/galera hau ez izan guztiz orokortuta. Orotara 4<sup>61</sup> hiztun dira (laginaren %26,7). Hauen artean ANIZ hiztuna daukagu. Berak LA-legea nahiko mantentzen duen arren, C47 eta C49 esaldietan *bere* erabili du.

- (100) Maddik eta Peiok uste dute *beren* laguna eri dela (ANIZ, C47).
- (101) Mintzatu niz bere txakurraz Peiorekilan (ANIZ, C49)

Lehen adibidean, C47-ANIZ, forma indartua hautatu da nahiz eta mendeko perpausean forma hau baimen dezakeen komunztadura markarik ez egon. Perpaus honetan aitzindaria perpaus nagusian subjektu gisa agertzen denez, pentsa liteke fenomeno sintaktikoa izatetik diskurtsoarekin lotuta egotera igaro dela, aitzindaria diskurtso mailako topiko nagusia litzatekeelako. Hau ez da halere C49-ko egoera: hemen aitzindaria —POSTS baten barruan agertzen denez eta are gehiago esaldiaren bukaeran agertzen denez, izenordainaren atzetik—, ez delako ez topiko nagusia ez bestelako topikoa Beraz, baliteke hiztun honen kasuan *bere*-ren erabilera eremua zabaltzen hasia izatea, C47 bezalako testuinguruetatik testuinguru guztietara.

Aurrekoekin bezala, pentsa liteke 4 hiztun hauen aldaketaren hasiera haien ezaugarri soziolinguistikoetan oinarrituta egotea baina 2. Eranskinari erreparatzen badiogu ikusi

---

<sup>61</sup> XALEZ, ANIZ, PIEPA eta PIEGE.



dezakegu nola ez dirudien hiztun hauek ezaugarririk dutenik komunean. Batzuk baserrian eta besteak hirian bizi dira. Euskalkiari/lurraldeari erreparatzen badiogu ere, 4 hiztun hauen artean 3 euskalkietako/lurraldetako laginak dauzkagu. Beraz, ez dirudi faktore horiek hiztun hauen emaitzen ezaugarriak azal ditzaketen bere kabuz. Zehatzago esanda, badirudi aldaketa Ipar Euskal Herri osoan gertatzen ari den eta nahiko zabaldua den zerbait dela.

Azkenik, belaunaldi honen % 33,33-ak LA-legea hertsiki mantentzen du gaur egun ere. Hiztun hauen tipologiari erreparatuz, 5<sup>62</sup> hiztunetatik 4 baserrian bizi dira, bakarra hirian. Hiztun hauei buruzko informazio nahikorik ez dugunez, zaila da egoera hau azal dezakeen hipotesirik proposatzea, baina lehen hirietan bizi ziren hiztunen kasuan bezala, badirudi kasu honetan ere bizilekuak eta bizileku honek euskararen erabileran inposatzen dituen baldintza guztiek eragina izatea hiztun hauen euskararen ezaugarrietan.

Forma indartuari dagokionez, belaunaldi honek *bere/beren* oposaketan daukan joera beren formaren aldekoa da (%66,66ak darabil).

Laburbilduz, belaunaldi honetan hiru joera ezberdin aurkitu ditugu. Alde batetik, Duguinek (2003) bere azterketan H2 belaunaldiarekin aurkitu zuen bilakaera gertatzen ari dela ikusi dugu: forma indartuaren orokortzea. Gure lagineko hiztunen % 40-ak forma indartua testuinguru guztietara orokortuta dauka. Beraz, badirudi aurrez 1. eta 2. pertsonekin gertatu bezala, LA-legeak 3. pertsonako izenordainekin aspaldi hasitako bilakaera aurrera doala, kasu honetan forma indartuaren alde. Beste alde batetik, baditugu tarteko egoeran dauden beste hiztun multzo bat: multzo honek hein batean LA-legea mantentzen badu ere, LA-legearen baldintzak betetzen ez dituzten beste testuinguruetara ere zabaltzen dute forma indartuaren erabilera (%26,7). Azkenik, LA-legea mantentzen duten hiztunen taldea dugu, laginaren % 33,33 direnak.

---

<sup>62</sup> MADON, LOUSEN, GERBAR, REES eta JOBAN, azken hau hirian bizi da.

### 3.2.2.2 Bigarren belaunaldia

Adin tarte honetako lagina murrizten da, guztira 12 hiztun baino ez baitira adin tarte honetakoak. Gainera, 8. taulan ikus dezakegun bezala, 9-k (%75-k) forma indartua bakarrik erabiltzen dute ingurune guztietan<sup>63</sup>.

HIZTUNA	C44	C45	C46	C47	C48	C49A	C49B	C50	C51	C52	C53 A	C53 B	C54
JEDON	B	B	B	B	B	B		B	B	B		H	B
RAZI	B	B	B	BN	B		B	H	B	H		H	B
YOSAN	X	H	H	BN	H	X	X	X	B	BN	X	X	B
PIMUS	B	B	B	B	B	B		B	B	BN		B	B
GRAAR	B	B	B	BN	B		B	BN	B	BN		BN	B
XALAI	B	B	B	B	B		B	BN	B	BN		BN	X
KOBA	B	B	B	H	B	B		H	B	B		B	X
MOBA	B	B	B	BN	B	B		BN	B	BN		BN	B
BERLA	B	B	B	BN	B	B		BN	B	BN		BN	B
MIMU	B	B	B	BN	B		B	BN	B	BN	BN		B
KADO	B	B	X	B	B		B	B	B	B		B	B
EHI	B	B	B	B	B	B		B	B	BN	BN		B

8. Taula: Bigarren belaunaldiaren jokaera

Beraz, esan daiteke belaunaldi honetako hiztun gehienek forma indartuaren erabilera eremua guztiz orokortuta dutela testuinguru guztietara.

Beste hiru hiztunei dagokienez bi jokaera ezberdin bereizi daitezke. Alde batetik, RAZI eta KOBA hiztunak ditugu. Hauek, pluralerako forma arrunta onartzen dutela dirudi nahiz

<sup>63</sup> Taula honetako urdin eta berde koloreek 7. taulako gauza bera adierazten dute. Larrosa koloreak, berriz, belaunaldi honetan hasten hasi den aldaketa baten adierazle da: Sg. Vs. pl. Oposaketaren zantzuak dituzten hiztunen adierazle.

eta ez bata ez besteak ez duten forma arrunta bakarrik erabili pluraleko esaldi guztietan. Gogoan izan gorago ikusi dugun bezala, aitzindaria plurala denean forma indartuen erabilera apalagoa dela aitzindaria singularra denean baino. Bi hiztun hauen emaitza hauek joera orokorrago horren isla liteke. Hala ere, badirudi oraindik ere belaunaldi honetan joera hau ez dagoela guztiz orokortua, lehen datu orokorrek aztertu ditugunean ikusi dugun bezala, eta orain, RAZI-ren emaitzak aztertzean berriro ere ikusten dugunez. Izan ere, RAZI-k, adibidez, C50-ean eta C52-n forma indartua espero dugunean forma arrunta darabil (ikus. 1 taula) baina C47an berriz, arrunta espero dugunean forma indartua darabil (agian goian aipatutako aitzindariak topiko gisa interpretatua izateko gaitasunagatik):

- (102) Peio ta Maddik uste ute *beren laguna eri dela* (RAZI, C47).
- (103) Peio eta Madditaz *mintzatu naiz eien* lagunekin (RAZI, C50)
- (104) Peio eta Maddi *eien* lagunak zinemara *eraman dituzte*, ez nereak (RAZI, C52).


KOBA hiztunaren emaitzek antzeko egoera bat islatzen dute. Hiztun honek orokortuta ditu forma indartuak, salbu aitzindaria plurala den kasuetan:

- (105) Maddi ta Peiok *uste dute aien* laguna eri dela (KOBA, C47).
- (106) Peio ta Mariz *mintzatu gira aien* lagun batzuekin (KOBA, C50).

Beste aldetik, YOSAN hiztunak, LA-legea hertsiki mantentzen ez duen arren, badirudi orokorrean iraganeko joera mantentzen duela nahiz eta C47an perpausean forma indartuaren aldeko joera erakutsi duen arrunta espero genuenean (ikus. (107) adib.). Kontuan hartu behar da hala ere kasu honetan aitzindaria topiko nagusia izan daitekeela, eta goian eztabaidatu dugun bezala baliteke hau aldeko faktore bat izatea forma indartuak baimentzeko.


- (107) Maddi eta Peiok *uste dizij been* lagûna ei dela (YOSAN, C47).

Gauzak hobeto ikusteko ondoko grafikoak bigarren belaunaldi honen joera erakusten du:



Grafikoa 22: Bigarren belaunaldiaren joera

Laburbilduz, belaunaldi honetako hiztunek dagoeneko Duguinek esan bezala orokortuta daukate forma indartua egitura guztietara (aurkeztutako salbuespenak salbuespen). *Bere/beren* oposaketari dagokionez, ondoko taulak argi erakusten du belaunaldi honetan *beren* forma gailentzen bada ere, bien erabilera nahiko parekoa dela:



Grafikoa 23: Bigarren belaunaldiak bere/beren-ekiko erakusten duen joera

Lehenengo belaunaldiaren emaitzekin alderatzen badugu, *beren* formaren alde egin dutenen kopurua jaitsi dela ikusi ahal dugu.

### 3.2.2.3 Hirugarren belaunaldia

Talde honetan dago laginaren talderik handiena: 32 hiztun. Aurreko bi belaunaldietan bezala, talde honetan ere joera ezberdinak aurkitu ditugu, nahiz eta orokorrean belaunaldi honetan aurkitu ditugunak ez diren beste bi belaunaldietan agertu diren joera berdinak. Hirugarren belaunaldiak erakutsi dituen joera nagusiak hauexek dira: i) batetik, *bere* izenordain indartua ingurune guztietara hedatu dute, eta ii) Izenordainen sistemaren berrantolaketa bat eraman dute aurrera: hots, *bere* singularrerako eta *haien* pluralerako erabiltzen dute, forma indartu eta ez indartuen arteko oposaketarik gabe. Aipagarria da belaunaldi honetan dagoeneko ez dagoela LA-legea sistema klasikoan deskribatzen den

bezala jarraitzen duen hiztunik, nahiz eta 5<sup>64</sup> hiztunek oraindik jatorrizko sistemaren zantzuak erakutsi.

HIZT.	C44	C4 5	C46	C47	C48	C49 A	C4 9B	C50	C51	C52	C53A	C5 3B	C5 4
MAAL	H	B	B	BN	B		B	BN	B	BN		BN	B
SEAI	B	B	B	H	B	B		H	B	H		H	B
XAAN	X	B	B	H	B	H		H	B	X		BN	B
XABAI	B	B	B	H	B	H		ENF	B	H		H	B
LAUSA	B	B	B	B	B	H		H	B	H		H	B
ANHAZ	B	B	B	BN	B	X	X	H	B	BN	H		B
IOSEN	B	B	B	ENF	H	B		H	B	H	X	X	B
BEDO	B	B	B	BN	B		B	BN	B	BN	BN		B
MAIAZ	B	B	B	BN	B		B	H	B	X		BN	B
NAZI	B	B	B	BN	B		H	BN	B	BN		BN	B
AKAN	B	B	B	H	B		B	H	B	H	H		B
EHEN	H	H	B	BN	B	B		H	B	BN	X	X	H
PABA	B	B	B	H	B	H		H	B	H		H	B
JOAI	B	B	B	BN	B		B	BN	B	BN	X	X	B
PANZI	B	B	B	H	B		B	H	B	H	H		B
JOSA	B	B	B	H	B	B		H	B	H	X	X	B
LUIDO	B	B	B	H	B		B	H	B	H		H	B
MAIE	B	H	B	BN	B	X	X	H	B	BN		H	B
NAMAU	B	X	B	BN	B	B		BN	B	BN		H	B

<sup>64</sup> EHEN, JOAIHN, AIBA, ALAZI eta KAU-k.

<b>IBA</b>	B	B	B	B	B		B	X	B	B	X	X	B
<b>KABA</b>	B	B	B	ENF	B		B	B	B	H		H	B
<b>PEOLO</b>	B	B	X	B	B	B		B	B	B		B	B
<b>JOAINH</b>	X	H	X	BN	B	B		H	B	BN	H		X
<b>GORBA</b>	B	B	B	H	B	B		H	B	H		H	B
<b>ABE</b>	B	B	B	H	B		B	X	B	H	X	X	B
<b>AIBA</b>	B	B	H	H	H		B	H	B	H	X	X	H
<b>XILA</b>	B	B	B	B	B	B		BN	B	BN		BN	B
<b>ALAZI</b>	B	H	B	BN	H	X	X	H	B	H	X	X	B
<b>MIMI</b>	B	B	B	H	B	B		H	B	H		H	B
<b>KAU</b>	X	H	H	BN	H	B		H	B	BN		H	X
<b>IBAI</b>	B	B	B	H	B		B	H	B	H		B	B
<b>MAILA</b>	ENF	H	H	H	H		B	H	H	H	X	X	H

9. Taula: Hirugarren belaunaldiaren joera<sup>65</sup>

Aipaturiko lehenengo joerari dagokionez, 9. taula erreparatzen badugu ikusiko dugu 9 hiztunek erakutsi dutela forma indartua testuinguru morfosintaktiko guztietara orokortuta izatea (urdinez adierazita taulan)<sup>66</sup>. Hiztun hauek badirudi beti, edozein testuinguru izanda ere, forma indartua onetsi egiten dutela. Beraz, pentsa liteke, aurreko belaunaldiko hiztunen forma indartuen aldeko joera indartu eta areagotu egin dutela dutela eta forma indartuen erabilera-eremu testuinguru guztietara zabaldu egin dutela, forma arruntaren kaltean. Multzo honetako hiztun gehienek (6-k) forma indartua erabili dute beti. Adibidez:

<sup>65</sup> Hauek dira taulan honetako koloreen esanahiak: Berdez LA oraindik hein batean betetzen dutenak, urdinez forma indartua orokortuta dutenak, laranja sg vs. pl. Oposaketa dutenak, larrosak forma indartua orokortuta izatetik> sg. Vs. pl. Oposaketarantz doazenak eta azkenik, moreak (MAILA hiztunak) forma arruntaren orokortzea.

<sup>66</sup> MAAL, PEOLO, BEDO, NAZI, JOAI, NAMAU, IBA eta XILA-k.

Salbuespen bakarrak MAAL, MAIAZ eta NAMAU dira. Hiru hauek bakoitzak esaldi bat forma arruntaz itzuli dute:

(108) Pierra kexü düzü. *Hain* tzakürra eho dit (MAAL, C44).

(109) Peio eta Madditaz aritu naiz aien lagunekin (MAIAZ, C50).

(110) *Hen* aitetamek, eta ez eniek, iaman tütie Maddi eta Peio zinemailat (NAMAU, C53B).

Hiru kasu hauetan LA-legearen arabera forma arrunta espero zenean hiztunok forma arrunta baliatu dute LA-legea betez. Pentsa liteke hiztun hauek forma indartua orokortzeko bidean daudela oraindik baina lagina oso murrizta denez hemen ere, ezin ziurta daiteke. (109) eta (110) adibideetako hiztunen artean beste aukera posible bat dago: C50-MAIAZ eta C53B-NAMAU-en esaldi hauetan izenordain pluralak daudenez, eta gorago ere ikusi dugunez forma indartuen erabilera apalagoa dela forma pluraletan singularretan baino, beste posibilitate bat da pentsatzea zenbaki gramatikalak eragina izan duela salbuespen hauetan.

Beste alde batetik, LA-legea hertsiki mantendu ez arren oraindik haren zantzuak dituzten 6 hiztun dauzkagu: EHEN, ALAZI, KAU, AIBA eta JOAINH. Adibidez, JOAINH-ek (111-114) bitarteko adibideetan ikusi daitekeenez, LA-legea obeditu du sarri:

(111) Xabi eta Beñatek Peiori erran diote *aren* arreba ikusi dutela (JOAINH, C45).

(112) Peio eta Maddiz aritu naiz aien lagunekin (JOAINH, C50)

(113) *Aien* gurasoak dira, nireak ez, Peio eta Maddi zinemarat eraman dituztenak (JOAINH, C53A).

(114) Peiok *bere* zakurra il du, nerea ez (JOAINH, C51)

Beste hiztun batzuek,<sup>67</sup> forma indartua orokorrean orokortuta izan arren, hainbat kasutan *haien* forma arrunta edo haren aldaeraren bat erabili dute pluralerako. Adibidez, Xaan hiztunak ondoko adibideak eman dizkigu:

(115) Maddi eta Peiok uste dute *aien* laguna eri dela (XAAN, C47).

(116) Peio eta Maddiri buruz itz egin dut aien lagunekin (XAAN, C50).

(117) *Beren* gurasoek etorrarazi dute Peio eta Mari zinemara, ez nireak (XAAN, C53B).

---

<sup>67</sup> Guztira 7(ikus. 6.taulan laranja argia): XAAN, LAUSA, ANHAZ, IOSEN, MAIE, KABA eta IBAL.

Testuinguru hauek LA-legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen ez dituztenez, (115) eta (116) adibideetan forma arrunta aurkitzea ez da arraroa. Hala ere, hiztun honek beste kasu guztietan LA-legea bete ez duenez, pentsa daiteke arrazoi bat egon behar dela kasu hauetan forma horiek ez betetzeko, eta berriro ere badirudi zenbaki gramatikala, aitzindaria plurala izatea, honen azpian egon daitekeela.

Baliteke hiztun hauen izenordain genitiboen sistema, non *bere* egitura eta konfigurazio guztietara hedatuta dagoen, beste aldaketa bat pairatzen egotea eta *bere/haien* oposaketa singular vs. plurala oposaketa adierazteko joeraren isla izatea. Hau da, alde aurretik aurreko belaunaldiak onartutako bilakaera (forma indartua orokortuta izatea) barneratuta izatea baina beste bilakaera bat jasaten egotea, *bere* singularrerako eremua eta *haien* pluralerako eremua hartuz.

Azken hauek erakusten hasi diren bilakaera haratago eraman dutenak ugariak dira belaunaldi honetan. Datuek erakusten duten bezala, 2. belaunaldian hasi den joera baten jarraipena dugu belaunaldi honetan ere, aurreko belaunaldian baino indar handiagoa duena: *bere/haien* oposaketa. Guztira 12 hiztunek dagoeneko orokortuta daukate izenordain genitiboen oposaketa singular eta pluralera: *bere* forma singularrerako eta *haien* forma pluralerako. Hau da, Duguinek (2003) bere H3 belaunaldiarekin ikusitako berdina gertatzen da gaur egun gazteen artean, LA-legea guztiz galdu dute.

6. taulan ikus daitekeen bezala, guztiz orokortuta daukatenen taldean SEAI, IOSEN, AKAN, PABA, PANZI, JOSA, LUIDO, GORBA, MIMI eta ABE ditugu. Hauek C47, C50, C52 eta C53A/C53B perpausetan *haien* forma arruntaren aldaeraren bat erabili dute. Lagina txikia bada ere, aurrez aipatutako hipotesia babesteko/bultzatzeko arrazoia eskaintzen digute: forma indartua singularrerako darabilte eta forma arrunta, berriz, pluralerako.

(118) Maddi eta Peiok pentsatzen dute *aien* laguna eri dela (MIMI, C47)

(119) Peio ta Maitaz mintzatu naiz *aien* lagunekin (MIMI, C50)

(120) Peiok eta Maddik *aien* lagunak ekarri dituzte zinemara, baina ez eneak (MIMI, C52)

(121) *Aien* burasoak dituzte zinemara ekarri Peio eta Maddi, eta ez eneak (MIMI, C53B)


Azkenik, badago hiztun bat zeinak 1p eta 2p-ekin gertatu bezala, forma arrunta egitura guztietara orokortuta duen: MAILA hiztuna. 6. Taulari erreparatzen badiogu MAILA hiztunak *haren* guztiz orokortua duela ikus dezakegu:



(122) Xabi eta Beñat erran dizie Peioi *haen* arreba ikhusi diela (MAILA, C45). Haen ongi erabilia


(123) Pierre khexü düzü, *haen* txakürak usüki dizü (MAILA, C54).

Ondorengo grafikoan belaunaldi honetako hiztunen joerak argiago ikus daitezke:



Grafikoa 24: Hirugarren belaunaldiaren joera

Azkenik, *bere/beren* oposaketari dagokionez, belaunaldi honetakoek ere *beren*-en aldeko joera erakutsi dute forma pluraletarako:



Grafikoa 25: Hirugarren belaunaldiak bere/beren-ekiko erakutsi duen joera

Hortaz, beste belaunaldiekin alderatzen badugu, badirudi gazteen belaunaldian sakonago onartuta dagoela *bere* sg. vs. *beren* pl. oposaketa 3p. izenordainen erabilerari dagokionez.

### 3.2.3. LA-legea euskalkiz euskalki<sup>68</sup>

Goian esan bezala, Norantz proiektuak ez zituen euskalkiak irizpide bezala hartu, eta horrek zail egiten du euskalkiz euskalki ondorio zehatz batzuk ateratzea. Hitzun guztiek ez dute euskalki bat, edo batzuetan euskalki nahasia dute. Guztira, laginetik 22 hitzunek BN-az hitz egiten dute, 12k L-az eta 9k Z-az; guztira, beraz, 43 hitzun. (ik. 1.eransk.).

Honengatik guztiagatik, atal honetan azaleko analisi bat egitera behartuta gaude, gehiegi sakondu gabe. Hala ere, atal honek lagunduko digu ikusten ea euskalkien artean joera ezberdin nagusirik ba ote dagoen.

#### 3.2.3.1. Zuberera

10. taulan ikus daitekeen bezala, orokorrean 1. belaunaldiak (guztira lau hitzun) iraganeko LA-legea gehienetan nahiko ongi betetzen du ADBAR hitzunik salbu, horrek dagoeneko *bere*-ren orokortzeari bidea eman dio honek dagoeneko *bere*-ren erabilera guztiz orokortua dauka. Lehen belaunaldiko hitzun tipologiari erreparatuz, ez dago argi zein izan daitekeen hitzun honen jarrera linguistikoa azaltzen duen faktorea, LA-legea betetzen dutenen artean baserriko hitzunik (GERBAR eta REES) zein hitzun hiritarrak (PIEPA) baititugu, eta denak dira euskaldun zaharrak, beraz informazio gehiagorik gabe ezin daiteke esan zein izan daiteke hitzun hau bere belaunaldiko beste hitzunengandik aldentzen duen faktorea.

Zubereraz hitz egiten dutenen bigarren belaunaldikoen artean daukagun lagina oso murrizta da (guztira bi hitzun), beraz datuen interpretazioa tentu handiz hartu behar da. Hala ere, YOSAN-ek iraganeko LA-legea nahiko ongi mantentzen duela dirudi nahiz eta C47-n eta C49-n forma indartua onetsi duen arrunta beharrean. PIMUS-ek, bere aldetik, guztiz orokortuta dauka *bere* forma indartua. Kasu honetan lagina oso txikia bada ere, baliteke arrazoia hitzunen bizilekuan, eta bizilekuak euskararen erabileran duen eraginean, egotea. PIMUS hirian bizi da eta YOSAN, berriz, baserrian. Horregatik, litekeena da baserrian bizi izanak, giro euskaldun batean, LA-legea hobeto gordetzera eraman izana.

---

<sup>68</sup>Atal hau egiteko *Norantz*-ek eskainitako hitzunei buruzko ezaugarri taula baliatu da. Bertan hitzun bakoitzaren ezaugarriak agertzearekin batera hitzun bakoitzaren hizkuntzaren ezagutza prozesua eta metodoa aipatzen dira, baita hitz egiten duten euskalkia ere. Lan honetan ontzat hartu dira *Norantz*-ek baliatutako datuok eta horren arabera aztertu dira atal honetan. Horrela, euskalkirik ez duten hitzunik alde batera utzi dira. *Norantz*-ek eskainitako ezaugarri zerrenda 2. eranskinean atxiki da.

Azkenik, 3. belaunaldian ere (4 hiztunez osatua), *bere* gailentzen da, MAILA hiztuna alde batera utzita. Honek *haren* orokortuta dauka konfigurazio guztietara, baina hiztun honi buruz ditugun datu soziolinguistikoek ez digute azaltzen zein izan daitekeen hiztun honen sistemaren berezitasunen oinarria.

HIZT.	ADINA	C 44	C45	C46	C47	C48	C49A	C49B	C50	C51	C52	C53A	C53B	C54
GERBAR	70+	X	H	H	H	H	H		H	B	B	X	X	B
REES	70+	H	H	H	H	H		H	H	B	B	X	X	B
PIEPA	70+	H	H	H	H	H		B	H	B	B		H	H
ADBAR	70+	B	B	B	B	B		B	B	B	B	X	X	B
YOSAN	40-60	X	H	H	B	H	X	X	X	B	B	X	X	B
PIMUS	40-60	B	B	B	B	B	B		B	B	B		B	B
MAAL	-30	H	B	B	B	B	X	X	B	B	B		B	B
NAMAU	-30	B	X	B	B	B	B		B	B	B		H	B
XILA	-30	B	B	B	B	B	B		B	B	B		B	B
MAILA	-30	X	H	H	H	H		H	H	H	H	X	X	H

10.Taula: Zubereraz hitz egiten duten hiztunak

### 3.2.3.2. Lapurtera

Lapurteran, ostera, 3 joera nagusi ikusten ditugu: 1) Lehenengo belaunaldian LA-legea oraindik mantentzen dutela ikus dezakegu, nahiz eta i) XALEZ hiztunaren kasuan dagoeneko *bere* orokortzearen aldeko joera ikus dezakegun eta ii) ESHEN hiztunak *bere* guztiz orokortuta izan. Lapurteraz hitz egiten duten hiztunen emaitzak 11. Taulan bildu ditut:

HIZT.	ADIN	C44	C45	C46	C47	C48	C49A	C49B	C50	C51	C52	C53A	C53B	C54
ESHEN	70+	X	B	B	B	B		B	B	B	B	B		B

<b>MADON</b>	70+	X	H	H	B	H	H		X	B	B	X	X	X
<b>LOUSEN</b>	70+	H	H	H	X	H	H		H	B	B		H	B
<b>XALEZ</b>	70+	X	H	H	H	B	X	X	B	B	B	X	X	H
<b>PIEGE</b>	70+	H	H	H	B	H	B		H	B	B		H	H
<b>JEDON</b>	40-60	B	B	B	B	B	B		B	B	B		H	B
<b>RAZI</b>	40-60	B	B	B	B	B		B	H	B	H		H	B
<b>ANHAZ</b>	-30	B	B	B	B	B		B	H	B	B	H		B
<b>IOSEN</b>	-30	B	B	B	B	H	B		H	B	H	X	X	B
<b>MAIAZ</b>	-30	B	B	B	B	B		B	H	B	H		B	B
<b>PANZI</b>	-30	B	B	B	H	B	B		H	B	H	H		B
<b>JOAINH</b>	-30	X	H	B	B	B		B	H	B	B	H		X
<b>ALAZI</b>	-30	B	H	B	B	H	H		H	B	H	X	X	B

11. Taula: Lapurteraz hitz egiten duten hiztunak

Laginean bigarren belaunaldiko bi hiztun bakarrik egon arren, dagoeneko *bere* orokortuta daukatela ikus dezakegu. Hala ere, RAZI hiztunak C50ean LA-legea betetzeko espero dugun forma arrunta darabil, eta biek forma arrunta erabili dute C53A-n LA-legea betez. Beraz, oraindik lege zaharraren zantzuak ageri dira haiengan. Hala ere bi esaldi hauetan aitzindaria plurala da, eta gorago ikusi dugu forma pluraletan forma indartuaren erabilera apalagoa dela, beraz ez dago argi kasu hauetan forma arrunten erabilera sistema zaharraren zantzuak diren edo sistema berriak dituen joeren isla. Aurreko belaunaldiarekiko ezberdintasun tipologikorik ez dagoenez, zaila da arrazoinamendu bat bilatzea bi belaunaldien artean ikusi ditugun ezberdintasunak azaltzeko ditugun datu soziolinguistikoetan bakarrik oinarrituz.

Azkenik, hirugarren belaunaldiak aldaketa bat erakusten digu bigarrenarekiko. Hiztunek, beraien aurrekariak bezala, forma indartua nahiko orokortuta daukatela erakusten badute ere, forma arruntaren erabilera berriro ere areagotu dela ikusi dezakegu 11. Taulan. Aipatu behar da, zenbait kasutan behintzat, forma arruntaren erabileraren

azpian zenbaki gramatikalaren eragina egon daitekeela. Orokorrean, adin tarte honetako hiztunek izenordaina plurala den kasu guztietan egin baitute izenordain arruntaren alde. C50 edo C53A-n forma indartua erabili izanak LA-legea mantentzen dutela pentsatzera eramán bagaitzake ere, C52an forma arrunta erabili izanak, singular vs. plural oposaketa horretarako bidean daudela pentsarazteko aukera ematen digu.

Hala ere, talde honetan ALAZI hiztunak bere belaunaldiko beste hiztunek baino hobeto mantentzen du LA-legea. Pentsa liteke hiztunaren ezaugarri soziolinguistikoek zerikusirik izan lezaketela horrekin baina 2. Eranskineko datuak kontuan hartzen baditugu, bere taldeko beste hiztun batzuen ezaugarri berdinak dituela ikus dezakegu: euskara ama hizkuntza, eskola euskaraz eta frantsesez, eta hirixka batean du bizilekua. Beraz, ezin azal dezakegu zein arrazoiarengatik mantentzen duen hiztun honek LA-legea bere antzeko ezaugarri soziolinguistikoak dituzten bere belaunaldiko beste hiztunek baino hobeto.

### 3.2.3.3 Baxe-Nafarrera

12. Taulan bildu ditudan datuei erreparatzen badiegu, Baxe-Nafarreraz hitz egiten duten hiztunen joera nagusiak honela laburbil daitezke:

Helduen taldean 6 hiztunen artean 2-k (ANIZ eta JOBAN) testuinguru gehienetan LA-legea sistema klasikoan deskribatzen den bezala mantentzen dute, nahiz eta JOBAN-ek C51-n forma arrunta darabilen eta ANIZ-ek aitzindaria perpaus berean POSTS batean txertaturik doanean ere forma indartuaren erabilera onartu arruntarekin batera (hau da, II. Multzoko egituretan)(ik. 12. taula). Bestalde, 1. belaunaldiko beste hiztunek forma indartua testuinguru guztietara orokortuta daukatela dirudi. Horretaz gain, JABI hiztunari erreparatzen badiogu, badirudi gazteek erakusten duten joerarako bidean dagoela eta *bere* singularerako eta *haien* pluralerako bikoizketa egiten hasia dela.

HIZT.	ADINA	C44	C45	C46	C47	C48	C49 A	C49 B	C50	C51	C52	C53A	C53B	C54
JABI	70+	X	X	B	B	B	B		B	B	B		H	B
ANIZ	70+	X	H	H	B	H	B		H	B	B		B	B
MAIHE	70+	B	B	B	B	B		B	B	B	B		B	B

<b>BELU</b>	70+	B	B	B	B	H		B	H	B	B		B	B
<b>JOBAN</b>	70+	H	H	H	H	H	H		X	H	B	X	X	B
<b>XLEAHA</b>	70+	B	B	B	B	B		B	B	B	B		B	B
<b>GRAAR</b>	40-60	B	B	B	B	B		B	B	B	B		B	B
<b>XALAI</b>	40-60	B	B	B	B	B		B	B	B	B		B	X
<b>KOBA</b>	40-60	B	B	B	H	B	B		H	B	B		B	X
<b>MOBA</b>	40-60	B	B	B	B	B	B		B	B	B		B	B
<b>BERLA</b>	40-60	B	B	B	B	B	B		B	B	B		B	B
<b>MIMU</b>	40-60	B	B	B	B	B		B	B	B	B	B		B
<b>KADO</b>	40-60	B	B	X	B	B		B	B	B	B		B	B
<b>SEAI</b>	-30	B	B	B	H	B	B		H	B	H		H	B
<b>XABAI</b>	-30	B	B	B	H	B	X	X	B	B	H		H	B
<b>BEDO</b>	-30	B	B	B	B	B	B		B	B	B	B		B
<b>JOAI</b>	-30	B	B	B	B	B		B	B	B	B	X	X	B
<b>LUIDO</b>	-30	B	B	B	H	B		B	H	B	H		H	B
<b>MAIE</b>	-30	B	H	B	B	B	B		H	B	B		H	B
<b>KABA</b>	-30	B	B	B	B	B		B	B	B	H		H	B
<b>ABE</b>	-30	B	B	B	H	B		B	X	B	H	X	X	B
<b>KAU</b>	-30	X	H	H	B	H	B		H	B	B		H	X

12.Taula: Baxe-Nafarreraz hitz egiten duten hiztunak

Gazteen belaunaldiari dagokionez, lau joera bereizi behar ditugu. Alde batetik, BEDO eta JOAI ditugu. Bi hiztun hauek guztiz orokortuta daukate forma indartua testuinguru guztietara. KAU hiztunak, bere aldetik, LA-legea hein batean betetzen duela dirudi baina aitzindaria POSTS baten barruan dagoenean badirudi biak (bai indartua eta bai arrunta) onartzen dituela, bilakaera bat onartzen ari delako seinale. Hiztun honi buruz ematen

zaizkigun datu soziolinguistikoetan oinarrituz zaila da jakiten zein faktorek eragiten duten hiztun honen sistema, izan ere BEDO eta SEAI hiztunek bere ezaugarri soziolinguistiko berdinak badituzte ere —eskola frantsesera joanak, bizilekua baserrian eta euskara ama hizkuntza (SEAI-en kasuan euskara belarriz ikasi zuela aipatzen da)—, jarrera linguistiko ezberdinak erakusten dituzte.

Horrez gain, badira *bere* orokortuta dutenak baina dagoeneko *bere/haien* bereizketa (hau da, pl. vs. sg. Bereizketa) ere onartzen hasiak direnak: XABAI, LUIDO, MAIE, KABA ETA ABE.

Azkenik, SEAI-k osoki erabiltzen du *bere/haien* oposaketa.

Beraz, euskalkien arteko ezberdintasunei dagokienez, alde batetik badirudi LA-legea lapurteraz biziraun duela gehien (gazteengan oraindik zantzuak ikus daitezke) nahiz eta lehenengo belaunaldiari dagokionez, zubereraz hitz egiten duten hiztunek mantentzen duten lapurterazkoek baino gehiago. Beste alde batetik, forma indartuaren orokorpena baxe-nafarreraz da indartsuen lehenengo belaunalditik (egia da ere talde honetakoa dela laginaren zati handiena). Azkenik, badirudi lapurteraz sartu zela indartsuago sg. Vs. pl. oposaketa.

#### **4. ONDORIOAK ETA GOGOETAK**

Lagineko C44-C54 esaldien emaitzen azterketa honela laburbil daiteke (beti ere laginaren ezaugarriak kontuan harturik, tentuz hartu beharreko ondorioak dira) :

i) Izenordain genitiboen sistema, LA-legeak deskribatzen duen moduan, dagoeneko galdua da 3p izenordainekin Iparraldeko hizkeretan. Hiztunek LA-legearen baldintzak alde ezberdinetatik hausten dituzte. Alde batetik, 3p izenordain indartuak baimentzen dira aitzindariak izenordaina biltzen duen perpauseko aditz jokatuan komuntadura marka eragiten ez duenean ere (hau da, aitzindaria NOR, NORI edo NORK osagai bat ez denean ere). Bestetik, izenordain genitibo indartuak perpausaren mugaz gaindi ere baimentzen dira, aitzindaria eta komuntadura marka, alde batetik, eta izenordaina, bestetik, perpaus ezberdinetan daudenean.

ii) Sistemaren azterketak forma indartuen aldeko norabide argia erakusten digu. 1 belaunaldiko hiztunek beste belaunaldiko hiztunek baino hobeto gorde dute LA-legea. Belaunaldi gazteak orohar forma indartua orokortua dute testuinguru guztietan.

Euskalkien artean Zuberera dirudi euskalki guztien artean LA-legea hobeto/luzeen gorde duena, belaunaldi gaztean galtzeko bidean edo galduta badago ere. Zubereraren izaera gordetzaile hau ertzetako hizkera izatearekin loturik egon daiteke: horrelako hizkeretan berrikuntzak beranduago heltzen omen dira.

**iii)** Rebuschik (1995, 1997) LA-legearen bilakaera azaltzeko proposatu zuen fenomeno sintaktikoa izatetik diskurtso mailakoa izatera pasa zela. Hortaz, adibidez, aitzindaria topiko nagusia izateak forma indartuen baimentzean eragina izan zezakeela proposatu zuen. Gure lagina txikiegia da behin betiko ondoriorik proposatzeko, baina ditugun datuak kontuan hartuz litekeena da diskurtsorekin loturiko zenbait faktore, hala nola aitzindaria topiko nagusia izatea eta aitzindaria izenordainaren aurretik agertzea, forma indartua hautatzeko aldeko faktoreak izatea.

Hala ere, belaunaldi gaztean forma indartuen erabilera guztiz orokortua dagoela kontuan hartuz, hiztun gazteen euskaran dagoeneko fenomeno hau diskurtso mailakoa izateari ere utzi egin diola esan genezake. Hirugarren belaunaldiarekin bereziki (aurreko belaunaldiko batzuek zantzuak erakutsi badituzte ere) LA-legea singular vs. plural oposaketa batera murriztu dela ikusi dugu. Emaiza hauek bat datoz Duguinek (2003) deskribatu zuen egoerarekin. Egin ditugun taulek argi uzten dutenez, badirudi azken urteetan aldaketak nahiko azkar ematen ari direla eta forma indartu vs. ez indartuen oposaketan oinarritutako sistemaren bilakaera oso arin ematen ari dela.

**iv)** Forma indartuen erabilera apaldu egiten da aitzindaria eta izenordaina pluralak direnean. Bi elementu hauen zenbaki gramatikalak beraz eragina dauka forma bat ala bestea hautatzeko orduan.

Honekin loturik, badirudi hiztun asko izenordain indartu eta ez indartuen sistemaren berrantolaketa bat eramaten ari direla aurrera, *bere* 3p. singularrerako eta *haien* 3p. pluraletarako erabiliz. Emaiza hauek ere bat datoz Duguine (2003) lanaren emaitzekin.

**v)** *Bere* vs. *Beren*. Forma plural indartuetan *bere* zein *beren* formak aurkitzen ditugu hiztunen erantzunetan. Hortaz, Rebuschik (1995) deskribatutako *bere/beren* oposaketa horrek gaur egun indartsu dihardu oraindik ere. Bi forma hauen artean, *beren*-ek aurrea hartu dio *bere*-ri eta orohar gehiago erabiltzen da *bere* baino. Belaunaldien artean, belaunaldi gaztea da *beren*-en erabilerarik altuena erakutsi duena. Joera honetan, bi formen arteko banaketa semantikoa izatera mugitzen ari dela dirudi.

LA-legeak deskribatzen duen sistemaren bilakaera aurrez hasia bazen ere, goian esan bezala badirudi haren abiadura asko areagotu egin dela azken hamarkadetan. Ikerketa



soziolinguistikoko sakonagoa beharko genuke honen arrazoiak zeintzuk diren jakiteko, baina litekeena da euskarak Iparraldean duen egoerak, hezkuntza sistemak, komunikabideek eta bestelako faktore batzuk ere eragina izatera sistemaren bilakaera azkar honetan.

## 5. BIBLIOGRAFIA

- ARTIAGOTIA, X. 2003. “Reciprocals and reflexive constructions”. In HUALDE & ORTIZ DE URBINA. *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 620-632.
- DUGUINE, M. 2003. *Uztardura teoria, sintaxitik urrunduz. Gaur egungo haren eta bere izenordain genitiboen erabilpenaren kasu azterketa bat*. Bordele: Michel de Montaigne Unibertsitatea, Baionako Fakultatea.
- IKER. *Norantz datu basea*. Baiona: Iker. In [<http://www.norantz.org/>]
- LAFITTE, P. 1944. *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*. In [<http://meta.gipuzkoakultura.net/handle/10690/468>]
- MARTÍNEZ ARETA, M. 2015. “Linschmann-Aresti legea Lazarragaren testuan”. In FÉRNANDEZ, B. & SALABURU, P. (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 457-472.
- MARTÍNEZ ARETA, M. 2013. “Demonstratives and personal pronouns”. *Basque and Proto-Basque. Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction. Mikroglossika*. Frankfurt: Peter Lang Edition. Orrialdeak?
- MOUNOLE, C. & GÓMEZ, R. 2018. “Euskara Zahar eta Klasikoa”. In GORROTXATEGI, J., IGARTUA, I. & LAKARRA, J.A. (arg.), *Euskararen Historia*. Vitoria-Gasteiz. Goian hemen ez duzu “puntu” jarri, bi puntu (:) baizik. Kontuz ibili honelako gauzeekin begiratuko dutelako Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 469-543.
- OYHARÇABAL, B., EPELDE I. & SALABERRIA-FULDAIN, J. 2012. “Norantz datu-basea: Aurkezpena eta aditz komunztadurako datuak” . Baiona: Iker. In [<http://www.norantz.org/web/argitalpenak>]

- REBUSCHI, G. 1995. "Weak and strong genitive pronouns in Northern Basque: A diachronic perspective". In: HUALDE, J.I., LAKARRA, J.A. & TRASK, R.L. (arg), *Towards a History of the Basque Language*. Amsterdam: Benjamins (CILT 131). 313-356.
- REBUSCHI, G. 1997a. "Théorie du liageet langues non-configurationnelles: quelques données du basque navarro-labourdin", *Essais de linguistique basque*. Donostia: ASJUren gehigarriak 35: 175-218.
- REBUSCHI, G. 1997b. "Théorie du liage, diachronie et énonciation: sur les anaphores possessives du basque", *Essais de linguistique basque*. Donostia: ASJUren gehigarriak 35:219-232.
- REBUSCHI, G. 1997c. "À propos de l'évolution des pronoms génitifs en basque du nord", *Essais de linguistique basque*. Donostia, ASJUren gehigarriak 35: 301-319.
- SARASOLA, I. 1979. "Nire/neure, zure/zeureliteratur tradizioan". *Euskera* 25, 431-446

## 6. ERANSKINAK

### 6.1. Lehenengo eranskina<sup>69</sup>

HIZTUNA	C44	C45	C46	C47	C48	C49A	C49B	C50	C51	C52	C53A	C53 B	C54
ESHEN	X	B	B	B	B		B	B	B	B	BN		B
JABI	X	X	B	BN	B	B		BN	B	BN		H	B
MADON	X	H	H	BN	H	H		BN	B	BN	X	X	X
LOUSEN	H	H	H	X	H	H		X	B	X		H	B
GERBAR	X	H	H	H	H	H		H	B	H	X	X	B
XALEZ	X	H	H	H	B	X	X	H	B	H	X	X	H
ANIZ	X	H	H	BN	H	B		BN	B	BN		B	B
MAIHE	B	B	B	B	B		B	B	B	B		BN	B
BELU	B	B	B	BN	H		B	BN	B	BN		B	B
REES	H	H	H	X	H		H	X	B	X	X	X	B
PIEPA	H	H	H	H	H		B	H	B	H		H	H
PIEGE	H	H	H	BN	X	B		BN	B	BN		H	H
JOBAN	H	H	H	X	H	H		X	H	X		H	B
ADBAR	B	B	B	B	B		B	B	B	B	X	X	B
XLEAHA	B	B	B	B	B		B	B	B	B		BN	B
JEDON	B	B	B	B	B	B		B	B	B		H	B
RAZI	B	B	B	BN	B		B	BN	B	H		H	B
YOSAN	X	H	H	BN	H	X	X	BN	B	B	X	X	B

<sup>69</sup> Taula honetan berdez ageri diren laukiek LA-legea betetzen dela adierazten dute. Gorritz adierazitako ixek, berriz, azterketatik kanpo gelditu diren perpausak adierazten dituzte.

PIMUS	B	B	B	B	B	B		B	B	B		B	B
GRAAR	B	B	B	BN	B		B	BN	B	B		BN	B
XALAI	B	B	B	B	B		B	B	B	B		BN	X
KOBA	B	B	B	H	B	B		H	B	B		B	X
MOBA	B	B	B	BN	B	B		BN	B	B		BN	B
BERLA	B	B	B	BN	B	B		BN	B	B		BN	B
MIMU	B	B	B	BN	B		B	BN	B	B	BN		B
KADO	B	B	X	B	B		B	B	B	B		B	B
EHI	B	B	B	B	B	B		B	B	B	BN		B
MAAL	H	B	B	BN	B	X	X	BN	B	BN		BN	B
SEAI	B	B	B	H	B	B		H	B	H		H	B
XAAN	X	B	B	H	B	B		H	B	X		BN	B
XABAI	B	B	B	H	B		B	ENF	B	H		H	B
LAUSA	B	B	B	B	B		B	H	B	H		H	B
ANHAZ	B	B	B	BN	B		B	H	B	BN	H		B
IOSEN	B	B	B	ENF	H	B		H	B	H	X	X	B
BEDO	B	B	B	BN	B	B		BN	B	BN	BN		B
MAIAZ	B	B	B	BN	B		B	H	B	X		BN	B
NAZI	B	B	B	BN	B		B	BN	B	BN		BN	B
AKAN	B	B	B	H	B		B	H	B	H	H		B
EHEN	H	H	B	BN	B		B	H	B	BN	X	X	H
PABA	B	B	B	H	B		B	H	B	H		H	B
JOAI	B	B	B	BN	B		B	BN	B	BN	X	X	B

PANZI	B	B	B	H	B	B		H	B	H	H		B
JOSA	B	B	B	H	B	B		H	B	H	X	X	B
LUIDO	B	B	B	H	B		B	H	B	H		H	B
MAIE	B	H	B	BN	B	B		H	B	BN		H	B
NAMAU	B	X	B	BN	B	B		BN	B	BN		H	B
IBA	B	B	B	B	B		B	X	B	B	X	X	B
KABA	B	B	B	ENF	B		B	B	B	H		H	B
PEOLO	X	B	X	B	B	X	X	B	B	B		B	B
JOAINH	X	H	X	BN	B		B	H	B	BN	H		X
GORBA	B	B	B	H	B	B		H	B	H		H	B
ABE	B	B	B	H	B		B	X	B	H	X	X	B
AIBA	B	B	H	H	H		B	H	B	H	X	X	H
XILA	B	B	B	B	B	B		BN	B	BN		BN	B
ALAZI	B	H	B	BN	H	H		H	B	H	X	X	B
MIMI	B	B	B	H	B	B		H	B	H		H	B
KAU	X	H	H	BN	H	B		H	B	BN		H	X
IBAI	B	B	B	H	B	B		H	B	H		B	B
MAILA	ENF	H	H	H	H		H	H	H	H	X	X	H

1.Eranskina: Hitzunen emaitzak

## 6.2. Bigarren eranskina

<b>Hiztuna</b>	<b>ADINA</b>	<b>LEHEN H/HIZKERA</b>	<b>ESKOLA H</b>	<b>HIZKER A</b>	<b>BIZILEKU A</b>
<b>ESHEN<sup>70</sup></b>	70+	E	F	L	HIRX
<b>JABI</b>	70+	E	F	BN	HIR
<b>MADON</b>	70+	E	F	L	BAS
<b>LOUSEN</b>	70+	E	F	L	BAS
<b>GERBAR</b>	70+	E	F	Z	BAS
<b>XALEZ</b>	70+	E	F	L	BAS
<b>ANIZ</b>	70+	E	F	BN	BAS
<b>MAIHE</b>	70+	E	F	BN	HIR
<b>BELU</b>	70+	E	F	BN	HIR
<b>REES</b>	70+	E	F	Z	BAS
<b>PIEPA</b>	70+	E	F	Z	HIR
<b>PIEGE</b>	70+	E	F	L	BAS
<b>JOBAN</b>	70+	E	F	BN	HIR
<b>ADBAR</b>	70+	E	F	Z	HIR

<sup>70</sup> Laburdurak: E= Euskara; F=Frantsesa; MS= Murgiltze Sistema; HIR=Hiria; HIRX=Hirixka; BAS=Baserria

<b>XLEAHA</b>	70+	E	F	BN	HIR
<b>JEDON</b>	40-60	E+F	F	L	HIRX
<b>RAZI</b>	40-60	E	F	L	HIRX
<b>YOSAN</b>	40-60	E	F	Z	BAS
<b>PIMUS</b>	40-60	E	F	Z	HIR
<b>GRAAR</b>	40-60	E	F	BN	HIRX
<b>XALAI</b>	40-60	E	F	BN	BAS
<b>KOBA</b>	40-60	E	F	BN	HIR
<b>MOBA</b>	40-60	E	F	BN	HIR
<b>BERLA</b>	40-60	E	F	BN	HIRX
<b>MIMU</b>	40-60	E	F	BN	BAS
<b>KADO</b>	40-60	E	F	BN	BAS
<b>EHI</b>	40-60	F (E HELDU)	F	-	HIR
<b>MAAL</b>	-30	E	F	Z	BAS
<b>SEAI</b>	-30	E	F	BN	BAS
<b>XAAN</b>	-30	F (E HELDU)	F	-	HIR
<b>XABAI</b>	-30	E	F	BN	HIR
<b>LAUSA</b>	-30	F (E HELDU)	F	-	BAS
<b>ANHAZ</b>	-30	E	MS	L	HIRX
<b>IOSEN</b>	-30	E	MS	L	HIRX
<b>BEDO</b>	-30	F (E BELARRIZ)	F	BN	BAS
<b>MAIAZ</b>	-30	E	MS	L	HIRX
<b>NAZI</b>	-30	E	MS	<b>NAHASIA</b>	HIRX

<b>AKAN</b>	-30	F (E ESKOLAN)	MS	-	HIRX
<b>EHEN</b>	-30	E	MS-F eremua	NAHASIA	HIRX
<b>PABA</b>	-30	F	MS	-	HIR
<b>JOAI</b>	-30	E	MS+BARN	BN	BAS
<b>PANZI</b>	-30	F	F	L	HIRX
<b>JOSA</b>	-30	F	MS	-	BAS
<b>LUIDO</b>	-30	F+E	MS +BARN	BN	HIRX
<b>MAIE</b>	-30	E	MS	BN	BAS
<b>NAMAU</b>	-30	E	F/E	Z	BAS
<b>IBA</b>	-30	E	MS	-	HIR
<b>KABA</b>	-30	E	MS	BN	HIR
<b>PEOLO</b>	-30	F (E AITON- AMONEKIN)	F	-	HIRX + BAS
<b>JOAINH</b>	-30	E + F	F	L	BAS
<b>GORBA</b>	-30	F	MS	-	HIR
<b>ABE</b>	-30	E+F	MS	BN	BAS
<b>AIBA</b>	-30	E	MS	-	HIR
<b>XILA</b>	-30	E	F/E	Z	BAS
<b>ALAZI</b>	-30	E	E/F	L	HIRX
<b>MIMI</b>	-30	F	MS	-	BAS
<b>KAU</b>	-30	E	F	BN	BAS
<b>IBAI</b>	-30	F	MS	-	HIR
<b>MAILA</b>	-30	E+F	F	Z	BAS



## 2.Eranskina: Hitztunen tipologia